

AURKIBIDEA

1.2012-2013 OROIT-IDAZKIAREN HITZAURREA

2.GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.1 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegoak egindako txosten bereziak.

**2.1.1 Haurdun dauden emakumeentzat
erreserbatutako aparkalekuei
buruzko txostena (erreg. zk.:
54/12 OFIZIOA)**

**2.1.2 Apurketa-gasari buruzko txostena
(erreg. zk.: 1676/12)**

**2.1.3 Udaltzaingoaren ponentziari
buruzko txostena**

**2.1.4 Bizitegi-eremu pribatuetako
barbakoei buruzko txostena (erreg.
zk.: 59/12)**

2.2 Jarduerak

2.2.1 Hizlari

2.2.2 Gonbidapenak

**2.2.3 Talde eta elkarteekin egindako
bilerak**

2.2.4 Beste sindikoekin egindako bilerak

2.2.5 Gasteizko Udalarekiko harremanak

2.2.6 Ikuskatze jarduerak

2.3 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen ebazpenak, sailez sail (gomendioa egitea, ezestea, ez onartzea, bideratzea, orientabidea ematea eta beste).

2.3.1.- Alkatetza Saila

2.3.1.1- Alkatea

a) Orientabidea

- Euskaltzaindiaren plazako autobus geltokia (erreg. zk. 1650 / 12)
- Arabako Auzo Elkarten Federazioaren erregistroa (erreg. zk.: 1715 / 12)

b) Ezestea

- Bat txartela: kenkaria (erreg. zk.: 1714 / 12)

c) Gomendioa

- Arabako Auzo Elkarten Federazioaren erregistroa (erreg. zk.: 1715 / 12)

2.3.1.2- Kultur Plangintza eta Jaiak

a) Herritarrak berak itxia

- Aparteko orduak kobratzea (erreg. zk.: 1684 / 12)

b) Gomendioa

- Erakusketako obra katalogatzea (erreg. zk.: 1755 / 12)

2.3.2.- Hirigintza Saila

2.3.2.1- Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzua

a) Gomendioa

- Jabetza pribatuko lursaila bide publikorako lagatzea (erreg. zk.: 1522 / 11)

2.3.2.2- Eraikuntzak

a) Gomendioa

- Lanabes-etxerako baimena (erreg. zk.: 1666 / 12)
- Eraikin bat birgaitzean Lurzoruaren Legea aplikatzea (erreg. zk.: 1771 / 12)

b) Orientabidea

- Janari-dastaketa etxebizitzetan (erreg. zk.: 1659 / 12)
- Igogailua zero kotan (erreg. zk.: 1761/ 12)

c) Bitarteko jarduera

- Beheko solairuari kalte egiten dion igogailua (erreg. zk.: 1768 / 12)

d) Ezestea

- Igogailua eta garajea (erreg. zk.: 1819 / 12)

2.3.2.3- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Tokiko erakunde txiki baten partzelazio-lizentzia (erreg. zk.: 1579 / 11)

b) Orientabidea

- Etxebizitza gisa gaitutako lonja (erreg. zk: 1719 / 12)
- Europa Biltzar Jauregi berria eraikitzeko proiektua (erreg. zk.: 1749 / 12)

2.3.3.- Herritarren Segurtasunaren Saila

2.3.3.1- Udaltzaingoa

a) Ezestea

- Herritarren Segurtasunaren alorreko salaketa (erreg. zk.: 1469/11)
- Salaketa, estupefazianteen eraginpean gidatzeagatik (erreg. zk.: 1687/12)
- Salaketa, kargatzeko eta deskargatzeko eremuan desgaituentzako txartelarekin aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1680/12)
- TAO aparkaleku arautuaren sistema (erreg. zk.: 1641/12)
- Isuna bidegabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1667/12)
- Istilua hauteslekuan (erreg. zk.: 1679/12)
- Isuna: asegururik gabe aparkatutako autoa (erreg. zk.: 1700/12)
- Isuna: istilua udaltzain batekin (erreg. zk.: 1693/12)
- TAO tasaren kudeaketa (erreg. zk.: 1566 y 1606/11)
- Isuna eta desobedientzia (erreg. zk.: 1701/12)
- Isuna: telefono mugikorretik hitz egitea (erreg. zk: 1734/12)
- Alaba Jeneralaren kalea oinezkoentzat egitea (erreg. zk.: 1741/12)
- Isuna: zirkulazio bidean aparkatzea (erreg. zk.: 1718/12)
- Isuna: epailea eta partea (erreg. zk.: 1720/12)
- Skaterren zarata Sefarad plazan (erreg. zk.: 1721/12)
- Isuna TAO tiketik gabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1759/12)
- Isuna bizikletan bidaiari bat eramateagatik (erreg. zk.: 1783/12)

- Herritarrak oinezkoen eremuan sartzea (erreg. zk.: 1777/12)
- Zebra-bideetan eta aparkatzea debekatua dagoen tokietan radar-autoak jartzea (erreg. zk.: 1758/12)

b) Gomendioa

- Dosier zigortzailea ustezko arau-haustea dela eta (erreg. zk. 1704 / 12)
- Isuna desgaituentzako eremuan aparkatzeagatik. Txartelaren ikuspena (erreg. zk.: 1672 / 12)
- Bizikleta-biltegia (erreg. zk.: 1670/ 12)
- Tabernen ordutegia kontrolatzea (erreg. zk.: 55 / 12)
- Istilua Udaltzaingoarekin (erreg. zk.: 1695 / 12)
- Taberna ixteko ordua (erreg. zk.: 1474 / 11)
- Isuna, udaltzainari kasu ez egiteagatik (erreg. zk.: 1594/ 11)
- Zapatarari kaleko tabernak ixteko orduak (erreg. zk.: 1664/ 12)
- Isuna: zamalanetarako baimendutako ibilgailua (erreg. zk.: 1711/12)
- Isuna: koadro astunen zamalanak (erreg. zk.: 1709/12)
- Isuna: agenteen seinaleak edo aginduak ez errespetatzea (erreg. zk.: 1724/12)
- Isuna: isun desberdina egintza berdinetarako (erreg. zk.: 1669 eta 1728/12)
- Isuna: agenteek agindutakoa ez betetzea (erreg. zk.: 1727/12)

c) Gogorarazpena

- Udaltzainen adeitasuna (erreg. zk.: 1663 eta 1686 / 12)

d) Idazki lagundua

- Isuna: bigarren lerroan geratzea Salburua bulebarrean (erreg. zk.: 1712 / 12)
- Poliziaren atestatuan salatutako adingabeak (erreg. zk.: 1748 / 12)

- Zamalanetarako lekuari dagokionez jarritako zigorra (erreg. zk.: 1756 / 12)
- Isuna, Garbiketa Ordenantza ez betetzeagatik (erreg. zk.: 1820 / 12)
- Liskarra udaltzainekin (erreg. zk.: 1866 / 12)

e) Errefusatzea

- Isuna: bizikletan kaskorik gabe ibiltzea (erreg. zk.: 1735 / 12)
- Atzera botatzea asmo txarrez jokatu izanagatik (erreg. zk.: 1733 / 12)

f) Orientabidea

- Isuna: patruila-autoari pasatzen ez uztea (erreg. zk.: 1740/ 12)
- Prostituzio-etxea Batzar Nagusien kalean (erreg. zk.: 1765/ 12)
- Liskarra udaltzainekin (erreg. zk.: 1813/ 12)

g) Bitartekaritza

- Bizikidetzaren arazoak gizalegez jokatzen ez duten adingabeekin (erreg. zk.: 1779/ 12)

2.3.3.2-Trafikoa

a) Bitarteko jarduera

- Latinoamerikako plazako semaforoaren araubidea (erreg. zk.: 61/12)
- Oinezkoentzako pasabidea Sofia Erreginaren hiribidean (erreg. zk.: 1769/12)
- Hainbat isun, TAO eremuan aparkatzeagatik, egoiliar txartela edukirik (erreg. zk.: 1827/12)

2.3.4.- Ogasun Sails

2.3.4.1- Zuzendaritza Nagusia

a) Gomendia

- Gainbalioa. Bahiketa eta etxe kaleratzea (erreg. zk.: 1683 / 12)
- Zuzenbide publikoko zorraren ordainketa atzeratzea (erreg. zk.: 1691 / 12)
- Sailaren kontraesana trafiko-isunaren aurrean (erreg. zk.: 1438 / 10)
- Zaborren gaintasa
(Erreg. zk.: 1660, 1776, 1778, 1781, 1784, 1785, 1786, 1788, 1789, 1790, 1793, 1794, 1797, 1798, 1799, 1801/12 y 1795, 1800/12 eta 1791, 1796/12)
(1802, 1803, 1804, 1805, 1806, 1807, 1810, 1811, 1812, 1816, 1821, 1824, 1825, 1826/12)
(1829tik 1865era/12)
- TAO zerbitzuaren salaketa-txartela bidegabe kobratzea (erreg. zk.: 1762 / 12)

b) Ezestea

- Isunaren ordainketa zatikatzea (erreg. zk.: 1713 / 12)
- Utzarazpenagatiko gainbalioa (erreg. zk.: 1766 / 12)

c) Orientabidea

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak (erreg. zk.: 1869/ 12)
- Hobaria, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (erreg. zk.: 1871/ 12)
- Etxetik kanporatzea (erreg. zk.: 1872/ 12)

2.3.4.2- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Orientabidea

- Udal-lorezainak fatxadan eragindako kalteak (erreg. zk.: 1764 / 12)

2.3.5.- Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila

2.3.5.1- Errolda eta Hauteskundeak

a) Gomendioa

- Erroldako baja norberaren jabetzako etxebizitzan (erreg. zk.: 1689 / 12)

2.3.5.2- Zuzendaritza

a) Orientabidea

- Gizarte laguntza ez ordaintzea (erreg. zk.: 1723 / 12)
- Auzotarrekin bizitzeko ezintasuna (erreg. zk.: 1690 / 12)
- Laguntzak eta Lanbide (erreg. zk.: 1702 / 12)
- Menpeko egoeran dagoen amarentzako laguntza (erreg. zk.: 1782 / 12)
- Janarietarako laguntzak (erreg. zk.: 1817 / 12)
- Lanbidera bideratzea (erreg. zk.: 1874 / 12)

b) Bitarteko jarduera

- Gizarte laguntzak ez kobratzea (erreg. zk.: 1694 / 12)

c) Ezestea

- Oinarrizko errenta etetea, izen-mailegatzaila (erreg. zk.: 1710 / 12)

- Alokabideren alokairu-luzapenari ez erantzutea (erreg. zk.: 1780 / 12)
- Auzokideen zaratak (erreg. zk.: 1792 / 12)
- Aldi baterako desgaituaren txartel-eskaera (erreg. zk.: 1757 / 12)
- Zaratak udalaren etxebizitzan (erreg. zk.: 1615 / 11)
- Alokairu sozialerako etxebizitza ezegokia (erreg. zk.: 1637 / 11)
- Laguntza eskabidea erantzunik gabe (erreg. zk.: 1787/ 12)

d) Errefusatzea

- Bidegabeko kobratzeei buruzko erreklamazio bidegabea (erreg. zk.: 1772 / 12)

e) Bideratzea

- Laguntzak ukatzea eta Lanbide (erreg. zk.: 1878 / 12)

2.3.5.3- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Gomendioa

- Egoera txarrean zegoen kutxatilak eragindako erorikoa (erreg. zk.: 1747 / 12)

2.3.6.- Ingurumen Saila

2.3.6.1- Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea

a) Gogorazpena

- Hosto haizagailuak (erreg. zk.: 1644 / 12)
- Hiriguneetan baimendu gabeko herbizidak erabiltzea (erreg. zk.: 985/ 08)

b) Orientabidea

- Saretxoak bide publikoan, Uralmendi kalean (erreg. zk.: 1736/12)
- Gazteentzako lonjetarako jarduera-lizentzia (erreg. zk.: 1697/12)

c) Ezestea

- Baratze ekologikoaren emakida (erreg. zk.: 1743/12)
- Bidegorria oinezkoentzako kalean (erreg. zk.: 1808/12)

d) Errefusatzea

- Auzokideen zaratak (erreg. zk.: 1732/12)

e) Bitarteko jarduera

- Zaratak Diputazio kaleko patioan (erreg. zk.: 1737/12)

f) Bideratzea

- Apaizgaitegiko pilotalekuak enbarazu egitea (erreg. zk.: 1696/11)

g) Herritarrak berak itxia

- Kutxatilak Antepara kalean (erreg. zk.: 1770/12)

2.3.6.2-Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Kebidea jartzea (erreg. zk.: 1638/12)
- Prostituzioa Barnekale berrian (erreg. zk.: 1544/11)

b) Bitarteko jarduera

- Skaterren zarata Sefarad plazan (erreg. zk.: 1721/12)
- Zaratak: Jimmy Jazz diskoteka (erreg. zk.: 1809/12)
- M^o tabernaren zaratak (erreg. zk.: 1818/12)

- Hotza etxebizitzan, supermerkatuko aire girotuagatik (erreg. zk.: 1744/ 12)

2.3.7.- Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak

2.3.7.1- Zuzendaritza

a) Idazki lagundua

- Elkarteen ordezkari (erreg. zk.: 1601 / 11)

b) Ezestea

- ONCEren federazioan bildu beharra (erreg. zk.: 1705 / 12)

2.3.7.2- Herritarren parte-hartzea

a) Orientazioa

- Kirol elkarte (erreg. zk.: 1752 / 12)

2.3.8.- Udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoak

2.3.8.1- TUVISA

a) Ezestea

- Autobus-aldaketa kobratu izana (erreg. zk.: 1675 / 12)
- Autobus-txartelaren zenbatekoa (erreg. zk.: 1699 / 12)

b) Gomendioa

- Bonotaxia (erreg. zk.: 1682 / 12)
- "Artiumen" garaje-plaza lagatzea (erreg. zk.: 1775 / 12)

2.3.8.2- 21 Zabalgunea

a) Orientabidea

- Olarizuko birkokatzeak (erreg. zk.: 1708 eta 1725 / 12)

b) Bitarteko jarduera

- Etxebizitza eraberritzea, Arkupeetan (erreg. zk.: 1822/12)

2.3.8.3- "Luis Aranburu" Udal Musika Eskola

a) Ezestea

- Autismoa eta Musika Eskolan sartzea (erreg. zk.: 1750 / 12)

2.3.8.4- Amvisa

a) Herritarrak berak itxia

- Ur hornikuntza Estarroan (erreg. zk.: 1688 / 12)

b) Bitarteko jarduera

- Kontagailuen zaratak (erreg. zk.: 1814 / 12)

c) Orientabidea

- Fakturazio arazoak (erreg. zk.: 1867/ 12)

d) Ezestea

- Kontagailuen funtzionamendu okerra (erreg. zk.: 1763/ 12)

2.3.9.- Ekonomia Sustapena eta Enplegua

2.3.9.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- Kontratazio-poltsa (erreg. zk.: 1692 eta 1698 / 12)

b) Orientabidea

- Juduen kaleko xafla (erreg. zk.: 1633 / 11)

c) Ofiziozko gomendioa

- Erortzeko arriskuko seinalea arrapala mekanikoetan (erreg. zk.: 56/12)

d) Gomendioa

- Idazkiari emandako erantzuna (erreg. zk.: 1726/12)

2.3.10.- Osasun eta Kontsumo Saila

a) Ezestea

- Animalia identifikatzeko txipa (erreg. zk.: 1745 / 12)
- Isuna: txokolatina biguna (erreg. zk.: 1722 / 12)

b) Orientabidea

- Segurtasunik eza Erdi Aroko hirigunean (erreg. zk.: 1731 / 12)

2.3.11.- Funtzio Publikoaren Saila

a) Errefusatzea

- Kontrol ofizialak arrazionalizatzeko plana (erreg. zk.: 1828 / 12)

2.4 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen Bulegoak beste erakunde batzuetara bideratutakoak

2.4.1.- Arartekoa

**3. OROIT-IDAZKI HONETAN ITXI GABE
GERATZEN DIREN DOSIERRAK**

**4. BERRIRO ZABALDU DIREN AURREKO
OROIT-IDAZKIETAKO DOSIERRAK**

5. BERARIAZKO JARDUERAK

**5.1 Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde
Berezia.**

5.1.1. 2012ko maiatzaren 7ko Batzordea

**6. ZERBITZUAREN EBALUAZIOA GASTEIZKO
HERRITARREN USTEZ**

**7. 2011-2012 EKITALDIAN EGINDAKO KEXA
ETA KONTSULTEN ESTADISTIKA AZTERKETAK**

8. PRENTSA DOSIERRA

1. HITZAURREA

Hona hemen Gasteizko Sindiko-Herritarren Defendatzaile gisa aurkezten dudan lehenengo oroit-idazkia. Ohorea da niretzako. Dena dela, ez litzateke bidezkoa esatea agiri honetako kontuak nire lantaldearen edo nire emaitza direla esatea. Izan ere, urtea amaitzeko hilabete falta zela hartu genuen zerbitzu honen gida. Horregatik, bihotzez eskertzen dugu gure aurrekoek egin zuten lana. Eskerrik asko zuri, Javier, eta bejondeiola zure lantalderei: Mari Paz, Sonia, Rebeka, urte hauetan zehar egin duzuen lan bikainagatik, zuen esfortzuarekin erakunde honen sona zabaldu eta egonkortu duzuelako. Nire lantaldeak eta nik zuen altueran egotea espero dugu, Vitoria-Gasteizko herritarren eskubideen defentsan bat eginez.

2001. urtean Gasteizko Sindikoaren erakundea berrezarri zenetik argitaratu diren oroit-idazkiek, urte bateko martxoaren 1etik hurrengo urteko otsailaren 28ra arteko tartea jaso izan dute, Javier Otaola, aurreko Sindikoak, kargua hartu zuenetik 12 hilabeteko denboraldiak jasoz. Hemendik aurrera, ordea, oroit-idazkiak urte naturalarekin batera joango dira, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Horregatik, orain aurkezten dugun oroit-idazki honek 9 hilabete bakarrik jasotzen ditu, 2012ko martxoaren 1etik abenduaren 31ra arte.

Hasierako hilabete hauek, zalantzarik gabe, nire ibilbide profesionaleko bizienak izan dira, zirrargarrienak. Izan ere, zerbitzu honek, txikia izan arren, oihartzun sozial eta mediatiko nabarmena du. Horregatik, lehenik eta behin gure hiriaren errealitateaz eta arazoez ahalik eta informazio gehien jasotzera behartu nau, eta, aldi berean, nire iritzi eta deklarazioak behar bezala neurtzera, Sindikotzaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna une oro babestearren.

Nire lantaldeak eta nik, gogotsu ekiten diogu erronka berri honi, gugana laguntza eske datozen herritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko irrikaz, normalean eskura zeuzkaten ate guztiak jo eta gero etortzen baitira gugana, erantzun zuzen bat topatzeko esperantza ere galdua dutenean. Alde horretatik, itsu-itsuan sinesten dugu Sindikoak eman duen eta gaur egun ematen duen zerbitzuaren maila oso altua dela. Gure jakinduria eta esperientzia, bai eta gure eragiteko ahalmena ere, arazoan banan-banako irtenbide baten bila zuzen ditzakegu.

Gugana hurbiltzen direnek emantzat jo dezakete erakunde independente eta eskudun batek bere kasuaren kontrol pertsonal eta indibidualizatu bat egingo duela. Gurean, arazoia ez duten herritarrek ere, gutxienez azalpen zorrotz eta hurbileko bat lortuko dute, beren egoeraren esplikazio ulergarri bat bederen. Harrigarria da jendea zeinen ase joaten den gure zerbitzutik beren eskaera ezetsita ikusi arren, besterik gabe norbaitek zergatien berri egoki eta ulergarria eman dielako.

Halaber, lerro hauek aprobeixatu nahi genituzke Udaleko zerbitzuei eskerrak emateko, Sindikoaren bulegoko lantalde berriari egin dioten harreragatik. Udaleko erabaki ahalmena duten organoekin harreman gertua, baita adeitsua ere izatea ezinbestekoa da gure erakundearen funtzionamendua ahalik eta eraginkorrena izan dadin, ahalik eta arinena. Nire izendapenean esan nuen, nire xede nagusia ez da inkisidore edo ikuskatzaile lana egitea, nahiz eta horri ere ez diodan itzuri egingo beharrezkoa denean. Batez ere, helburua arazoei irtenbideak ematea da, eta herritarren eskubideak defendatzea.

Orain aurkezten dizuedan oroit-idazkia horren adierazle da. 2012ko azken 9 hilabetetan zehar, Sindikoaren bulegoak 239

espedienteren gainean jardun du. Horietatik %85 itxi ziren, erakundeak hiru hilabeteko geldialdia izan zuen arren, Javier Otaola joan eta ni izendatu ninduten arte. Denboraldi horretan zehar, Sindikoak 103 gomendio eman zituen (horietatik 71 zabor-gaintasari buruzkoak), eta horietatik %10 bakarrik izan ziren erabat eta esanbidez ezetsiak, %77, berriz, erabat edo partzialki onetsiak izan ziren. Aipagarria da emakumeak direla gure bulegoetara hurbiltzen diren gehienak (%55), gizonezkoekin alderatuta (%42). Horrek aditzera eman lezake emakumeek gai publikoetan esku hartzeko duten joera gorantz doala, edota beren eskubideen defentsan eginahal handiagoa jartzen dutela, garaiotan hain beharrezkoa den zerbait, inondik inora.

2012ko gai nagusiei dagokienez, ohikoenak direnak alde batera utziz (zaratak, lizentziaren gabeko jarduerak, isunak, bide publikoetan erortzeak, era guztietako tributuak, etc.), badira beste zenbait gai oihartzun apartekoa jaso dutenak, hala nola etxebizitza hutsei ezarri zitzaie zabor-gaintasa zela eta jaso genuen erreklamazio andana, Udal Plusbalioaren Zergak enbargo edo kaleratze kasuetan eragin ditzakeen injustiziak, edo udal-erroldan ofizioz baja emateko martxan jarritako prozesuak eragin ditzakeen arazoak.

Gai hauek eta beste asko ikusita, otutzen zaigu, gaur egun bizi dugunaren tankerako salbuespenezko garaietan salbuespenezko irtenbideak behar direla, ideia berriak, soluzio ausartak, irudikorrak eta kritikoak. Baina, aldi berean ohartarazten gaituzte zenbateraino kalte dezaketen erakundeen sinesgarritasuna, eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza, behar bezala haztatu gabeko neurriek. Oreka zaila da, badakit, baina horixe da gu guztion jokozelaia. Herritarrek espero dute administrazioek erantzunak ematea,

baina batez ere espero dute, gaur inoiz baino areago, ematen diren erantzunak taxuzkoak izatea.

2. GASTEIZKO SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN JARDUERAREN LABURPENA

2.1. Txosten bereziak

Oroitidazkiak hartzen duen denbora tartean, 2012ko martxotik 2012ko abendura bitartean, Gasteizko herritarrentzat aparteko munta duten zenbait txosten egin dira. Eragindako udal zerbitzuen funtzionamendua hobetze aldera egin dira, hain zuzen ere, txosten horiek.

Garrantzi berezia duten gaiak jorratzen dira txosten berezi horietan, gasteiztarren artean interes handia piztu duten zenbait kontu, eta hainbat proposamen egiten zaizkio bertan Udalari, beraren zerbitzuak hobetzen laguntzera bideratutako proposamenak, esan bezala:

- 2.1.1 Haurdunentzat erreserbatutako aparkalekuei buruzko txostena.
- 2.1.2 Apurketa-gasari buruzko txostena.
- 2.1.3 Udaltzaingoaren ponentziari buruzko txostena.
- 2.1.4. Bizitegi-eremu pribatuetako barbakoei buruzko txostena.

2.1.1 Haurdunentzat erreserbatutako aparkalekuei buruzko txostena (erreg. zk.: 54/12 OFIZIOA)

1.- Arazoaren aurkezpena

Eginaren Eginez elkarteak kexa bat azaldu digu, Gasteizen 2012ko apirilaren 1etik aurrera abian jarri nahi den esperientzia pilotua dela eta, horren bidez 12 aparkaleku publiko ezinduek eta haurdun dauden emakumeek partekatuko baitituzte.

Eginaren Eginezek zehazten du leku horiek erreserbatzea ez dela "funtsik gabeko zerbait, ez eta nahierarakoa", Arabako Foru Aldundiak tramitatzen duen Mugikortasun Baremoan 7 puntu eduki behar baita nahitaez hori lortzeko, eta "herritarren ehuneko handi batek 4, 5 eta 6 puntu ditu".

Proposamenaren arabera, leku horietan aparkatzeko baimena tramitzeko eta txartela lortzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte haurdunek: nortasun agiria eta gida-baimena, haurdunaldi liburuxka eta Gasteizen erroldatuta daudela egiaztatzeko agiria.

Aldi baterako txartela izango da, haurduna erditzea aurreikusita dagoen egunaz geroztik hilabetera arte iraungo baitu. Udalaren iritziz, ekimen horri esker Gasteiz herrialde aurreratuenekin parekatuko da familia eskubideak babesteari dagokionez.

Eginaren Eginez ez dago haurdunentzako lekuak erreserbatzearen kontra, baina, haien ustez, aparkalekuak partekatu behar izateak murriztu egiten du ezinduentzat erabilgarri dauden lekuen kopurua, eta pertsona horiek berez zailtasun handiak dituzte hirian mugitzeko. Areago, leku gehiago beharko lituzkete.

Formula horrekin dauden aparkalekuak hobeto baliatuko direlako ideia, gainera, zalantzazkoa da, berez leku gutxi dagoelako. Bidezkoagoa litzateke horretarako leku gehiago sortzea, eta ezinduek eta haurdunek bakoitzak bere aparkalekuak izatea.

Eginaren Eginezek ESKATZEN DU:

1.- Neurri hori geldiaraztea, eta herritarren parte-hartzerako guneetan aurretik eztabaidatzea.

2.- Eskubide horretaz baliatu ahal izateko denek araudia bete behar izatea, hau da, foru aldundiek egindako MUGIKORTASUN BAREMOA.

3.- MUGIKORTASUN BAREMOA mugikortasuna aldi baterako mugatua duen edozein pertsonari aplikatu ahal izatea, ez bakarrik haurdunei, esaterako, ebakuntza izan duten pertsonen, errehabilitazioa egiten ari direnen, lesionatuen, gizenei eta abarri, baldin eta baremoan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

4.- Xafla berriak egiteari uztea, seinaleak oso garestiak baitira – krisia eta murrizketak kontuan izanik–; bada nazioarteko logotipo bat mugikortasun mugatuko pertsona guztiak –hau da, MUGIKORTASUN BAREMOA dutenak– barne hartzen dituen (haurdunak barne, baldin eta ibiltzeko zailtasunik badute).

2.- Arazoaren azterketa.

Ezinduen eta mugikortasun mugatua duten pertsonen irisgarritasuna sustatzeko neurrien legezkotasuna.

Aparkalekuak erreserbatzea.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua espainiar guztiak legearen aurrean berdinak direla dio, eta **49. artikulua**, berriz, botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politikak garatu beharra dutela ezindu fisikoentzat, zentzumen-ezinduentzat eta ezindu psikikoentzat.

Ezinduen gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 60. artikuluan, mugitzeko arazo larriak dituzten ezinduen automobilak errazago aparkatzeko udalek zein neurri hartu behar duten aipatzen da.

Abenduaren 19ko 19/2001 Legeak –**Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua** onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen du– laugarren xedapen gehigarrian xedatzen duenez, udalerriek behar diren neurriak hartu beharko dituzte mugitzeko arazoak dituzten ezinduei aparkatzeko txartelak emateko, eta txartelek ematen dituzten eskubideak gauzatzeko.

Zehaztapen hori bat dator Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua ibilgailuen eta pertsonen trafikoa hiri barruan antolatzeari eta gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapenerako eta gizarteratzeko zerbitzuak eskaintzeari dagokienez udalerriei ematen dien eskumenarekin, beti ere, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeriek ezarritakoari jarraituz.

Alor horretan erreferentziatzeko testua da **Europako Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an emandako**

Gomendioa (98/376/CE), ezinduentzako aparkatzeko txartela sortzeari buruzkoa, zeina 1998ko ekainaren 12ko Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (L seriea) argitaratu baitzen.

Besteak beste, alderdi hauek aipatzen ditu Gomendioak:

- Europar Batasuneko estatu kideek herrialde ezberdinetako ezinduentzako aparkatzeko txartelak onartu behar dituzte, eta horretarako batasun osorako eredu uniforme egingo da, txartelak ematen dizkien erraztasunak lurralde komunitario osoan erabiltzerik izan dezaten pertsona horiek, dauden herrialdean indarrean dauden arau nazionaleri jarraituz.
- Ezintasunen bat duen edonork neurri osagarri zehatzak baliatzeko aukera izan beharko luke errazago laneratu eta gizarteratzeko.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzat, askotan, garraio publikoaz besteko garraiobideren bat erabiltzea da modu bakarra autonomiaz mugitzeko, laneratu eta gizarteratzeari begira.
- Egoera jakin batzuetan, eta errepideko segurtasuna errespetatuz, ezinduentzako aparkatzeko txartela dutenei aukera eman behar zaie joan nahi duten lekutik ez oso urrun aparkatu ahal izateko.

Arrazoi horiek kontuan izanik, estatu kideei gomendatzen zaie 2000ko urtarrilaren 1.era ezinduentzako aparkatzeko txartela sortzeari, Gomendioaren 1. eranskinean emandako ereduari jarraituz, zeina 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera jo behar baitute estatuek baliozkotzat.

Duten ezintasunaren eraginez mugikortasun mugatua duten pertsoneri emango zaie txartela, eta hori lortzeko estatu bakoitzean ezarritakoa bete beharko dute. Edonola ere, administrazio eskudunak Europar Batasuneko estatu kideetan txartela erabiltzeko ezarritako baldintzen laburpena eman beharko dio onuradunari.

Estatu kideek 2000ko urtarrilaren 1.aren aurretik aparkatzeko txartelik eman bazuten, aldi berean erabili ahalko dira biak, berriak bestea guztiz ordeztu arte.

Euskal Autonomia Erkidegoan, xedapen hauek arautzen dute arloa: 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen, eta **256/2000 Dekretua, abenduaren 5koa**, ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartela arautu eta Europako Batasuneko estandarrari egokitzeko dena.

Lege xedapen horien arabera, ezindu izaera aitortu zaien pertsonak lortu ahalko dute aparkatzeko txartela, baldin eta mugitzeko arazo handiak badituzte, eta bi alderdi horiek behar diren agiriak aurkeztuz egiaztatu beharko dira, minusbaliotasun gradua balioesteko eskumena duten erakundeek emanak.

Txartela lortutakoan, titularrak batetik bestera joateko erabiltzen duen edozein ibilgailutan erabili ahalko du, bere jabetzakoa izan ala ez, eta berak gidatu ala ez. Edonola ere, txartelak ematen dituen eskubideez baliatzen denean, ibilgailuko leku ikusgarri batean erakutsi beharko da.

Erreferentziazko legeriak, gainera, erreserba ratio batzuk ezartzen ditu, ibilgailu arinak aparkatzeko lekuetako 1/40 proportzioan gutxienez; bestetik, leku horietaz baliatzeko administrazio eskudunak emandako agiria edo txartela erakutsi beharko dela agintzen du¹.

3.- Ondorioak

Irisgarritasun unibertsalaren printzipioa legez arautzean, haurdunaldia ez da mugikortasun murriztuko egoeratzat jotzen. Hala ere, bidezkoa da haurdunei laguntzeko neurriak hartzea, eta estatuan zein nazioartean bada horren aurrekaririk. Horrenbestez, ez da printzipioen alorreko edo konstituzio araubideko arrazoirik Udalari eragozteko haurdun dauden emakumeei leku erreserbatuetan aparkatzeko nolabaiteko erraztasunak eman dakizkien, mugikortasun mugatuko ezinduekin lekuak partekatuz bada ere, baldin eta pertsona horiei legez aitortutako eskubideak urratzen ez badira, Udalak ezin baitu eskubide horiez nahi duena erabaki. Horrek esan nahi du aparkaleku partekatuak ezin direla zenbatu legeak ezinduentzat gordetzera behartzen duen 1/40 ratioan.

Beraz, baldintza ***sine qua non*** bat dago, mugikortasun mugatua duten ezinduen eskubideei kalterik ez egiteko errespetatu

¹ Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua. Ikus: 3.11. Aparkalekuak.

1.- Eraikuntzarik gabeko bide edo espazioetan kokatutako ibilgailuak aparkatzeko eremu guztietan, 40 plazako edo zatikiko gutxienez plaza bat egongo da etengabe erreserbatuta mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.

10.- Erreserbatutako plazak erabili ahal izateko, erreserbarako eskubidea egiaztatu beharko da administrazio honek edo arlo honetan eskumena duen beste batek emandako dokumentu edo txartel baten bidez.

beharrekoa, alor horretan babes berezi eta lehentasunezkoa baitute, Europar Batasunaren gomendioetatik eratorritakoa, alegia:

Mugikortasun mugatua duten ezinduentzat eskusiboki -europar irisgarritasun txartela edukiz gero- erreserbatutako aparkalekuetan gutxienez 1/40 proportzioa (edo dagokion zatikia) gorde behar da ibilgailu arinentzako erabilgarri dauden leku guztien aldean, banaketa homogenea dutelarik. Leku partekatuek ezingo dira zenbateraino hori betetzen dela egiaztatzeko ondorioetarako.

Udalak kopuru datuak eman beharko ditu egiaztatzeko 12 leku partekatu ezartzeak ez diola kalterik egiten mugikortasun mugatua duten ezinduentzat erreserbatu beharreko proportzioari.

Herritarren parte hartzearen ikuspuntutik esan beharra dago horrelako neurri bat orokortzeko Irisgarritasun Kontseiluan eztabaidatzea komeniko litzatekeela, eta eragindako gizarte taldeek dagoeneko eskatu dute hori.

2.1.2 Apurketa-gasari buruzko txostena (erreg. zk.: 1676/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Fracking EZ plataforma kexu etorri zaigu esanez litekeena dela Gasteizko Udalak jarduera-lizentzia ematea SHESA Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SAK beste enpresa pribatu batzuekin batera aurkeztutako eskaerei.

1982. urtean sortu zenez geroztik, SHESA Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi sozietateak miaketa geologikoan eta geofisikoan jardun du bereziki, euskal-kantabriar arroan hidrokarburo-biltegiak bilatzeko lanean. Miaketa-jarduera hori ikertze-baimenen bidez garatzen da nagusiki. Baimen horiei esker, SHESAK parte hartzen du, Estatuko zein nazioarteko beste hainbat hidrokarburo-konpainiarekin batera, gas- eta/edo petrolio-hobi berriak bilatzeko lanetan².

Fracking EZ plataforma jarduera horren aurka dago, honako arrazoi hauengatik³:

“FRACKING EZ ARABA” PLATAFORMAREN MANIFESTUA

Eusko Jaurlaritzak ingurumen-inpaktuko ikerketa eskatu gabe apurketa hidrauliko edo fracking bidezko gas naturalaren erauzketa baimentzeko erakutsi duen asmoaren ondorioz, teknika honen erabilpenak dituen arriskuez kezkatuta gauden hainbat eragile eta norbanako elkartu gara.

Teknika honen erabilpenaren eraginaren inguruko ziurtasun zientifikorik ez dagoenez, europar legedian jasotzen den Ardura Printzipioa bete dadin eskatzen dugu. Kasu honetan printzipio hau urratzen da aurreko ingurumen-inpaktuko azterketa egon gabe baimena eman delako.

Apurketa hidraulikoak ingurumenarentzat eta giza osasunarentzat arrisku handia ekar dezakeela uste dugu. AEBetan garatutako esperientziaren ondorioz suertatutako zantzuek arbelgasaren erauzketak lurrazpiko eta azaleko uren kutsaduran arrisku nabaria dakarrela iradokitzen dute. Hori dela eta, zantzu hauen

² <http://www.shesa.es/>

³ <http://frackingezaraba.org/eu/>

oinarriak ikertu eta haren arrazoiak eta ondorioak zehaztu arte, hartu daitekeen erabaki arduratsu bakarra teknikaren prebentziozko garapena da.

Bestalde, gasaren erauzketa erregai fosilen bazterketa oinarri duen eredu energetikoaren aldaketan atzerapauso bat dela uste dugu. Inbertsio eta ahaleginek kontsumoaren gutxitzean, eraginkortasun energetikoan eta energia berriztagarrietan oinarritutako eredu energetiko jasangarria izan behar dute helburu. Kutsadura eragiten duten energietan egindako inbertsio orok jasangarritasunean hartutako edozein konpromiso urratzen du.

Zenbait herrialdek, Frantziak eta Herbehereek kasu, hasitako bideari jarraituz, frackingaren erabilpena bertan behera geratu behar dela uste dugu haren inpaktuei buruzko ikerketa eta ezaguera gehiago egon arte.

Hori dela eta, behean sinatzen dugunok gasa lortzeko gure lurraldean laster abian jarriko den erauzketa hidraulikoaren inguruko kezka azaltzen dugu, erauzketa hau teknika ikertzeko egiten bada ere. Emanda dauden baimenak bertan behera utzi eta bideratuta dauden eskaerak ez tramitatzea eskatzen dugu, ingurumenaren eta giza osasunaren gaineko kalte itzulezinik izango ez direla bermatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 13a.

2.- Kasuaren argudioak: tesi kontrajarriak

Gasteizen horrelako erauzketa-jarduera baimentzearen aurka daudenek honako arrazoibide nagusi hauek ematen dituzte:

(Fracking EZ) "Apurketa bidezko erauzketa-sistemaren arabera —fracking— harri ama (arbelak eta eskistoak) apurtu egiten dira harrietan harrapatutako gasa zulaketa mistoko teknikaren bitartez erauzteko: lehenik eta behin 5000 metroraino zulatzen da bertikalean, eta jarraian 2-5 kilometro horizontalean. Momentu horretan ura injektatzen da presio handiz, harearekin (% 98) eta hainbat gehigarri kimikorekin (% 2) nahasita.

Horrela harria apurtu egiten da, eta gasa aske geratzen da eta lurzorura igotzen da putzuaren bidez. Prozesu hori gas ugariko harri-zainaren barrena errepikatzen da. Injektatutako nahasketaren zati bat azalera itzultzen da (% 15etik % 85era).

Miaketa Enara deitutako baimenean egingo da, Arabako zati handi bat hartzen duena, Trebiñuko Konderrria barne. Eusko Jaurlaritzak aurreratu du 185.000 metro kubiko miloi ateratzeko aukera dagoela, merkatuan 30.000 miloi euroko balioa izango luketenak⁴.

Alabaina, apurketa bidezko erauzketak zenbait arazo ere ekar ditzake berekin, honako hauek adibidez:

Lur gaineko eta lurpeko uren kutsadura, akuiferoen gainean eragin zuzena duelarik, Subijanako⁵ akuiferoan esaterako giza kontsumorako ur gezako erreserba estrategikotzat jotzen dena⁶

⁴ <http://frackingezaraba.org/eu/>

⁵ **Subijanako akuiferoa babestuago egon liteke**
Subijanako akuiferoa Gasteizko hiriaren erreserba estrategiko bat da, lehorte-garaiei aurre egiteko funtsezkoa, eta proiektatutako putzuek akuiferoa zeharkatu egingo dute. Hizlariei entzun eta gero, [EJK akuiferoaren ingurumen-babesa handitzeko eskatu du](http://www.nosinmimochila.com/2012/04/10-conclusiones-sobre-las-jornadas-de-fracking-de-vitoria-gasteiz/). Geroago, alderdi politiko horrek zera eskatu zuen, Subijanako akuiferoan eta akuifero kuaternarioan eta inguruetan putzu bat ere ez irekitzeko.
<http://www.nosinmimochila.com/2012/04/10-conclusiones-sobre-las-jornadas-de-fracking-de-vitoria-gasteiz/>

⁶ Green Peace: Europak frackinga zalantzan jartzen du.

(Green Peace). Ildo horretan, ureztatzeko lurpeko uren nekazaritza-erabilera ere bermatu beharko litzateke, frackingak kolokan jar lezakeena Arabako Lautadako nekazaritzaren kaltetan. (UAGA)⁷

Airearen kutsadura.

Gizakien osasunean eraginak⁸ eta istripuak⁹.

Paisaiaren eta lurzoruaaren aldaketak.

Putzuak ixtean, lurzoruaaren kutsadura.

Arrisku sismikoa¹⁰.

Trafiko astunaren eta industria-zarataren igoera.

Eusko Jaurlaritzak honako argudio hauek ematen ditu gas naturala apurketa bidez erauztearen alde:

- (Energiaren Euskal Erakundea). Gas naturala energia-iturri gisa erabiliz gero, atmosferarako karbono-emisioak murriztu egiten dira, eta gainera, petrolio baina askoz ere garbiagoa den hidrokarbuo bat erabiltzen da (kontuan hartzekoa da, halaber, gas natural likidotuak aukera ematen duela industria kimikoetan petrolioaren beste deribatu batzuk ordeztzeko). Epe laburrean petrolioaren mendetasuna guztiz desagerrarazteko ametsa bideraezina da une honetan, eta horregatik iturri berriak are

<http://www.greenpeace.org/espana/es/Blog/europa-cuestiona-el-fracking/blog/40180/>

⁷ UAGA fracking bidezko gas-erauzketaren aurka azaldu da.

http://www.ehne.org/index.php?option=com_content&view=article&id=126%3Auaga-rechaza-la-extraccion-de-gas-mediante-fracking&catid=13%3Aingurumena&Itemid=17&lang=es

⁸ Kaltetutako 24 animalia aztertu ditu taldeak: behiak, ahuntzak, oiloak, zaldiak, oreinak, katuak, karpak, ilamak eta gizakiak, sei estatutan (Colorado, Luisiana, New York, Pennsylvania, Ohio eta Texas).

<http://es.scribd.com/doc/86264717/Impacto-Fractura-Hidraulica-Fracking-en-Animales-Universidad-de-Cornell>

⁹ Matthias Altmann: "Gas ez-konbentzionalaren kostuak murrizteko presioak istripu kopurua handitzen du". Matthias Altmann (Unna, Alemania, 1965) Fisikan eta Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da. Aholkulari seniorra Ludwig Bólkow Systemtechnik GmbH (LBST) energia-arloko aholkularitza-enpresa alemanean, eskarmentu handia du erakundeei aholku emateko lanean, eta Europako Parlamenturako azterlan bat egin zuen, beste zenbait egilerekin batera, gas ez-konbentzionala erauzteak ingurumenari eta osasunari eragiten dion inpaktuari buruzkoa. Txostenak dioenez, Europako zuzentzarauetan zenbait hutsune ageri dira, eta arriskuak murriztu litezke kostuak igoko litzuzkeen teknologia erabiliz. (Cfr. EL PAIS)

¹⁰ "Scientists who have been studying the area say that while the fracking does not create the problem from scratch, it does exacerbate the problem by increasing the damage to an existing faultline."

<http://www.dailymail.co.uk/news/article-2083681/Fracking-cited-official-cause-Ohios-11-earthquakes-year.html>

garrantzitsuagoak dira, petrolioaren erabilera poliki-poliki murriztea ahalbidetzen duten heinean. *Fracking* eta *horizontal drilling* (zulaketa) teknika berriei esker, gas naturalaren erreserbak izugarri handitu dira Estatu Batuetan azken hamar urteetan, eta horri esker herrialde hori inportatzaile izatetik esportatzaile izatera igaro da. Azken bost urteetan, gas naturalaren prezioak behera egin du urtetik urtera, eta une honetan Londresko merkatuaren prezioaren bostena balio du; hortaz, Estatu Batuetan lau aldiz gutxiago ordaintzen dute energia mota hori erosteko Espainian ordaintzen duguna baino. Asian, lehengai hori are garestiagoa da, ia 7 aldiz garestiagoa, zehazkiago¹¹. Konparazio-abantaila horri esker, Ipar Amerikan manufakturen eta industriaren booma gertatzen ari da, gas merke hori sortzen den eremuetatik (Uttica, Marcellus Shale, Texasen) gertu. Oso energia kontsumo handia duten industriak, pneumatikoen enpresak adibidez, ikaragarri lehiakorrak dira merketasun horren ondorioz. Michelinek iragarri du Estatu Batuetan beste fabrika bat irekiko duela abantaila lehiakor horren ondorioz, hain zuzen, eta beste pneumatiko-konpainia batzuek¹² antzeko adierazpenak egin dituzte.

Frackingaren teknologia Estatu Batuetan garatu da, eta oraingoz Ipar Amerikako enpresek baino ez dute menderatzen. Gas-sektorean enplegua % 70 gora hazi da azken bost urteetan, eta aurreikuspenen arabera % 10 haziko da, gutxi gorabehera, hamarkada honetan. European oraindik inor ez da teknologia hori erabiltzen ari, Polonian izan ezik, bertan miaketekin hasi baitira, eta zenbait herrialdetan debekatu ere egin dute, Frantzian adibidez, energia-arloan burujabe izaki energia nuklearra esportatzen baitu, eta Errusian, non gas konbentzionaleko erreserba handiak dituzten (Gobernu Irekia).

¹¹ ¹¹ <http://www.irekia.euskadi.net/eu/proposals/162>

¹² <http://rockproducts.com/index.php/news-late/11309-michelin-to-build-new-us-tire-plant.html>

Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila frackingaren alde dago, oso energia-baliabide baliagarria erauzteko aukera emango duelako, horrek zuzenean zein zeharka eragingo dituen ondorioak lurraldearentzat oso mesedegarri izango direlarik.

Erauzketa-industria hori ezartzeak aukera emango du zuzenean erauzketa-lanetarako enplegua sortzeko, eta, hori ez ezik, profesionalak teknika horretan trebatzeko, eta kontuan hartzekoa da sektore horrek langile kualifikatu asko beharko dituela Europan eta mundu osoan (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila)¹³.

Energiaren Euskal Erakundearen (**Euskadiko Energia Estrategia 2020**)¹⁴ ustetan, erauzketa-jarduerek izan ditzaketen arriskuak, behar adinako zuhurtziaz ibiliz gero, onargarriak dira, eta gainera itzulgarriak dira edo neurri zuzentzaileak onartzen dituzte, eta ez dira beste industria-jarduera batenak baino handiagoak. Giza osasunarentzat kaltegarri izan daiteke, bai, baina hori hipotetikoa da, edo halabeharrezkoa, beste edozein jarduera industrial, mekanizatu edo laborean gerta daitekeenaren parekoa; arrisku sismikoak oso txikiak dira, lurpeko lur-mugimendu ñimiñoak bakarrik, sismografoek bakarrik atzemateko modukoak, areago Euskadi eremu sismologikoki

¹³ #2821 Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak idatzi zuen: 2011(e)ko Azaroak 15, 09:38

1947. urtean hasi ziren apurketa hidraulikoaren teknika erabiltzen, eta orduz geroztik milioi bat estimulazio baino gehiago egin dira hidrokarburoak miatzeko eta ustiatzeko putzuetan.

Shale gas motako hobien apurketa hidraulikoa joan den mendeko laurogeiko hamarkadan hasi zen, eta Texasen, Estatu Batuetan, egin da horrelako lanen kopururik handiena, 14.000 gutxi gorabehera, Administrazio zentralaren kontrolpean (Texas Rail Road Commission).

Eskumeneke hogeita hemezortzi herrialde edo estatutan planteatu da horrelako lanen garapena. Horietatik batean, Frantzia alegia, debekatu egin dituzte, 6 herrialdetan luzamenduen edo alde zuzeneko azterketen eraginpean daude, eta gainerako guztietan baimenduta daude.

Arabako Lurralde Historikoaren eskualde baten azpiko gas-hobian apurketa hidraulikoa erabiltzetik eratorritako arriskuak behar bezala ebaluatzeko eta energia-baliabide horren erauzketak berekin ekar ditzakeen onurak zehazteko, inplikaturako Administrazioek kontrol zorrotza ezarri behar dute miaketarako egin beharreko zundaketa-lanen gainean, nola lanen garapenean hala mota guztietako ondorioen kudeaketan, horixe baita ekimen hori aurrera eramateko zentzuzko bide bakarra.

¹⁴ Euskadiko Energia Estrategia 2020.
<http://www.eve.es/web/Eve/files/4e/4ea1f0d7-d7a7-4d1b-b2bf-85ee34fcb4ca.pdf>

egonkorra dela aintzat hartuta; erauzketa-jardueran erabiltzen diren gehigarriak elikagaien industrian erabiltzen direnen parekoak dira, eta ez dute kutsatzen Arabako Lautadan erabilitako pestizida eta ongarrien nitritoek baino gehiago. Garai batean arrisku horiek hartu ez balira, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan gaur egun dauden edo egon diren meatze eta industrietako bat ere ez zatekeen martxan jarriko, eta meatze eta industria horietan oinarritu da Euskadiren garapen ekonomikoa. Paisaia-inpaktua da inpaktu nabari eta saihestezin bakarra, eta hori ere aldi baterakoa eta itzulgarria da. Zer nahiago dugun aztertu beharko dugu, edo hazkunde ekonomikoa, industria eta enplegua, edozein erauzketa-jarduerak dauzkan arazoekin, edo bestela landa-paisaia, ekonomia geratzea, eta, hori bai, arazorik ez.

Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak uste du gas naturalak aukera emango duela, epe ertainean eta luzean, lurraldearen posizio estrategikoa indartzeko, eta energia merkeago batek sortutako ekonomiak industria berriak erakartzeko.

Arabian energia merke ugari kontsumitzen duten enpresetako askorentzat (Michelín, Mercedes, Tubacex, Tubos Reunidos, Guardian, Vidrala, eta, oro har, labe garaiak dituzten guztiak) oso onuragarria izango da, eta enpresa horiek etorkizuna bermatua izango dute, hurrengo hamarkadetan lehiatzen jarraitzeko aukera izango dutelako merkatuan, areago kontuan hartuta Espainiako merkatuak Europako energia garestiena duela une honetan, oso industria urria duten Ziprek, Estoniak eta Maltak bakarrik gainditzen dutelarik. Euskadiko industriaren etorkizuna orain hartuko diren erabakien mendean egongo da.

Nolanahi ere Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak (Irekia) agi utzi nahi du planteatutako proposamenak "miaketa"-mailakoak

direla: *"hasteko, gasa erauzteko aukera aztertu behar du. Eta teknikoki, ekonomikoki eta ingurumen-arloan bideragarria bada bakarrik pasatuko da ustiatze-fasera.*

Sarean hainbat jardunbide egoki eta desegoki aurki ditzakegu. Texasen ere aurki ditzakegu zenbait adibide, eta lehendakariak bertan iragarri zuen proiektua lehen aldiz. Texasen bakarrik 15.000 harri-zulaketa egin dira apurketa hidraulikoaren bitartez gasa erauzteko, eta ez da arazo bat ere gertatu akuiferoen kutsadurari dagokionez.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzari beste inori baino gehiago interesatzen zaio ingurumenari inolako kalterik ez eragitea¹⁵ eta aurrerantzean ere xede horrekin jarraituko du lanean.

Eta, hasiera-hasieratik egin duenez, proiektua ahalik eta gardentasun handienarekin azaltzen jarraituko du, herritarrek behar duten informazio guztia eskura eduki dezaten." (Vid. Irekia)¹⁶

3.- Azterketa juridikoa

Orain arte eskatutako lizentziak miaketa-lizentziak dira. Bi lizentzia "ustiapen"-lizentzia izendatu dira, baina "miaketa"-lizentzia gisa aztertu behar dira, bi putzuk beren kabuz ez dutelako ustiatzeko baliorik. Eskatutako lizentzia kopurua mugatua da, eta lizentzia horiek ekonomia- eta energia-bideragarritasuna balioesteko erabili

¹⁵ Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zuzendari Germán Alonso jaunak zera adierazi du, Eusko Jaurlaritza "ahalik eta soluziorik egokiena" bilatzen ahaleginduko dela Gasteizko Mendiak parke natural izendatzeko. Nolanahi ere, zera ohartarazi du, oraindik ez dutela txosten botanikoa jaso, beharrezko dokumentazioa lantzeko "giltzarria".

<http://www.elcorreo.com/alava/20120411/local/gobierno-vasco-reitera-compromiso-201204111625.html>

¹⁶ <http://www.irekia.euskadi.net/eu/proposals/162>

behar dira bakarrik, baita horrelako jarduerak ingurumenean eragin dezaketen inpaktua balioesteko ere.

Azpimarratzekoa da erauzketa mota horrek hainbat putzu — ehunka— ustiatu beharra dakarrela berekin, lurpe osoan barrena kantitate txikitan barreiatutako gasa atzeman behar delako, eta horrek, jakina, inpaktua areagotu egiten du. Hamabi bat putzuek oso inpaktu txikia eragingo lukete, baina 100 edo 200 putzuek, aldi berean lanean, Arabako paisaia eta Gasteizko inguruak industria-paisaia bihurtuko lukete.

SHESAK eskatutako lizentziek erauzketa-putzuen obra zibilera mugatzeko asmoa zuten, lurpeko jarduera alde batera utzita, lurpeko jarduera hori ministerio-lizentziek babestua zegoelako ustetan. Udalak, aldiz, bere irizpideari eutsi dio, eta, horren arabera, obra zibila eta erauzketa-jarduera banaezinak dira.

Eskatutako lizentziak "miaketa"-lizentziatzat hartu behar dira, eta horien inpaktua horren arabera ebaluatu behar da, putzu kopuru mugatu bati eragin behar dioten eta putzu berrietarako administrazio-aurrekaririk eskatzen edo ezartzen ez duten heinean.

2012ko maiatzaren 27an, ostirala, Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak honako mozio hau onartu zuen:

Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak honako konpromiso hau hartu du: behin betiko jarrera bat hartzea gure udalerrian apurketa hidraulikoari buruzko proiektuari dagokionez, behin proiektu horren segurtasuna eta ingurumen-iraunkortasuna bermatuko duten txosten tekniko guztiak eskura eduki eta gero.

4.- Sindikoak ateratako ondorioak

Fracking EZ plataformak planteatutako gaia zenbait mailatatik aztertu eta aintzat har daiteke. Funtsean gai politikoa da, hitzaren zentzurik onenean, hau da, zenbait aukeraren artean bat hartu behar da, eta, aldez aurretik, aukera guztiak dira baliagarri eta legezkoak, baina oso ondorio desberdinak dituztenez, eta aukera ideologiko kontrajarrietatik, lehentasun antagonikoetatik abiatuta ebatzi behar direnez, sindiko honek, jakina, ez du horiei buruz iritziren bat emateko inolako ahalmenik. Gure lana da borondate politiko hori osatzeko prozesua ahalik eta modurik zuzenean gara dadila bermatzea, gardentasunaren, parte-hartzearen, adierazpen-askatasunaren eta, azken batean, legezkoatasunaren printzipioak betez, eta azkenean hartuko den erabaki politikoa errespetatuz. Testuinguru horretan, funtsezkoa da herritarren egiazko ingurumen-informazioa jasotzeko eskubidea eta Administrazioak informazio hori eskaintzeko betebeharra bermatzea.

Udal-eremuan, ordea, jarduera-lizentzien erregimena arautua dago, eta horrek esan nahi du Udalak ez duela diskrezionalitate politikorik eskaera egokitasun- edo komenentzia-irizpideen arabera balioesteko, eta hortaz eskaera legeei zorrotz jarraiki ebatzi behar duela. Udalak "zuhurtziazko edo kautelazko" printzipioa ponderatu beharko du, eta hori izango da balioesteko *nolabaiteko* aukera emango duen faktore bakarra

2000ko abenduan Nizan Europako Kontseiluak emandako ebazpenaren bitartez, Europar Batasuneko estatu kideek zuhurtziazko printzipioa zehaztu zuten. Dauden datuen gainean burututako ebaluazio kontrajarri, independente eta gardenak, diziplina bat baino gehiago kontuan hartzen duenak, hain zuzen, arrisku-maila

ziurtasunez ondorioztatzea ahalbidetzen ez badu, arriskua kudeatzeko neurriak hartzeko estimazio politikoa hartuko da kontuan, horrek zehaztuko baitu zein den bilatzen den babes maila.

Aukeratzea posible bada, neurri horiek bideratu behar dituzte merkataritza-trukeak gutxien murrizten dituzten soluzioak; gainera, proportzionaltasun-printzipioa errespetatu behar dute epe laburrerako eta luzerako arriskuak kontuan hartuta; eta, azkenik, sarritan berraztertu behar dira, jakintza zientifikoaren bilakaeraren arabera. Azkenik, Europako Kontseiluak azpimarratu zuen gizarte zibilari kontsultatu eta informatzearen garrantzia.

Ingurumen-arloan, zuhurtziazko printzipioa eta prebentzio orokorreko printzipioa desberdinak dira. Lehenaren arabera, neurri jakin batzuk hartu behar dira ingurumen-kalte larriren bat izateko aukera murrizteko, arrisku hori gertatzeko aukera zehatzen berri izan ez arren; prebentziozko printzipioak, aldiz, neurriak hartzera behartzen du, gerta daitekeen ingurumen-kaltearen berri badagoelako.

"Zuhurtziazko" edo "kautelazko" printzipioari jarraiki, babes-neurri egokiak hartu behar dira ingurumena benetan hondatu baino lehen, osasunaren edo ingurumenaren kontrako mehatxuei eta hondamenaren kausa eta efektuei buruzko ziurgabetasun zientifikoari aurre eginez.

Miaketa-putzu gutxi batzuk ebaluatzea ez da nahikoa; izan ere, azkenean ustiapen osoak zenbaterainoko inpaktua duen jakin nahi badugu, putzu baten ondorioak batu beharko genituzke, eta jarraian biderkatu abian jarritako ustiapen batek aldi berean eta/edo elkarren segidan beharko lituzkeen putzu kopuruaz.

Funtsezko gaiari dagokionez, eta edozein udal-erabakiren proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, bereizi beharko dira "zenbait" "miaketa"-putzu ezartzeak eduki dezakeen garrantzia eta inpaktua eta ehunka putzu ustiatzeak eduki dezakeena, eta azken hori kontu handiz balioetsi beharko da osotasunaren arrisku eta eragozpenen batuketa kontuan hartuz, eta kontuan hartuz, halaber, Ingurumena Babesteari buruzko Euskal Legearen 5. artikuluan ezarritako ingurumen-politikako printzipioak: "*politika hori baliabideen aprobetxamendu jasangarrian, kautelazko eta prebentziosko ekintzetan, kalteak konpontzean* (sorburuan konpontzea lehenetsiko da) *eta poluitzen duenak ordaindu behar duela eta kaltetzen duenak erantzun behar duela dioen printzipioan* oinarritua izango da, ingurugiro-babesa sektoreko politika guztiak definitu eta exekutatzeko integratuko delarik".

Orain artean Gasteizko Udalak ez du inolako jardueralizentziarik eman, eta ingurumen-inpaktuko ikerketa baztertzeko erabakia errekurritu du, eta lizentzia eman aurretik ebaluazio hori egin beharra dagoela EXIJITU.

Gure ustez, Gasteizko Udalaren jarduna akatsik gabea eta garantista izan da orain artean, behin betiko erabakia eman aurretik beharrezko *txosten teknikoak* eduki nahi dituelako eskura, *proiektu horren segurtasuna* eta *ingurumen-iraunkortasuna* bermatzeko.

2.1.3 Udaltzaingoaren ponentziari buruzko txostena

1.- Polizia eta hiria

Hiriko bizitzak gune mugatu bat modu intentsiboan erabiltzea dakar berekin, hirian milaka pertsona bizi eta elkarbizitzen direlako,

lanean, atsedenean, salerosketan edota alde batetik bestera ibilian, oinez, bizikletaz edo autoz, jarduera gehienetan beste hainbat auzotar eta herrikideekin harremanetan sartzen direlarik. Poliziaren lanak funtsezko zeregina betetzen du hirigunearen geometriak eta legeek zehaztutako harreman-esparru horretan. "Hiria" hitz grekoa poliziaren erro etimologikoa da, eta hori ez da kasualitatea.

Udaltzaingoak funtsezko eginkizunak betetzen ditu hainbat alor garrantzitsutan, hala nola herritarren segurtasunean, giza eskubideen babesean, zigortzeko edo kontrolatzeko araubidean eta trafiko-kudeaketan, eta horregatik ez da harritzekoa Sindikoak sarritan esku hartu izana Udaltzaingoari laguntzen, bitartekaritza-lana egiten edo Udaltzaingoarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten jardunbide jakin batzuk gomendatzen.

Honekin batera doazen dokumentuetan, Udaltzaingoak hainbat arlotan egindako zenbait esku-hartze bildu ditugu: Bilurrak erabiltzeko moduari buruzko gomendioa; agenteen identifikazioari buruzko gogorazpenak; trafiko-arloko arau-hausteei buruzko salaketak; poliziari laguntza eskatzea bizitegi-eraikinetan gaueko zaratak kontrolatzeko edo prostituzio-etxeei buruzko ikerketa egiteko; bizikleta-lapurretekin edo lapurtutako edo galdutako bizikleten biltegia kudeatzearekin zerikusia duten segurtasun-plan espezifikoak eta abar.

Udaltzaingoari laguntzeko aukera ere izan dugu. Prestakuntzarako iradokitako gaiei buruzko aurkezpenaren kopia ekarri dugu, power point formatuan.

2.- Legezko eta deontologiako erreferentziak

Poliziaren lana oso garrantzitsua da, eta estu lotuta dago zenbait ondasun juridiko konstituzionalekin, hala nola askatasunarekin, pertsonen askatasunarekin, giza duintasunarekin,

segurtasun juridikoarekin, jabetzarako edo osotasun fisikorako zuzenbidearekin, trafikoaren kontrola eta kudeaketarekin eta polizia judizialarekin; horregatik, poliziaren jarduera honako arau hauen eraginpean dago:

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 30. artikulua

1. Euskal Herriko Poliziako kideen jokabidea hobespen politikorik eta alderdikierarik gabekoa izango da guztiz, eta gehiegikeriazko eta bidegabeko edozein ekintza galaraziko dute, berdintasun eta bereizkeriarik ezarekiko sortarauei eta Konstituzioan eta Giza Eskubideei buruzko Mundu-mailako Adierazpenean aipatzen diren beste guztiei uneoro begirune izanen.

2. Zintzo eta duintasunez jokatu beharko dute beti, eta beren zereginei zor zaien uste ona eta itzala galtzea nahiz zerbitzuaren edo Administrazioaren izen ona edo eraginkortasuna arriskuan jartzea ekar dezaketen jokabide orori itzuri egin beharko diote. Ustelkeria-ekintza guztietatik bereziki jare izan eta horrelakoen aurka erabaki sendoz jokatu behar dute.

3. Herritarrekiko harremanetan, tratu zuzena eta arretatsua eskainiko dute, esku-hartzearen arrazoiei eta xedeari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eta zabalena eskainita.

Baldintza profesionala ziurtatuko dute, beharrezkoa den guztietan eta jardueretan harremana dutenekiko pertsonak eskatzen dutenean.

Hiriko Giza Eskubideen Europako Gutuna, Saint Denis 2000

XXVI. artikulua – HURBILEKO POLIZIA

Gutun hau sinatu duten hiriek **prestakuntza** handiko polizien garapena sustatzen dute, agenteei **"segurtasuneko eta bizikidetzako agenteak"** izateko eginkizunak esleituta.

Agente horiek delituen aurkako prebentzio-politikak aplikatzen dituzte, eta hezkuntza zibikoan oinarritutako polizia osatzen duten heinean jarduten dute.

XXVII - PREBENTZIO MEKANISMOAK

1. Gutuna sinatu duten hiriek prebentzio-mekanismoak ezartzen dituzte beren lurraldean:

- gizarteko edo auzoko bitartekariak, eremu ahulenetan bereziki.*
- Udal ombudsman edo herritarren defendatzailea, erakunde independente eta inpartzial gisa.*

2. Gutun honetan jasotako eskubideak gauzatzea errazteko eta eskubideen egoera herritarren kontrolaren eraginpean jartzeko, gutuna sinatu duen hiri bakoitzeko zenbait herritarrek alerta-batzorde bat osatzen dute, Gutunaren aplikazioa ebaluatzeaz arduratzeko. (salbanguardako gutuna)

Europako Kontseilua Polizia-ekintza gizarte demokratiko batean.¹⁷

b. What guarantees does your police service have against abuses of authority such as arbitrary or excessive use of power or force?

- b. • Instruction, training, and supervision in place
- Internal and external investigations

¹⁷ [http://www.oijj.org/doc/doc/2004/documental_422_\(pdf\)](http://www.oijj.org/doc/doc/2004/documental_422_(pdf))

- Judicial review in place
- Recording of police use of force
- Automatic and independent review in cases of (deadly) force
- Preventive measures in place to combat ill-treatment and torture

1974ko 690. EBAZPENA, EUROPAKO KONTSEILUAREN PARLAMENTU BATZARRARENA, POLIZIARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Batzarrak honako hauek hartu ditu kontuan:

1. Giza eskubideen Europako Konbentzioak eta estatuko eta nazioarteko beste zenbait tresnak bermatzen dituzte giza eskubideak eta funtsezko askatasunak, eta horiek guztiz gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da bakean bizi den gizarte bat edukitzea, ordenan eta segurtasun publikoan oinarritua.

2. Ildo horretan, Poliziak funtsezko zeregina betetzen du Estatu kide guztietan, eta Poliziari sarri deitzen diote agenteentzat arriskutsuak diren baldintzetan esku hartzeko. Hori gutxi balitz, agenteen eginkizunak are zailagoak izaten dira, bete beharreko arauak ez direlako oraindik behar adinako zehaztasunarekin definitu.

.../...

4. Giza eskubideak babesteko Europako sistema indartu egingo da baldin eta Poliziak **arau deontologiko** jakin batzuk eskura baditu, giza eskubideak eta funtsezko askatasunak aintzat hartuko dituztenak;

5. Poliziaren funtzionarioek beren zerbitzupeko komunitatearen laguntza morala eta fisikoa eduki behar dute;

6. Poliziaren funtzionarioek eskubideen Estatutu bat eduki behar dute, Estatuko funtzionarioek daukatenaren parekoa;

7. Komenigarria litzateke zuzentarau jakin batzuk egitea, Poliziaren funtzionarioen eskura hainbat jarraibide jartzeko, gerra kasuetan edo bestelako salbuespen-egoeretan, baita atzerriko potentzia batek lurraldea indarrez hartzen badu ere, nola jokatu behar duten jakin dezaten.

4.- Udaltzaingoari buruzko ponentziaren lanak

Udaltzaingoak Gasteizko Udalean nola parte hartu behar duen zehazteko eredu berria definitzeko oinarrizko dokumentuaren arabera gauzatu dira ponentzia horren lanak. Dokumentu horrek honela dio:

Udaltzaingoa zerbitzu publikoa da, Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Sailaren barrukoa. Profesional gaituek osatzen dute, zerbitzu emateko gogoia dutenek. Haien helburua da eskubide eta askatasunen erabilera askea babestea eta Gasteizko pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzea, betiere bizikidetzak baketsua zainduz, beren eskumenen barruan eta legearekin bat etorriz.

Parte hartzeko arloak

Funtsean, parte hartzeko bi arlo daudela esan dezakegu.

Batetik, **Udaltzaingoaren eta herritarren arteko harremanen estiloa,**

eta, bestetik,

Polizia Zerbitzuaren jardun-eremuak.

Lehenak polizia herritarrekin harremanetan jartzeko modua ezartzen du; bigarrenak, berriz, polizaren esku-hartzearen guneak mugatzen ditu, herritarren premien arabera.

Harremanetan jartzeko estiloari dagokionez, herritarrek ere aukera dute adierazteko udaltzainek esku hartzerakoan behar bezala jokatzeko nola jardun behar duten, bidezko ezaugarrien eta prozeduraren berri emanez.

Jarduteko eremuei dagokienez, aipatzekoa da udaltzainek hainbat eremutan parte har dezaketela, besteak beste, honako hauetan:

- Gizarte-ongizatea, abandonu-egoeran dauden pertsonak eta abar.
- Mugikortasuna eta garraioa: irisgarritasuna, aparkatzeak, ikastetxeetako sarrerak eta abar.
- Ingurumena: parke, lorategi eta jolastokien zaintza eta abar.
- Ostalaritza: ordutegiak, terraza eta estalpeak, eta abar.
- Animaliak edukitzea.
- Hiri-ingurunea: altzariak, argiak beste zerbitzu batzuk.
- Zaintza eta patruila auzo eta eremu publikoetan.
- Ekitaldiak. jolas-jardunak, jaialdiak, berbenak, kirol-ekitaldiak eta abar.
- Bizikidetzaren arazoak (meskitak, elkarteak eta abar).
- Herritarrekin koordinatzeko sistema.

Zenbait gaitan aplikatu beharreko legeria zorrotza da, eta ez du sormenerako tokirik uzten; gainera, legeria horiek garatzeko, estatuko eta autonomia-erkidegoko erakundeen mende jardun behar da, ezinbestean. Horregatik, polizia judizialari, trafikoari eta

Udaltzaingoaren Zerbitzuaren barne-antolamenduari dagokion parte-hartzea alde batera utzi behar da.

5.- Ondorioak eta zenbait iradokizun: Adeitasun handiagoa eta informazio gehiago

HARREMANEN estiloan hobetzeko asko dago, eta hori aprobetxatu behar da.

Adeitasun handiagoa

[Polizaren adeitasunari buruzko gure txostenetik hartua]

Ez da arraroa Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen bulegora udaltzainek beren zereginetan begirunerik gabe tratatu dituztela uste duten herritarrak kexatzera etortzea.

Kasu gehienetan kexatzeko arrazoiak ez dira OBJEKTIBATZEN errazak, eta esapide hauen bidez deskribatu ohi dira: "gaizki begiratu zidan", "harropuzkeriaz jokatu zuen", "keinu zakarrak egin zituen", "oihuka hitz egin zidan", "nagusikeriazko jarrera zuen", "haren gorputz adierazpenak eta lengoaiak erasokorrak ziren"... Tartean zeuden udaltzainei gertaerak aipatzean, ordea, haiek ere kexatzen dira herritarrek berekin duten begirune faltaz, gutxiespen-adierazpen eta -keinuak egiten baitizkiete, baita iraindu ere.

Jakina da udaltzainekiko harremana ez dela lasaitasun-egoeretan gertatzen, baizik eta nolabaiteko tentsioa daramala beti inplizituki, ahalmen zigortzaileak, salaketaren gertaerak, isunaren ordainketak edo zigorraren ordainketak eraginda. Batzuetan gainera haien jarduna ibilgailuen trafikoarekin lotuta egoten da –horrek berez dakarren estresarekin– edo gauez –tartean edari alkoholdunen kontsumoa dagoelarik–. Askotan polizien esku hartzeak denbora

kentzen digu, gure eguneroko lanak eteten ditu –horietan ere estresatuta gabiltzalarik– eta horrek ere tentsioa eragiten du.

Herritarrek ez dute beti ongi ulertzen agenteen agintaritza, haien agindu txikiena ere zalantzan jartzen baitute, eta edozergatik argudiatzen baitute, agenteek nekez kontuan har ditzaketen aitzakiak jarritz: “une bat besterik ez da”, “ez dut seinalea ikusi”, “ez da horrenbesterako”, “ez zen nire asmoa”...; edo okerrago dena: “ikusiko duzu”, “ez dakizu norekin ari zaren”... Agenteak kexatu egiten dira, “kalea gero eta zailago” dagoela esanez, eta herritarrak gero eta erasokorragoak omen dira.

Gizakion asmo nagusia bestek begirunea digutela sentitzea da.

Pertsonen diegun begiruneak haien autoestimua handitzen laguntzen du. Pertsona gehienon “nia” hauskorra da, eta maiz euskarrien beharra du. Hori dela eta, agresibitatez jokutzen du begirune faltatzat jotzen duenaren aurrean.

Errespetua eta adeitasuna agintaritzaren agenteen betebeharrak deontologikoak dira eta funtzioaren garapeneko tinkotasunarekin konbinatu behar dira, baina beti ez da erraza izaten.

Arazo mota horrek ez du irtenbide juridiko garbirik, legearekin baino psikologiarekin zerikusirik handiagoa duen harremanetarako gaitasunak sortu eta garatzearen arazo gisa hartu behar da.

Bestalde, adeitasuna, gizarte- eta hiri-bertute gisa, ez dago unerik onenean, gure hezkuntza-sistemak eta moda sozialek lehentasuna eman diete berezkitasunaren, askatasun pertsonalaren eta asertibitatearen balioei euspenaren eta errespetuaren aurrean,

eta horren ondorioz, zintzotasuna zenbaitetan agresibitatearekin eta kontsiderazio faltarekin nahasten da.

Informazio gehiago.

Udaltzaingoak trafikoa kontrolatu eta kudeatu behar du, eta, kontrol horren ildotik, SALATZEKO ETA ZIGORTZEKO ahalmena bete. Hori da, ezbairik gabe, udaltzainek bete beharreko zeregin esker txarrekoenetako eta zailenetako bat. Udaltzaingoak 120.000 salaketa ematen ditu urtean, gutxi gorabehera, eta gehienek trafikoarekin dute zerikusia. 120.000 salaketa horiek ZIGOR EKONOMIKOA dakarte berekin, eta, zenbaitetan, gidabaimena galtzea.

“Poliziaren ekintza gizarte demokratiko batean” azterlanari jarraiki, herritarren konfiantzari eusteak, poliziaren izen onak eta segurtasun juridikoak poliziaren jardunbidea KOMUNIKATZEKO eta EBALUATZEKO mekanismo normalizatuak eskatzen dituzte “indarraren erabilerari” dagokionez, baita, nik erantsiko nuke, SALATZEKO jardueraren erabilerari dagokionez ere.

Ildo horretan, herritarren parte-hartzeak, lurralde-kontseiluen, Sindikoaren eta iradokizun eta erreklamazioen batzordearen bitartez, INFORMAZIOA jaso beharko luke aldian-aldian, behar bezala anonimizatua, udaltzainek “poliziaren indarra erabiliz” esku hartutako eta erregistratutako kasuen inguruan, bakoitza bere azalpènarekin eta justifikazioarekin, herritarrek kasu guztiak ezagutzeko, egiaztatzeko eta partekatzeko aukera izan dezaten.

Halaber, honako hauei buruzko INFORMAZIOA jaso behar du, aldian-aldian:

(1) Kasu zalantzarri edo eztabaidagarrietan (ausarkeriaz gidatzea, trafikoa oztopatzea, agenteen aginduak ez betetzea eta abar) Udaltzaingoak salatutako **Zirkulazio Kodearen** edo

Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen ARAU-HAUSTEEKIN zerikusia duten administrazio-errekurtsoak.

(2) Salatutako herritarrek egindako alegazioak ONARTZEKO EDO EZESTEKO Ogasun Sailak erabilitako IRIZPIDEAK eta erantzundako errekurtsoak

Udaltzaingoak aurre egin behar dien arazoak hobeto ezagutzeko AUKERA EMANGO LUKETE, eta, betiere HERMENEUTIKARI jarraiki, Legea interpretatzean adostasuna lortzeko irizpideak lantzea ahalbidetuko luke. Vg: "segurtasun kolektiboaren aurkako atentatuaren" kontzeptuaren kasua.

2.1.4 Bizitegi-eremu pribatuetako barbakoei buruzko txostena (erreg. zk.: 59/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Komunikabideen bitartez orientazio-eskaera bat iritsi zaigu jabetza pribatuan, urbanizazio partikular baten esparruan, barbakoa eramangarriak ezarri eta/edo erabiltzeko aukerari dagokionez.

2.- Arazoaren azterketa

Ba al dago barbakoa eta etxola bat eraikitzea eremu komunen ondoko horma batean?

Hirigintza-ikuspegitik, igeltserotza-obrak eskatzen dituen barbakoei lizentzien araubide orokorra bete behar dute, obra guztiek bezala. Gainera, jabekide-komunitateak arautzen dituzten estatutuetan jasotako arauak errespetatu behar dituzte.

Horrelako jardueretan urbanizazio-estatutuek diotena egiaztatu behar da betiere, litekeena delako barbakoaren edo etxolaren erabilera edo eraikuntzari dagokionez mugarik izatea segurtasun-, estetika eta bizikidetzaren arazoak direla-eta.

Legearen kontrako eraikinen kasuan, edozein auzotarrek salaketa jar dezake, eta jabeak eraitsi beharko du nahitaez.

Debeka al dezake jabeakideen komunitateak eremu pribatiboetan barbakoa eramangarriak erabiltzea?

Barbakoa eramangarriei dagokienez, aipatzekoa da tratamendua askeagoa eta irekiagoa dela.

2009ko abenduaren 23an Tarragonako Probintzia Auzitegiko 1. Sekzioak emandako Epaian jasota daude gai horri buruzko erreferentziazko irizpideak.

Behealdean kokatutako etxebizitza bateko titularrak barbakoa eramangarria erabiltzen zuen, eta komunitateak zera erabaki zuen, barne-araubideko arau bat onartzea barbakoa eramangarria erabiltzeko debekua ezartzeko.

Auzitegiaren epaiak barbakoaren titularraren demanda babestu zuen, eta komunitateak barne-araubideko erregelamenduan bildutako debekua indargabetu, honako argudio hauek oinarritzat hartuta:

1.- Debekua barne-araubideko arau batean jasota zegoen, eta ez estatutuetan. Alabaina, komunitatearen obra berriko estatutuek bakarrik muga dezakete jabetza-eskubidea eta elementu pribatiboetan egin litekeen edozein jarduera.

2.- Estatutuetan ezarritakoa gainditzen duten erabakietarako, jabeak esanbidezko baimena eman beharko du, baldin eta erabaki horiek haren jabetza erabili eta baliatzeko gaitasunen kaltetan badoaz.

3.- Erreferentziazko Udalean ez zegoen —eta Gasteizko Udalarenean ere ez dago— barbakoa eramangarrien gaia arautzen zuen udal-araudirik, eta horregatik ez dago arrazoirik barbakoa hori egitea debekatzeko, betiere barbakoa behar bezala erabiltzen bada.

4.- Azken batean, zalantzan jarritako debeku-arauak ez dauka lege-funtsik, komunitateak ezin duelako barbakoa bat erabiltzea guztiz galarazi erabilera pribatuko lorategi batean, auzotarrentzat eragozpen-iturri izan litekeelakoan. Izan ere, bestela barne-araubideko erregelamenduaren bitartez onartu beharko lirateke, eta hori zentzugabea litzateke, beste hainbat alorretako elementu pribatiboen inguruko debekuak, eta beraz, musika erreproduzitzeko aparatuen edo telebisten erabilera debekatu beharko litzateke, baita sardinak erretzea edo beste hainbat jarduera ere, baldin eta keak, usainak edo jabetzaren erabilera normaltzat jo daitekeenaren ondorioz bestelako eragozpenak ekar baditzakete.

Ildo beretik, **Madrilgo** Probintzia Auzitegiak alde zuzenetik, zehazkiago **mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko otsailaren hamazazpian** emandako epai batek honako hau dio: "Lorategiz hornitutako patioa edo terraza komuna da, baina apelatzaileek soilik dute hura erabiltzeko aukera. Horregatik, oro har, hasiera batean ezin zaie erabiltzeko eskubidearen esparrua murriztu, baldin eta estatutuetan muga edo jarraibide zehatzak jaso ez badira. Hori oinarritzat hartuta, eta erabakiaren atalei buruzko azterketari hobeto heltzeko, jarraian zerrendatu egingo ditugu: 1).- Lehen atala: "Gaueko ospakizunen ordutegia mugatzea, eta barbakoa egiteko

baimenik ez ematea". Epaitegiak egindako deuseztasun-deklarazioari eutsi behar zaio. Eskatutako mugatzea ezin daiteke onartu, kontuan hartuta komunitateak soilik erabiltzekoa den lorategian gerta litezkeen zaratak edo eragozpenak hartu behar direla apelatzaileen edo beste jabeak baten etxebizitzan gertatuko balira bezala. Jabetza-tituluak (etxebizitzaren jabetzak, edo elementu komun baten erabilera pribatiboak) ez du baimenik ematen leku jakin baten barruan gizalegearen kontrako portaera edukitzeko, eta elementu komun baten barruan debekatzen du. Ez dago bereizterik, beraz, norbaitek bere etxean sor ditzakeen zarata edo eragozpenen eta erabilera pribatuko lorategian sor ditzakeenen artean. Bestetik, udal-agintarien ardura da polizia gisa jardutea zaratei, gaueko jardueri dagokienez eta abar, eta, azken batean, Jabetza Horizontalaren Legearen 7. artikuluko 3. paragrafoak jabetza-eskubidea mugatzen du jarduera jakin batzuei dagokienez (osasunaren kalterakoak, deserosoak eta abar).

2.2. Jarduerak

2012ko martxoaz geroztik, Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hainbat jarduera burutu ditu erakundea herritarrengana helarazteko, auzokideei arreta egiteko eta argibideak emateko, banaka zein taldeka. Lankidetzan aritu da udal sailtako arduradunekin, herritarrek aurkezten dituzten salaketak direla eta, horiek hobetzeko.

2.2.1 HIZLARI

Jardunaldi, hitzaldi, mintegietan... hurbildu da sindikoa herritarrengana **hizlari** gisa, eta horrelakoetan haren zeregina herritarren eskubideak babestea dela erakutsi nahi izan du.

Ondoren Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak hizlari gisa parte hartu duen ekitaldien zerrenda jasotzen da:

* 2012/04/25: hizlari "Suarez Ferrin" literatur lehiaketan (A Coruña)

2.2.2 GONBIDATUTA

Sindiko edo Herritarren Defendatzailea **gonbidatu** gisa joan da erakunde, elkarte zein instituzioek antolatutako biltzar, hitzaldi, erakusketa, inaugurazioetara..., Gasteizko herritarrengana hurbiltzeko asmoz.

- **2012/04/12: Gobernuak Araban duen ordezkariordearen kargu jabetzea**
- **2012/05/10: Gizarte Lanari buruzko V. Jardunaldia: "Bitartekaritza"**
- **2012/06/07: Udaltzaingoaren ponentzia**
- **2012/05/14: Arartekoaren biltzarra, "Giza eskubideak krisi garaian"**
- **2012/05/18: Memoria eta Bizikidetzari buruzko Biltzarra**
- **2012/05/30: Etika eta gizarte zerbitzuei buruzko jardunaldia**
- **2012/06/05: "Europako Hiriburu Berdea" erakusketaren inaugurazioa**
- **2012/06/06: SUMAS biltzarra**
- **2012/06/22: Goiuri jauregia: "Azpiegitura berdea hirian"**
- **2012/06/26: Elsa Punsetekiko jardunaldia**
- **2012/09/14: "Oztoporik gabeko aretoaren" inaugurazioa**
- **2012/11/08: Gizartea eraldatzearen gatazka bitartekaritzari eta parte-hartzeari buruzko XVI. biltzarra.**

2.2.3 TALDE ETA ELKARTEEKIN EGINDAKO BILERAK

Herritarren Defendatzailearen Bulegoak elkartze eta bilerak egin ditu gasteiztar gizartearen erakunde eta taldeekin, haien kexak eta oro har herritarrek zein taldeek aurkeztutako bestelako salaketen gaineko ikuspuntua ezagutzeko.

*** Sidalava elkartea: idazketa lantegia Zaballako presoekin (ostegunero)**

2.2.4 BESTE SINDIKOekin EGINDAKO BILERAK

Zeinek bere hirian herritarrei udal zerbitzuei buruzko informazioa eta orientabidea ematen eta zerbitzu horiei buruzko kexak aurkezten laguntzen saiatzen diren eta zerbitzu horiek hobetzeko gomendioak egiten dituzten beste sindiko edo herritarren defendatzaile batzuekin bildu izan da sindikoa.

*** 2012-04-19 eta 2012-04-20: Sindikoen Foroaren Batzorde Iraunkorraren bilera, Sindikoen V. Biltzarra prestatzeko (Bartzelona).**

2.2.5 UDALAREKIKO HARREMANAK

Sindiko edo Herritarren Defendatzaileak Gasteizko Udalarekin eta udaleko zerbitzu eta sailekin dituen harremanak hiru atal hauetan gauzatzen dira:

UDALBATZAREN BILKURETARA JOATEA

Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 1. artikuluan jasotzen denaren ildotik, Udalbatzaren bilkuretara joan izan da Sindikoa, eta bere lantaldeko norbaiten gain utzi izan du zeregin hori, bertatik bertara izateko, hartara, Udalbatzak hartzen zituen erabakien berri.

- Hiriko Politikari buruzko Eztabaida Orokorra: 2012ko ekainaren 28 eta 29an.
- Sindikoaren 2011-2012 oroitidazkia aurkezteko osoko bilkura.

BATZORDEETARA JOATEA

Gasteizko Udaleko zinegotziek osatzen dituzten irizpen batzordeetara joan izan gara, Gasteizko herritarrei zuzenean eragiten dieten gaiak jorratzekotan zirelarik; Gehienetan, gai jakin bat bideratzeko moduaren inguruan zinegotziek ematen zituzten azalpenak eta egiten zituzten gogoetak entzuteko asmo hutsarekin.

2012ko martxotik 2012ko abendura bitartean, hau da, oroitidazki hau bukatutzat jo dugun arte, irizpen batzorde hauetara joan izan gara:

- **2012/03/19: Herritarren Parte-hartze Batzordea**
- **2012/03/20: Ingurumen Batzordea**
- **2012/05/02: Ingurumen Batzordea**
- **2012/07/24: Gizarte Politiken Batzordea**
- **2012/10/01: Herritarrentzako Zerbitzuen Batzordea**
- **2012/10/02: Udaltzaingo Batzordea**
- **2012/10/09: Gizarte Zerbitzuen Batzordea**
- **2012/10/16: Ingurumen Batzordea**
- **2012/11/06: Herritarrentzako Zerbitzuen Batzordea**

PARTE-HARTZE KONTSEILUETARA ETA LURRALDE KONTSEILUETARA JOATEA

Parte-hartze kontseilu hauetan izan gara, Gasteizko Udalak deialdia egin digularik:

- **LURRALDE KONTSEILUAK:**
-
- **2012/03/26: Pilarreko Lurralde Kontseilua**

- **2012/03/28: Iparraldeko Lurralde Kontseilua**
- **2012/04/02: Aldabeko Lurralde Kontseilua**
- **2012/05/08: Aldabeko Lurralde Kontseilua**

- **SEKTORE KONTSEILUAK:**

- **2012/05/07: Irisgarritasun Kontseilua**

BESTELAKO BILKURAK: ZINEGOTZIEKIN, SAILEKIN...

Harremanetan izan gara udal sail eta zerbitzuekin, bertako arduradunen bitartez, Sindikoak jasotako kexak zirela eta. Herritarra salaketa aurkeztera bultzatu duen arrazoiaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzea izan da horren helburu.

Hainbat bilera izan ditugu, honako hauekin:

- * **DBLOaren arduradunak**
- * **Irudi Korporatibo eta Hiriaren Proiekzioarako Ataleko arduradunak**
- * **ARICH**
- * **Ekonomia Sustapena eta Enplegua**
- * **Hirigintza**
- * **Udaltzaingoa**
- * **XXI Zabalgunea**
- * **Ogasuna**
- * **Ingurumena**

2.2.5 BISITALDI ETA IKUSKAPEN JARDUERAK

Testuingurua argitu eta erabiltzaileek nahiz administrazioak emandako dokumentazioa osatzeko argibideak eskuratze aldera, hainbat bisitaldi egin dituzte sindikoak eta haren lantaldeko kideek hainbat lekutara, egoera bertatik bertara aztertzeko. Honako hauek izan dira, hain zuzen ere:

- **2012/04/18: Judutegia interpretatzeko zentroa jartzekoa den aretoa ikusteko bisita.**
- **2012/05/10: "Erortzeko arriskuko seinalea arrapala mekanikoetan" dosierra.**
- **2012/06/18: "Zaratak Diputazio kaleko patioan", "San Antonio kaleko kutxatila" dosierrak.**
- **2012/07/03: Elikagaien Bankua.**
- **2012/09/10: Ikuskapenak: Salburuko zebra-bidea, Antepara kaleko kutxatila, Gaztelako ateko etxebizitza bateko irisgarritasuna.**
- **2012/11/06: Gaztela kaleko bidegorriari buruzko dosierra.**

2.3 Sindiko-Herritarren Defendatzailearen ebazpenak, sailez sail (gomendioa egitea, ezestea, ez onartzea, bideratzea, orientabidea ematea eta beste).

2.3.1.- Alkatetza Saila

2.3.1.1- Alkatea

a) Orientabidea

- Euskaltzaindiaren plazako autobus geltokia (erreg. zk. 1650 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Euskaltzaindia Bizia plataformak (EBP aurrerantzean) kexa bat aurkeztu du, Udalak autobus geltokiaren proiektua Euskaltzaindiaren plazara aldatzeko hartu duen erabakia dela eta. Plataformak Udalak landutako **Gasteizko HAPOaren aldaketa puntualaren memoria** (2011ko abendukoa, 2011/URBIP/7 erregistro zenbakia duena)

izeneko agiria aztertu du, zeinean autobus geltokia Euskaltzaindiaren plazan jartzea agintzen baita.

EBP ez dago ados agiri horretan egindako baieztapen batzuekin:

- Agiriaren 3. orrialdean Udalak hau ondorioztatzen du: kokapen aldaketak "ez dakar aldaketa handirik hasieran Arriagan proiektatu zenaren aldean, oinez 5 minutu baino gutxiagora baitago". EBParen ustez, **ikuspegi hori okerra** da, Arriagako eta plazako kokapenen hirigintza eta trafikoko ezaugarriak oso ezberdinak baitira.

- Agiriaren 3., 13., 14., 16. eta 17. orrialdeetan jasotakoaren arabera, Udalak Blas de Otero kaleko lursail bati (Ertzaintzaren egoitzaren ondoan dagoenari) sailkapena aldatzen dio bide batez, hirugarren sektoretik ekipamenduetara. Aldaketak 6.159 m²-ko azalerari eragiten dio.

EBParen ustez, **Udalak ez du ez aipatu ez iragarri gorabehera hori** eta, horrenbestez, lursail horretatik gertuko bizilagunek kexak edo erreklamazioak aurkezteko eskubidea galduko lukete, ez baitzuten horren berri.

- Agiriaren 13. orrialdean jasotakoaren arabera, aldaketaren helburua da "garraio publikoa sustatzea eta trafikoa ahalik eta arinena izatea, Latinoamerika plazako biribilguneetik igaro beharrik gabe"; 19. orrialdean, ordea, hau dio: "kokapen berria Forondako atetik hurbil dago, eta ahalmen handiko beste hiru bide inguratuta, Euskal Herria bulebarra du ardatz eta Latinoamerika plazan konektatzen da".

EBParen iritziz, **bi esaldi horiek kontraesanean daude**, eta ez datoz bat Maroto jaunak prentsan adierazitakoarekin, hasieran esan baitzuen Latinoamerika plaza saihestu egingo zela, eta gero, autobusak handik igaroko direla, eta Wellingtongo Dukearen kaletik.

- Agiriaren 3., 9. ,14. ,15. , 17. eta 20. orrialdeetan aipatzen da "hiriko berdeguneen dotazioa 16.189 m² handitzen" dela, "biztanleko 21,4 m²tik 21,5 m²ra igarotzen baita, HAPOa aldatuta metro koadro horiek Arriagako parkera itzultzen baitira".

EBPren ustez baieztapen hori ez da zuzena, 16.189 m² horien barruan Foronda ondoan dagoen lurgaineko aparkalekuko 4.500 m² sartu baitira, eta gainerako metro karratuak ez baitira itzultzen, **oraingoz ez direlako desagertu**. Euskaltzaindiaren plazako zati urbanizaezinean, ordea, 28.354 m² kendu dira, non urmaela, eskultura, arrosoak eta lorategiak baitzeuden. Alegia, hiri parke oso bat. **HAPOaren aldaketak 28.000 m² horiek 900 m²ra murrizten du plazako berdeguneen dotazioa** autobus geltokia eraiki ondoren (agiriaren 13. orrialdea). Horrek esan nahi du biztanleko berdegune metro koadroak benetan gutxitu egingo direla, aurreko hamarren bateko murrizketa ez baitzen benetan gauzatu, eta oraingoa, ordea, bai, plazako "zuloa" egina baitago; hori Udala aldarrikatzen ari den ingurumen politikaren kontrakoa da, zeinak lehentasuna izan beharko bailuke hirian.

- Agiriaren 13. , 15. eta 17. orrialdeetan aipatutakoaren arabera, "plazak dituen 33.000 m²etatik, 21,479 m² geltokirako erabiliko dira, eta 8.611 m², hirugarren sektoreko erabilerarako".

EBPak uste du **baieztapen hori guztiz engainagarria** dela, eta Udalak orain arte iragarri duenaren kontrakoa, lursailaren gainerako zatiak kultura ekipamenduaren hirigintza sailkapena izaten jarraituko zuela iragarri baitzen. **Hirugarren sektoreko erabilerako**

birsailkapena emanaz gero, plazaren kultura erabilera guztiz desagertzen da. Birkalifikazio horrek **lurzoruagatiko plusbalio handiak ekarriko** dizkio Udalari, eta agerian uzten du plazaren erabileraz **iritzi publikoa engainatu** nahi izan dela.

2.- Arartekoaren ebazpena

EBPak batera aurkeztu du kexa Sindikoaren eta Arartekoaren bulegoetan. ARARTEKOak azaldu du ALEGAZIOAK aurkezteko epea oraindik irekita dagoenez jokabiderik egokiena plazaren HAPOaren aldaketaren aurkako alegazioak aurkeztea litzatekeela, "hizpide dugun proiektuaren tramitazioan aurkeztu ahal direlako alegazioak", bai eta "Udalak horretaz hartutako erabakiaren erantzun arrazoitua jasotzeko" eskatu ere.

Horiek guztiak aintzat harturik, plataformak batzorde bat eratu du HAPOaren aldaketaren kontrako alegazioak aurkezteko, horretarako dagoen hilabeteko epean.

3.- Ondorioa

Administrazio-prozeduraren une honetan, ARARTEKOak gogorarazten duenez, jendaurrean jartzea eta balioespena egitea falta da, eta tarte horretan baliteke Euskaltzaindia Bizia plataformaren eskaerak onartzea, edo azalpenak jasotzea.

b) Ezestea

- Bat txartela: kenkaria (erreg. zk.: 1714 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, arau berrien arabera Bat txartelek kenkaria badutela 65 urtetik gorakoentzat, baina ez desgaituentzat.

Azterketa

Erabiltzailearekin bildu ginen eta zera adierazi genion, guk balioetsi ezinezko erabaki politiko baten aurrean gaudela, eta Administrazioak aurrekontua murriztu duela eta juridikoki horrelakorik egin dezakeela.

Ebazpena

EZESPENA.

c) Gomendioa

- Arabako Auzo Elkarteen Federazioaren erregistroa (erreg. zk.: 1715 / 12).

1.- Arazoaren aurkezpena

Arabako Auzo Elkarteen Federazioaren elkartze-ordezkaritza gugana kexu etorri da salatzeko Udal Erregistroan eskatutako inskripzioa eten egin dietela dagokion jakinarazpenaren ondorioz.

Herritarren Parte-hartzearen Araudiak honako hau ezartzen du:

"Izena emanda dauden herritar-erakundeak behartuta daude izena emateko aurkeztutako dokumentazioko datuetan edozein aldakuntza gertatzen delarik horren berri udalari ematera, dena delako aldakuntza gertatu denetik hilabete igaro aurretik."

Arabako Auzo Elkarten Federazioa 34. zenbakiarekin inskribatutako herritar-erakundea da, eta 2012ko otsailaren 22an Udal honi jakinarazi zion erakundearen helbide SOZIALA eta zuzendaritza-batzorde berriaren osaera aldatua zutela, horri zegokion akta aurkeztu zutelarik; Udal Erregistroaren erabaki horrek *de facto* elkartzee-egintzen balioaren kautelazko etetea dakar berekin, eta hori zuzenbidearen aurka doa.

2.- Arazoaren azterketa

Udal-erregistroak erregistratu egiten ditu elkarteek jakinarazitako aldaketak, eta aldaketa horiek benetakotzat dauzka benetako eskubidearen itxuran oinarrituta. Gure ustez, horrela jokatzea bidezkoa da baldin eta elkarteek, besterik gabe, zerbait jakinarazi behar badute, eta horri erantzun behar bazaio. Jakinarazpena ez da inondik inora kalifikatzen, baina horren inguruan ohar osagarriak egiteko aukera badago.

Kasu honetan, alkateak Dekretu bat eman du inskripzioaren etetea erabakitzeko, Arabako Auzo Elkarten Federazioko zenbait sektoreren artean desadostasunak sortu direlako gobernu-organoen osaerari dagokionez, eta horrek zalantzan jarriko lukeelako organo horiek hautatzeko ekimenaren balioa. Modu proaktiboan, inork hori eskatu gabe, jakinarazpen horren ondorioak indargabetzeko erabakia hartu du, Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroak Zuzendaritza Batzorde berria inskribatu arte.

Udal Erregistroak zera argudiatu du, Udalean inskribatutako elkarteek, erregistro horretan inskribatu aurretik, dagokion erregistro edo errolda publikoan inskribatuta egon behar dutela (47. artikulua, c letra), eta "araudi horrekin ados daudela" dioen akta edo ziurtagiria aurkeztu behar dutela. Hori egia bada ere, hortik ez dago ateratzerik

Udal Erregistroak ateratako ondorioak, lotura horrek elkartearen sorrerarekin zerikusia duelako bakarrik, eta ez ondorengo egintza edo berritze bakoitzarekin.

Gure ustez, elkartze-egintza bakoitzaren gainean hedadurazko interpretazio proaktibo hori eginez, elkarteen autonomia murriztu egiten da, eta gainera, Udal Administrazioak elkarteen barne-bizitza kontrolatzea ahalbidetzen da, kontrol hori berez Jurisdikzioaren ardura bada ere.

Kasu honetan zera azpimarratu behar da, Udal Erregistroari jakinarazpen bakarra aurkeztu zaiola, hain zuzen ere Zuzendaritza Batzordearen aldaketaren berri ematen duena, eta beraz hasiera batean ezinezkoa dela horren inguruko eztabaida politikorik sortzea administrazio-espeditentearen baitan.

Komunikabideek jakitera eman dute, bai, ondoriozko zehaztasun juridikorik gabe gainera, Batzordea berritzea ekarri zuen Batzarra deuseztatzeko demanda bat aurkeztua dagoela, baina esan beharra dago, halaber, epaitegietan ez dela ezein elkartze-egintzaren kautelazko etetea erabaki. Hortaz, Administrazioak, ezinbestean, aldaketa hori egokitzat eta eraginkortzat jo behar du baldin eta jurisdikzioak kontrakoa erabakitzen ez badu. Demanda judizial horrek zera eskatzen du, Batzordea berritzea ekarri zuen Batzarra bertan behera uztea, eta planteamendu horren arabera, hain zuzen, Batzar hori itxuraz baliozkoa izan zen eta behin-behineko eraginkortasuna du, horren kontrako erabakirik hartzen ez bada behintzat. Ez gaude, beraz, errotikako deuseztasunari lotutako aurkaratze-kasu baten aurrean, funtsezko betekizun guzti-guztiak zeharo ez betetzearen ondoriozkoa, deuseztagarritasun soileko aurkaratze-kasu baten aurrean baizik.

Gure ustez, kasu honetan, Udal Erregistroak, jakinarazpenaren ondorioak behin-behinekoz ukatu eta eten beharrian, Zuzendaritza Batzordearen aldaketa behin-behinekoz aintzat hartu beharko zukeen, ondorengo ebazpen judizialek adierazten dutenari utzi gabe. Gure ustez Udal Erregistroa urrunegi joan da, erregistro-eginkizun soiletik haratago, elkartze-egintzen kautelazko etetea *de facto* erabaki duelako, Jurisdikzioak bertan behera utzi duena.

Ez gaude ados Udal Erregistroaren kautelazko interpretazioarekin, parte hartzeko eskubidearen eta elkartearen funtzionamendu arruntaren aurkakoa delako. Izan ere, erabaki horri jarraiki, elkarteak ezin dezake denboraldi batez Udalaren aurrean jardun edo Kontseiluetan parte hartu, ezta urtero-urtero auzo-elkarteentzat erabakitzen diren diru-laguntzak eskatu ere.

3.- Ebazpena

GOMENDATZEN DUGU Zuzendaritza Batzordearen aldaketa behin-behinekoz inskribatzea jasotako jakinarazpenaren arabera, lehenik eta behin itxuraz baliozkoa delako eta eten ez delako, bigarrenik administrazio-espeditentean ez delako kontraesanezko inolako eskaerarik bildu, eta azkenik Arabako Auzo Elkartearen Federazioaren funtzionamendu arruntaren aurka ez joateko. Horri dagokionez aipatzekoa da elkarte hori Jurisdikzioan aurkaratua dagoela, aurkaratutako elkartze-erabakiaren kautelazko eteterik agindu ez delarik.

Horixe da gure GOMENDIOA, eta errespetu osoz jarri nahi dugu oinarri hobea duen beste edozein irizpideren eraginpean.

2.3.1.2- Kultur Plangintza eta Jaiak

a) Herritarrak berak itxia

- Aparteko orduak kobratzea (erreg. zk.: 1684 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, Montehermoson diharduela segurtasun-zaintzaile gisa, eta azken hilabeteetan ez dituela aparteko orduak kobratu.

Azterketa

Sailari eskatu genion lanposturako lehiaketa publikoaren baldintza-agirian jasotako klausulen berri emateko, eta jarraian erabiltzailearekin bildu ginen horren berri emateko, baina zera adierazi zigun, Epaitegietara joana zela kasua eramatera.

Ebazpena

Erabiltzaileak itxia.

b) Gomendioa

- Erakusketako obra katalogatzea (erreg. zk.: 1755/12)

Erreklamazioa

2007ko abenduaren 10ean, Gasteizko alkateak, Gasteizko Udalaren Montehermoso kulturunearen azken erantzule gisa, berariazko proiektu bat ekoizteko kontratua izenpetu zuen, zeinen xedea (1. klausula) hauxe baitzen: "itxura berriko berariazko erakustaldi bat ekoiztea, Montehermoso kulturunean eskaintzeko, 2008ko irailaren 19tik 2009ko urtarrilaren 6ra bitartean".

Kontratuaren edukiaren baitan, Montehermoso kulturuneak bere gain hartzen zituen "proiektu horretarako kulturuneak jartzen duen aurrekontuaren baitan obraren ekoizpenak berekin dakartzan gastuak", eta, horien artean, honako hauek aipatzen ziren: "Berariazko material grafikoa ekoiztea, eta erakusketaren katalogoa, halakorik izanez gero".

Kontratu horren beste sinatzaileak, J.B. artistak, bertan jasotako konpromiso guztiak bete ditu, eta dio, aldiz, udalak ez duela bete erakusketaren katalogoa argitaratzeko obligazioa, nahiz eta katalogo hori bere momentuan agindu zen, eta diseinu eta maketazio gasturik izan den eta ordaindu den –"ESA SUBSTANCIA QUE MANCHA" [Agiriak, I. eranskina] izenburuarekin–, eta inprentara eramana izateko zorian egon den. Atzeratzen joan da hori, eta, igaro den denbora igaro delarik, ondorioztatzen du udalak ez duela delako katalogoa egiteko asmorik.

Azterketa

Kontratuaren 1. klausulan hitzartutakoaz gain, 11. klausulan berariaz adierazten da hauxe, material grafikoari dagokionez:

11.- Material grafikoa

Montehermoso kulturuneak bere gain hartuko ditu erakusketako material grafikoen gastuak, zeinen baitan sartzen baitira gonbite-txartelak, barruko eta kanpoko seinaleak, liburuxka eta katalogoa, halakorik izanez gero.

Erakusketako material grafikoari dagozkion zerbitzuen kontratazioa Montehermoso kulturuneak finkatutako irizpideen arabera egingo da.

Erakusketa dela eta argitaratzen duen katalogoaren 15 ale emango dizkio Montehermoso kulturuneak artistari, modu instituzionalean igortzen diren katalogoez gain.

11. klausularen lehen paragrafoan baldintzazko erreferentzia bat egiten zaio material grafikoaren gastuak ordaintzeko obligazioari –"halakorik izanez gero"–. Nolanahi ere, hirugarrenean argi geratzen da ezarrita: "Erakusketa dela eta argitaratzen duen katalogoaren 15 ale emango dizkio Montehermoso kulturuneak artistari, modu instituzionalean igortzen diren katalogoez gain".

Katalogoa ez egiteak obraren zabalkundearen mozketara larria dakar berekin, eta egindako erakusketa murriztua eta isildua geratzen da, sostengu eman behar dion dokumentazio artistiko eta bibliografikorik gabe. Katalogo horren ale bana jaso beharko luketen eta udalaren jarrera dela eta jaso ez duten Espainiako 125 arte zentroren zerrenda eransten da [2. eranskina].

Erreklamatzailerak, administrazioarekin duen gatazka hori modu objektiboan erakusteko asmoz, pendiente dagoen obligazioaren balio ekonomikoaren orientazio gisako aurrekontua aurkeztu du, 5.437 eta 6.847 euroren artekoa baita, 1.000 edo 1.500 ale argitaratzen diren (beste erakusketa batzuetako erreferentziak dira horiek). [3. ERANSKINA]

Gure ustez kontratua urratze kasu argi baten aurrean gaude, *pacta sunt servanda* printzipio hausten baita, baita ekintzen beren logika ere, eta hitzartutako obligazioak betetzerakoan gorde beharreko fede onaren printzipioa, guztiak ere kontratu zuzenbidearen printzipio orokorrak. Administrazio publikoek sinatutako kontratuen kasuan, bada kontratazio arloko erabakiak

berrikusteko eta gatazkak konpontzeko hautazko beste modu batzuk aurreikusten dituen erregimen berezi bat, Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasoa –azaroaren 14ko 3/2011 LEDaren testu betegina–, baina ez da alegatu kasu honetan, eta ez da aplikagarri.

Ebazpena

Horrenbestez, gomendatzen dugu ezen, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin, aintzat har dadila Juncal Ballestín andreak –artista, eta delako erakusketaren arduraduna– egindako erreklamazioa, eta udalak argirataraz dezala dagoeneko diseinatuta eta maketatuta dagoen “ESA SUBSTANCIA QUE MANCHA” katalogoa, eta zabalkunde instituzionala eman dakiola, edo, bestela, kalte-ordaina ordain dakiola erreklamatzailerari, bete gabeko obligazioaren balioa adinakoa. Gomendioa ez zen onartu.

2.3.2.- Hirigintza Saila

2.3.2.1- Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzua

a) Gomendioa

- Jabetza pribatuko lursaila bide publikorako lagatzea (erreg. zk.: 1522 / 11)

Uribarri Dibiña menpeko toki erakundeko bizilagun batek kexa aurkeztu digu bere lursail bat (38,02 m²) bide publikorako utzi behar izan diolako Udalari. Hauxe da kexaren arrazoia: 1992/93 urtean, aurreko plan orokorraren baitan, herritarrek lursail bat utzi behar izan zion Udalari arrazoi bera zela eta, eta egun bada bertan 8 metroko

zabalera duen bidea. Beraz, haren ustez ez du zentzurik berriz ere lagapena egin behar izatea lursail banantzea dela eta.

Bertara joan gara bidea ikustera eta, itxuraz, bidea 8 metro zabal da, hau da, herriko bide gehienak baino zabalagoa, bai eta bertara iristeko errepidea bera baino zabalagoa ere. Gainera, bidea erreklamatzailaren etxeraino baino ez doa, eta ondoko nekazaritza biltegietara. Beraz, ez da erraz ulertzen berriz ere herrian bide publikorako lagapena egin behar izatea arrazoi beragatik, kontuan hartuta duela gutxi beste lagapen bat egin dela lur sail horretan.

Badakigu une honetan plangintza orokor berria lantzen ari dela, eta bertan nekazaritza eremuko bideen zabalera berraztertzea aurreikusi dela, oraingo Plangintzaren arabera batzuetan bateraezinak gertatzen baitira nekazaritza eremuetako betiko trazatuak eta nekazaritza paisaiak zaintzea eta eskuairaz eta kartaboiak marraztutako geometriak. Besterik gabe hirietako bide estandarrak nekazaritza eremuetan automatikoki aplikatzeak batzuetan kalte egin diezaike partikularrei, beharrik gabe, eta herriak desnaturalizatzen.

Gure ustez, eta nekazaritza eremuetan malgutasun handiagoz jokatzeko eta HAPO alde horietako berezko fisnomiara egokitzeko irizpideak kontuan hartuta, bizilagunaren eskabideari arrazoizkoa deritzogu, hau da, Udalak eskatutako 38,02 m²-ko lagapen berria bertan behera utz dadin, eta oraingo trazatua dagoen bezala utzi, bat baitator mugakideen eta herriaren beharrezanekin.

GOMENDIO ONARTUA.

2.3.2.2- Eraikuntzak

a) Gomendioa

- Lanabes-etxerako baimena (erreg. zk.: 1666 / 12)

Gasteizko herritar batek - xxx xxxxx xxxxxx xxxx - bere kexa azaldu digu, izan ere xxxx(e)n (zenbakirik gabe) lanabes-etxea legeztatze obra baimena eskatu ondoren (**2011/rjeomxxxx dosierra**), Eraikuntzen Zerbitzuak egindako obrak legeztatze eskatu dio, eraikuntza hori ingurunean egokitu dadin, akaberei, testurei eta koloreari dagokionez, eta harriak, bi isuriko teilatua... eta abar **bakarrik** erabiltzeko. Halaber, ez diote gomendatzen herritarrak nahi zuen bezalako **egurrezko etxetxo** berria jartzen, hau da, aurretik zeukan etxola bezalakoa neurri eta itxurei dagokienez

2.- Arazoaren azterketa

Aurrekariak:

Herritar batek xxx(e)ko XXX lursailean lanabes-etxea legeztatzeko obra-lizentziaren eskaera bertan behera utzi dela jotzen da 2011ko abuztuan.

Herritarrak ebazpen horren kontrako errekurtsua jarri zuen 2011ko irailean.

2011ko urrian Eraikuntzen Zerbitzuko teknikariak errekurtsua ezezteko txosten juridikoa eman zuen. Honakoan oinarritzen zen:

"Eraikuntzen bolumetriak ohiko fisonomiarekin bateragarri izan behar du eta amaierak, testurak eta koloreak Lautadako herri arkitekturan erabili ohi direnekin bateragarriak izan behar dute, ingurunearekin homogenea eta integratua izan dadin. Hau ez da horrela gertatuko eraikuntzen amaierak txapak, egurrezkoak ... badira, edo edozein koloretan pintatuz gero (aztergai dugun kasuan gertatzen den bezala)".

Aurrekari hauek kontuan izanda, **Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorreko 4.05.50.1 c) artikuluan** xedatutakoari jarraitu behar diogu, *non nekazaritzarako etxeak jartzeko erabiliko diren materialek ingurumenarekin bat egiteko egokiak izan behar duten testura eta koloreari dagokionez.*

Ez dakigu Udalak zein oinarri historikoren arabera ulertzen duen egurra baztertu egin behar dela nekazaritzarako etxetxoak eraikitzeke materialtzat.

Egurra Euskadiko baserrietan:

Egurra material tradizional nagusietako bat da. Euskal Herrian haritz zuria erabili izan da gehienbat XVIII. mendetik hona harri edo igeltserotzako materialek ordeztu dute egurra, baina horiekin beste egur mota batzuk erabil daitezke, gaztainondoa eta pinotea esaterako.

Ohikoak dira kareorez estali gabeko egurrezko eraikuntzak lastategi, mandio eta lehortegietan.

Udalak egindako interpretazioa irizpide zabalago batetik azter daitekeela uste dugu; egurrari tradizioz izan duen balioa aitortzeko. Lastategi, mandio eta lehortegietako aroztegi-lanekin pareka daitekeela eta testura eta koloreari dagokienez, Lautadako herri arkitekturarekin erabili ohi izan denaren osagarritzat har daitekeela. Gainera, askoz ere material xumeagoa, merkeagoa eta ekologikoagoa da eskusibo gisa sailkatu diren harrizko materialak baino.

Horrenbestez,

3.- Ondorioa

Erreklamatzailleak **egurrezko** tresna-etxe bat ezartzeko lizentzia-eskabidea baloratzeko GOMENDATZEN DUGU, gure ustez horrelako materialek bete egiten dituztelako horri dagokionez aplikatzekoa den Araudian ezarritako baldintzak. Legearen aginduz beste dokumenturen bat ekarri beharko balu, hori jakinarazi beharko litzaioke, horrela eskabidea hobetzeko aukera izan dezan. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

- Eraikin bat birgaitzean lurzoruaren Legea aplikatzea
(erreg. zk.: 1771 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

xxxxxxx andrea etorri zaigu salatzeko, bere amaren izenean, Udala isun hertsatzaileak bidaltzen ari zaizkiola xxxxx kaleko jabekideen komunitateari, eraikina birgai dezaten behartzeko, eta haren ustez, jabekideen komunitatearen inaktibitatea kontuan hartuta, hori guztiz bidegabea da, bere ama bakarrik arduratzen baita gastuak ordaintzeaz, nahiz eta kolokako egoera pertsonal eta ekonomikoan egon. (1. dokumentu erantsia: eraikuntza-erregimen juridikoaren espedientea). Isun hertsatzaileek ez dute ahalmenik planteatutako hirigintza-diziplinazko arazoa konpontzeko, eta, alderantziz, gizarte-arazo erantsi bat sortzen ari dira.

Erabiltzailearekin bildu ginen, kaltetuaren alabarekin alegia, eta zera adierazi zigun, bere ama auzo-komunitate horretako bigarren solairuan bizi dela, eta gainerako auzotarrak maizterrak direla eta ez dutela beren gain inolako gasturik hartu nahi, ez komunitatearen gasturik, ez birgaitzeko errekerimendutik eratorriko gasturik, gehienak kaudimengabeak direlako.

2.- Arazoaren azterketa

Administrazioak isun hertsatzaileen bortxazko teknika erabiltzen du administratuaren inaktibitatea gainditzeko eta bere betebeharrak bete ditzan behartzeko, baina dagokigun kasuan egoera horrek zigortutako pertsona bakarra adineko emakume bat da, egoera larri batean bizi dena, eta bizitza osoan aurreztutakoa galtzen ari dena gainerako auzotarrek ez ordaindutakoaren enbargoa dela medio. Teorian, zordundutako kopurua hari jasanarazteko aukera izango litzateke, baina gure ustez ez litzateke bidezkoa izango, atso hori egoera benetan prekario batean bizi dela kontuan hartuta.

Isun hertsatzaileen bitartez, legezko hirigintza-betebeharrak bete nahi ez dituztenei aurre egin nahi zaie, baina kasu honetan isun hertsatzaileen jomuga bakarra izan da, hain zuzen, bere betebeharrak betetzeko ardura hartu duen pertsona bakarra. Isun horiek eraginkorrak izateko, herritar axolagabeei edo bete beharrekoa betetzen ez dutenei ezarri behar zaizkie, pasibotasun hori eraikina mantentzearen kaltetan doalako, eta EZ bete beharrekoa betetzeko borondatea erakutsi duen auzotar bakarraren kaltetan.

3.- Gomendioa

GOMENDATZEN DUGU Udalaren isun hertsatzaileen jomuga auzotar axolagabeak izatea, beren pasibotasunarekin eraikina mantentzearen kaltetan ari direlako, eta ez xxxxxxxx andrea, hura baita behar bezala jokutzen ari den auzotar bakarra.

b) Orientabidea

- Janari-dastaketa etxebizitzetan (erreg. zk.: 1659 / 12)

1.- Aurkezpena

Erabiltzaile bat etorri zaigu salatzeko Gasteiz hiribideko etxebizitza bat janariak dastatzeko erabiltzen ari direla, eta horretarako lizentzia-jarduera nahitaez eduki beharko luketen jakin nahi luke.

2.- Azterketa eta ebazpena

Gai horren inguruan Gasteizko Udalak igorri digun txostenaren berri eman diogu erabiltzaileari. Hona hemen:

Jakinarazten dizugu zenbait sailekin zenbait aldiz bildu garela, eta zera adierazi digutela, etxebizitza horretan egiten ari diren jarduera ez dela kaltegarria, eta horrenbestez ez duela jarduera-lizentziaren beharrik irekitzeko lizentziaren beharra baizik, eta azken hori eguneratuta dagoela, honekin batera doalarik.

Oraingoz hori da esan diezazukegun guztia, eta gure ustez kasu honetan Administrazioaren jarduna bidezkoa izan da.

- Igogailua zero kotan (erreg. zk.: 1761/ 12)

Aurkezpena

Erabiltzaile batek zera salatu digu, jabekideen komunitateak zero kotan igogailu bat jartzeko agindu diola, erabakia gehiengo absolutuaz hartu dutelarik; hark, ordea, obra horri ekiteko ahalmen ekonomikorik ez duela eman digu aditzera.

Azterketa eta Ebazpena

Harekin bildu ginen, eta informazioa eskatu zigun igogailua jartzeko lanak atzeratzeko aukerarik ote dagoen jakiteko, ordainketari ezin diola aurre egin aintzat hartuta. Zera adierazi genion, xehetasun hori legeztatu gabe dagoela eta obra ezin daitekeela horregatik gelditu, baina agian ordainketa zatikatzeko aukera izan dezakeela. ORIENTAZIOA.

c) Bitarteko jarduera

- Beheko solairuari kalte egiten dion igogailua (erreg. zk.: 1768/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du etxejabeen elkarteak behartu egiten duela zero kotara iritsiko den igogailua jartzera, eta horrek biziki kaltetzen duela beheko solairuko bere etxebizitzarako sarrera.

Azterketa eta Ebazpena

Bertan izan gara lekua ikuskatzen, txostena eskatu diogu Eraikuntzen Zerbitzuari eta obra proiektuari egokitu dakiola galdatu dugu. Erabiltzailearekin harremanetan jarri gara, eta jakin ahal izan dugu dena behar bezala ari dela egiten. BITARTEKO JARDUERA.

d) Ezestea

- Igogailua eta garajea (erreg. zk.: 1819/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du etxejabeen elkarteak behartu egiten duela zero kotara iritsiko den igogailua jartzera, eta horrek bere jabetzako garajearen zati bat lagatzera behartzen duela. Ez dator bat desjabetzean egindako kalkuluarekin.

Azterketa eta Ebazpena

Aurkeztutako agiriak aztertu ditugularik, dena zuzen dagoela uste izan dugu. EZESPENA

2.3.2.3- Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Tokiko erakunde txiki baten partzelazio-lizentzia (erreg. zk.: 1579 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

xxx(e)ko Tokiko Erakunde Txikiko herritar batek (etxebizitza-zenbakia: xxx) zera planteatu digu, 2003ko otsailaren 5ean bere ama xxx xxxxx xxxxx andrearen jabetzakoak diren zenbait finka birpartzelatzeko lizentzia eskatu zuela, eta Udalak, eskaera horri erantzunez, 1.142.8 metro koadro duen xxx zenbakiko lurzatia partzelatzeko lizentzia eman ziola.

2003ko otsailaren 28an, Gasteizko Udalak obra-lizentzia eman zion etxebizitza hori eraikitzeko.

Gasteizko Plan Orokorra aplikatuz, zero metro koadroko azalera laga zen, izan ere, alde zurretik, hiriko bideak hobetzeko eta espaloiak eraikitzeko, beharrezko lagapena egin zen, eta, hori ez ezik, bide zaharraren ondoko nekazaritza-pabiloia ere eraitsi zen, horrenbestez lurzatia urbanizatuta geratu zelarik.

2005eko martxoaren 17an, etxebizitza horren lehen okupazioko lizentzia eman zitzaion.

Arabako Foru Aldundiaren katastro-balioa eguneratzeari buruzko jakinarazpenaren arabera, urbanizazio-maila % 100 da.

Alabaina, aurrerago lurzatia urbanizagarri bihurtu zen, Gasteizko Udalak xxx(e)ko xx zenbakiko sektorearen barruan sartu zuelako, eta, horrekin batera, azalera galtzeaz gain, honako kalte hauek pairatu zituen: (1) lurzatia ixten duen hesia desegitea eta errotik ateratzea, (2) artelatzak errotik ateratzea, (3) lurzatian sartzeko atea aldatzea eta ureztatze-sistema aldatzea.

Haren ustez, azalera-galera horren arrazoia ez da hirigintza-interesetan bilatu behar, horren xede bakarra oinezkoentzako

korridore bat sortzea delako, bide berdearekiko paraleloa, lehendik dagoenarekiko irregularra eta lehendik dagoenari jarraipenik emango ez diona.

2.- Arazoaren azterketa

Egia bada ere Administrazioak hirigintza-arloan *ius variando* esaten zaiona baliatzeko aukera baduela, egia da, halaber, hirigintza-erabilerako baldintzak aldatzeko ahalmen hori ezin daitekeela ez arbitrarioa ez berdintasunaren aurkakoa izan, Administrazio Zuzenbideari ere aplikatzekoa den Kode Zibilaren atariko tituluak horrela ezartzen baitu gure antolamendu juridikoaren oinarri orokor gisa:

3. artikulua.

- 1. Arauak euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta.*
- 2. Ekitatea balioestekoa izango da arauak aplikatzean; hala ere, auzitegiek emandako ebazpenen oinarri eskusiboa ekitatea izan dadin, legeak beren beregi ahalbidetu behar du hori.*

Gertaeren tokia ikusatzera bertaratu gara, eta, egiaztatu ahal izan dugunez, lerrokadura beretik doan bide berdearekin paraleloan oinezkoentzat sortutako bidea lehendik dagoen ibilbidearekiko irregularra da, eta ez dio ibilbide horri jarraipenik ematen. Ez zaigu iruditzen hirigintza-jarduera nahikoa justifikatua dagoenik tokian zaku-hondo baten sorrera saihestea oinarritzat hartuta, oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa normala delako tarte horretan bide berdean barrena, kontuan hartuta, gainera, korridore horrek ez duela

zerikusirik ez aurreko gunearekin ez atzekoarekin. Gure ustez, afektazio-kasu bat da, eta berriz aztertu beharko litzateke, Planean landa-eremuari dagokionez aurreikusita dauden malgutasun- eta egokitze-irizpide berrien arabera.

3.- Ondorioak

Gure ustez, obrak eta lizentziak eman ondoren lagapen hori ezartzeak bidegabe kaltetzen ditu erreklamatzailaren eskubideak, interes orokor nahikoa justifikatu gabe. Bildutako eskubideak berdintasunez interpretatzean zera ikusten dugu, azalera-galera eta auzokoari eragindako kaltea ez direla behar bezala justifikatu, eta horregatik Planaren Bulegoari **GOMENDATZEN DIOGU** inguruabar hori kontuan har dezan eta HAPO alda dezan, erreferentziazko finka xxxx(e)ko xx zenbakiko sektorearen barnean hartzeari dagokionez, horri ezarritako azalera-galera indargabetuta.

b) Orientabidea

- Etxebizitza gisa gaitutako lonja (erreg. zk: 1719 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, Aiztogile kalean beheko solairu bat erosi zuela etxebizitza gisa gaitzeko asmoarekin, baina Udalak lonja libre uzteko eskatzen diola, ezin daitekeelako etxebizitza izan. Bere seme desgaituarekin bizi da bertan.

Azterketa

Erabiltzailearekin bildu ginen eta zera adierazi genion, Udalari etxebizitza abandonatzeko ahalegina egin duela erakutsi beharko liokeela, baina aldi berean semea babesik gabe geratuko litzatekeela adierazi.

Ebazpena

ORIENTAZIOA.

- Europa Biltzar Jauregi berria eraikitzekeo proiektua (erreg. zk.: 1749 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat *Europa Biltzar Jauregi berria eraikitzekeo proiektuari buruzko informazioaren bila etorri zaigu, auzotarrak direnez ekimen horrek eragingo dielako.*

Azterketa

Proiektuko arduradunekin bildu gara informazioa kontrastatzeko, eta, bileraren ostean, zera adierazi diegu, gaur egun Europa Biltzar Jauregia hartzen duen lurzatiak eraikitzekeo aukera gehiago dauzkala erabilitakoak baino, eta beraz, ez dagoela inolako lege-eragozpenik hiri-erabilera zabaltzeko; gunea bete egin daiteke guztiz okupatuz; jauregi berria handiagoa izango da, baina lurzatirako baimendutako eraikigarritasuna errespetatuko du.

Nolanahi ere, auzotarrak direnez, nahiz eta orain arte zeuzkaten bistak aldatuko diren, hori ez da eskuratutako eskubide bat, eta beraz, lurzatiak egun duen hiri-kalifikazioa eta

Administrazioak alor horretan duen *ius variandi* printzipioa oinarritzat hartuta, Administrazioak bere kabuz jauregiko egitura aldatzeko aukera izango du, interes orokorreko irizpideei jarraiki. Erabaki politikoa da, eta politikoki baloratu beharko da interes orokorraren arabera.

Gainera, hasiera batean aldaketek Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eragiten ez dutenez, Gobernuko taldeak erabakiko du erabakia Osoko Bilkuraren erabakiaren mendean jarri beharrik gabe. Proiektuari Plan Orokorraren aldaketaren bat eransten bazaio, Udalaren Osoko Bilkurak onartu beharko du nahitaez.

Ebazpena

Horrenbestez, erabiltzaileari **ORIENTAZIOA** eman diogu bere kexari dagokionez.

2.3.3.- Herritarren Segurtasunaren Saila

2.3.3.1- Udaltzaingoa

a) Ezestea

- Herritarren Segurtasunaren alorreko salaketa (erreg. zk.: 1469/11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek kexa azaldu digu Udaltzaingoa gidaririk gabe aparkatzeagatik egindako trafikoko salaketa batekin lotuta, zeina deuseztatu egin baitzen arau-haustea idaztean akats formalak

zeudelako; hain zuzen ere, NR 1469/11 erreferentzia duen gomendioa egin genuen horri buruz.

Antza denez, trafikoaren alorreko salaketa horrekin batera Herritarren Segurtasunaren Legearen aurkako arau-hausteari dagokion beste salaketa bat jarri zen, egun - 2001eko azaroaren xxan- eta leku berean; hori 2011ko martxoaren xxan ebatzi zen, eta 2011ko apirilaren xxan jakinarazi salatuaren bizilekuan.

Erreklamatzailerak dio orain arte ez duela herritarren segurtasunaren alorreko salaketaren berri izan eta, edonola ere, ez duela ulertzen trafiko zigorra baliogabetu bada zergatik ez den beste salaketa hori ere deuseztatzen, bien jatorria polizia jarduera bera izanik.

2.- Arazoaren azterketa

Prozedura zigortzailea azterturik, hori egoki bideratu dela ondorioztatzen da, eta salatuaren bizilekura bidalitako jakinarazpena berak jaso eta sinatu zuela, beraz, ez dago forma akatsik. Mamiari dagokionez, parte hartu zuten agenteen aitorpenak daude jasota dossierrean, kargu-froga gisa, eta salatuak ezin izan du polizien txostenen kontra ezer frogatu.

Trafiko salaketaren deuseztasunak ez du horrekin zerikusirik, eta egitatezko beste oinarri bat du. Agente salatzaileak aparkatzearekin lotutako arau-hausteari buruzko salaketa-orria idaztean egindako forma akatsak eta kontraesana ez zaizkio zertan automatikoki egotzi aldi berean gertatutakoei, zeinak Herritarren Segurtasunaren Legearen babesean salatu baitzituzten agenteek, agintariei ez obeditzeagatik eta irain eta desmen egiteagatik, xx-xxxxxx txostenean jasotakoaren arabera.

Beren eginkizunarekin lotuta agenteek egindako adierazpenek egiazkotasun-ustekizuna dute, beraz, ezin gara aipatutako kexa gure gain hartu eta kasu honetan onartu beharrean gaude Udaltzaingoaren jokabidea zuzenbidearekin bat etorri dela.

- Salaketa, estupefazianteen eraginpean gidatzeagatik (erreg. zk.: 1687/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar bat honako kexa honekin etorri zaigu:

“Justiziaren eta agintarien irudi publikoa zaintzeko ardura duenari, haiei dagokielako legea betearazteko eta errespetarazteko zeregina.../...Bai, erruduna naiz legez kontrako substantziak hartzeagatik eta horrelako substantziak gorputzean neramatzala gidatzeagatik, baina gidatzean ez dut inolako segurtasun-araurik urratu”.

Alegatu duenez, udaltzainek bidegabe salatu eta atxilotu zuten, horretarako arrazoirik ez zutelarik, eta horregatik legez kontra atxilotu zutela uste du.

2.- Gertaerei buruzko azterketa

Udaltzainek egindako legez kontrako atxiloketarengatik kexa ez da bidezkoa kasu honetan, izan ere, interesdunaren aitortpena tarteko, udaltzainek hasitako polizia-izapideetatik zera ondorioztatzen da, Zigor-arloko Jurisdikzioak epaia eman zuela, eta, horren arabera, substantzia psikotropikoen eraginpean gidatzearen delitu mota

zehazten duen Kode Penalaren 379.2 artikulua urratzeagatik kondenatuta dagoela. Hortaz, udaltzainek egindako salaketa eta atxiloketa zuzenbidearen arabekoak dira erabat, eta ezin daitezke zalantzan jarri.

Epai penalaren arabera, 4 hilabeteko isuna ezarri zaio, eta 244 egun eman beharko ditu motor-ibilgailuak eta ziklomotorrak gidatzeko eskubiderik gabe, eta zigor horiek ezarri zaizkio ez zirkulazio-arauak hausteagatik, substantzia psikotropikoen eraginpean gidatzean erreklamatzailleak sortutako arrisku objektiboko egoerarengatik baizik, kontuan hartuta gainera hark hori esanbidez onartu zuela.

3.- Ondorioak

Horregatik guztiagatik ezin dugu kexa hori aintzat hartu, eta ondorioztatu behar dugu Udaltzaingoak primeran jokatu zuela erreferentziazko kasuan, legez eta jardunbide egokien printzipioen arabera.

- Salaketa, kargatzeko eta deskargatzeko eremuan desgaituentzako txartelarekin aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1680/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek —N. G. de L.— kexa bat aurkeztu digu, kargatzeko eta deskargatzeko eremuan aparkatzeagatik ezarri zaion salaketari loturik. Adierazi digunez, aparkatzean 208. zenbakiko DESGAITU TXARTELA aurkeztu zion agenteari, eta ezinbesteko denboraz bakarrik aparkatu zuen, baina agente salatzaileak ez zuen hori kontuan hartu.

2.- Arazoaren azterketa

256/2000 DEKRETUAK, abenduaren 5ekoak, ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela arautu eta Europako Batasuneko estandarrari egokitu denak, zera ezartzen du esanbidez, aparkatzeko txartela duten desgaituek eremu debekatuetan ere aparka dezaketela kasu jakin batzuetan, kasu honetan adibidez, salbuespen jakin batzuetan izan ezik, eta beraz, salaketa eta isuna legez kontrakoak dira eta indargabetu behar dira.

4. artikulua.- Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartelaren ezaugarriak eta txartela erabiltzeko baldintzak.

1.- Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartelaren ezaugarriak dekretu honetako I. eranskinean azaldutakoak dira.

2.- Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela erabiltzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Ibilgailua aparkalekuan uzteko txartela titularrak ibilgailua gidatzen duenean edo bertan berori garraiatzen denean bakarrik erabili ahal izango da.

- Txartela ibilgailuaren aurreko aldean jarri behar da, txartelaren aurkia argi eta garbi ikus dadin ibilgailuaren kanpoaldetik eta agintaritza eskudunak azter dezan halaxe eskatu badu.

- Txartela baliozkoa izango da horretarako seinalatutako lekuetan aparkatzeko, baita aparkatzea debekatuta dagoen lekuetan ere, ezinbesteko denboraz, eta ondoko salbuespenak kontuan izanik:

- Oinezkoentzako aldeak, nasak edo espaloiak eta oinezkoentzako pasabideak.

- Gelditzea debekatuta dagoen lekuak.

- *Ibiak edo larrialdiko irteerak ixten dituzten lekuak.*
- *Zirkulazio-erraiak murrizten dituzten eremuak («bigarren ilara»).*

3.- Ebazpena

Salatuak karga eta deskargarako erreserbatutako eremu batean aparkatu zuen ibilgailua, baina gertaeren lekua ikuskatu ondoren, seinaleak gelditzeko debekua ere adierazten duela egiaztatu dugu; hortaz, desgaitu-txartelarekin ibilgailua eremu horretan uztea galarazten duen salbuespenaren aurrean egongo ginateke kasu honetan, eta horregatik salaketa bidezkoa dela uste dugu.

- TAO aparkaleku arautuaren sistema (erreg. zk.: 1641/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Jose Lejarreta kaleko herritar batek adierazi digunez, kale horretan TAO aparkaleku arautuaren sistema jartzeko eskatu dio udalari hainbat aldiz, baina udalak ez du asebeta. Herritarra kexu da.

2.- Arazoaren azterketa

Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana erreferentziatzat hartuta, Gasteizko Udalak ibilgailu pribatuen aparkalekua eta trafikoa antolatu nahi ditu, neurri handi batean klimaren aldaketaren eragile diren berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztu asmoz. Gainera, espazio publikoa mugatua da, eta gero eta ibilgailu pribatu gehiago dago; horren aurrean, aparkalekuen erregulazioa Udalaren lehentasunetako bat da.

2009 urtearen amaieran berrantolatu egin zen TAO sistema, eta 2010eko urtarrilean bigarren faseari ekin zitzaion. Berrantolaketak hainbat helburu ditu. Oraindik ez da sistema sendotzeko eta erabiltzaileak sistemara egokitzeko adina denbora pasa.

Aldi baterako TAO aparkalekuak ezin dira ausaz handitu interes partikularrengatik. Kontuan izan behar da TAO eremuak jartzeak hainbat esparrutan eragiten duela zuzenean zein zeharka: inguruko eremuetan, merkataritza jardueretan, zama-lanetan, TAO zaindarien zerbitzuaren berrantolaketan... Hau da, hainbat alorri eragiten dionez, TAO eremua zabaltzeko ezinbestekoa da plangintza egitea eta arlo guztiak, oro har, aintzat hartzea.

Une honetan ez da Udalaren lehentasun bat TAO sistema aldatzea.

Beraz, aldi baterako aparkaleku-eremuak duela gutxi aldatu direla kontuan hartuta, udalak zuzen jokatu duela uste dugu.

- Isuna bidegabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1667/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat kexu azaldu zaigu esanez Udaltzaingoak salaketa jarri diola gaizki aparkatzeagatik, herritarraren esanetan mugikortasun urrituko pertsona bat, zehazkiago % 88ko minusbaliotasun-maila duena, etxeko atariraino hurbiltzeagatik. Erreklamatzailerak adierazi digunez, ibilgailua toki horretan aparkatuta egon zen, bai, baina bakar-bakarrik desgaitua familiaren etxebizitzan sartzen laguntzeko eta ibilgailura itzultzeko beharrezko denboran.

Adierazitakoa egiazkoa dela egiaztatzeko eta salaketa bertan behera uzteko eskatu du.

2.- Arazoaren azterketa

Berez, salatuaren adierazpenek ez dute baliorik Agintaritzaren agente batek emandako salaketa zalantzan jartzeko, egiazkotasun-ustekizunak azken hori babesten duelako lekuko gisa ikusi dituen gertaerei dagokienez. Erreklamatzailleak bere burua errugabetzeko alegatutako inguruabarra udaltzain salatzaileak egiaztatu beharko zukeen kontuan hartua izateko, edo bestela, interesdunak bere gain hartu beharko zukeen frogaren karga, ezin diolako Administrazioari eskatu alegatutakoa egiaztatzeko.

Horregatik guztiagatik, zoritxarrez ezin dugu erreklamatzaillearen eskaera aintzat hartu, eta adierazi beharrean gaude Udalaren jarduna bidezkoa izan dela, jardunbide egokien printzipiora egokituta.

- Istilua hauteslekuan (erreg. zk.: 1679/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Frai Zakarias Martinez kalean hautesleku bat jarri zuten Senegalgo lehendakaritza-hauteskundeetarako, atzerrian bizi diren senegaldarrek bertan botoa emateko aukera izan zezaten, eta horren harira P.N.F. senegaldar egoiliarra gugana etorri da kexu, bertan izandako istiluaren aurrean Udaltzaingoak egin zuen jarduna salatzeraz.

2012ko otsailaren 26an senegaldar herritar bat bertaratu zen hauteskunde-bulegora, bere betebeharrak betetzeko. Botoa emateko txanda iritsi zitzaionean, bere hauteskunde-txartela Madrilgo Kontsulatu Nagusitik iritsi ote zen galdetu zuen. Hauteskunde-

mahaiko presidenteak adierazi zion hauteskunde-txartela ez zela iritsi, eta horrenbestez ezin izango zuela hauteskundeetan parte hartu. Erreklamatzailleak zera erantzun zion, pasaportearen indarrean zuela, eta gainera bere izena Erregistroan jasota zegoela, eta beraz, ez zuela ulertzen zer zela-eta ez zuen botoa emateko aukera. Presidenteak ukatu egin zion botoa emateko aukera, baina erreklamatzailleak bere horretan jarraitu zuten. Hauteslekuko presidenteak hauteslekua zaintzen ziharduten bi udaltzainei deitu zien, erreklamatzaillea kanpora atera zezatela eskatzeko. Erreklamatzaillea ahalegindu zen udaltzainei hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea bazuela azaltzen, baina udaltzainek bilurrak ipini zituzten eta jarraian kanporatu zuten, nahiz eta erreklamatzailleak aurre egin zien; azkenean, bultzaka atera zuten, eta borrokaren ondorioz, erreklamatzaileri betaurrekoak erori eta apurtu egin zitzaizkion.

Udaltzainek erreklamatzaillea atxilotu eta Udaltzaingoaren Bulego Nagusira eraman zuten, eta bertan polizia-fitxa bat egin zioten; jarraian, antsietate-krisi bat izan zuten, eta larrialdietara eraman behar izan zuten.

Erreklamatzailleak zera alegatu du, Senegalgo hauteslekuko presidenteak agintekeriaz jokatu zuela, eta ondorioz benetako hauteskunde-iruzurra egin zuela, non kanporatu zuten udaltzainek zeharkako parte-hartzea izan zuten.

2.- Arazoaren azterketa

Erreklamatzailleak planteatu digun kasuan zera gertatu da, Udaltzaingoak bere eskumenak betetz jardun zuela Senegalgo hauteslekuko presidentearen jarraibideei jarraiki. Izan ere,

hauteskunde-eguna presidentearen aginte funtzionalaren eraginpean garatu zen, eta presidenteak du egun horretan gerta daitezkeen gorabeherak kudeatzeko agintea. Udaltzaingoak ez du eskumen judizialik edo aholku-emailerik, eta ezin ditzake zalantzan jarri hauteslekuko presidenteak kasuan kasu aretoan emango dituen aginduak.

Analogiaz, Espainiako hauteskunde-legeriak honela definitzen du hauteskunde-mahaiko presidentearen agintea:

91. artikulua.

1. Mahaiko lehendakariak bakarreango agintea izango du Hauteskunde-Mahaiaren tokiaren barruan bakea zaintzeko, hautatzailearen askatasuna babesteko eta Legea betearazteko.

2. Mahaiko presidenteak zaindu behar du lokalerako sarrera beti libre egon dadin, bertan sartzeko eskubidea duten pertsona guztiak sartzeko moduan.

3. 87. artikuluan jasotakoa alde batera utzi gabe, honako hauek bakarrik sar daitezke hauteskunde-ataletako lokaletan: bertako hautesleak; hautagai-zerrenden ordezkariak eta zerrenda horiek osatzen dituztenak; horien ahaldunak eta artekariak; notarioak, hauteskundeekin zerikusia izaki bozketaren sekretuaren aurka ez doan edozein egintzaren fede emateko; presidenteak eskatutako agintaritza-agentek; Hauteskunde Batzordeetako kideak eta instrukzio-epaileak eta horien delegatuak; eta, azkenik, Administrazioak boto-zenbaketaren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko izendatutako pertsonak.

Hortaz, poliziak horrela jardun zuen Hauteslekuko presidentearen jarraibideei jarraiki, bertan gertatutako istilu baten ondorioz. Erreklamatzailerak poliziarri aurre egin zionez, agenteek

indarra erabili behar izan zuten erreklamatzailerak kanporatzeko, ezinbestean eta neurrian, eta jarraian haren polizia-fitxa egin zuten, litekeena delako agintearekiko erresistentzia-delitu batean erori izana.

Erreklamatzailerak alegatu du litekeena dela hauteskunde-iruzurra gertatu izana Senegalgo lehendakaritza-hauteskunde horietan, eta zoritxarrez hori hala izan zela adierazi behar dugu; izan ere, botoa emateko eskubidea galarazi zioten, seguruenik modu arbitrarioan eta zuzenbidearen aurka, eta egintza horren aurka egiteko eskubide osoa du, gure ustetan. Egintza hori egiaztatu beharko zatekeen notario-aktaren bitartez, edo bestela komunikabideen aurrean salatuz, iritzi publikoak zegokion epaia eman zezan. Hauteskunde-erreklamazioa aurkezteko aukera ere bazegoen, baina horrek ez du esan nahi Udaltzaingoak gaizki jokatu zuenik; aitzitik, ongi jardun zuen bere eskumenak betez, eta, gauzak nola zeuden kontuan hartuta, ezin izango zukeen beste era batera jardun.

Hau da gure txostena, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen menpe jartzen duguna.

- Isuna: asegururik gabe aparkatutako autoa (erreg. zk.: 1700/12)

Erreklamazioa

Herritar batek zera adierazi digu, Lakuako aparkalekuan auto bat aparkatua zuela, asegururik gabe, txatar bihurtzeko asmoarekin. Ertzaintzak 1500 euroko isuna jarri dio. Erabiltzaileak jakin nahi du euskal autonomia-erkidegoko poliziak eskumena ote duen egoera hori zigortzeko.

Ebazpena

Kasua balioetsi ondoren kexa ezesteko erabakia hartu dugu, eta interesdunari zera adierazi diogu, ertzaintzaren agenteek trafiko-alorreko eskumenak badituztela, eta hortaz isuna bidezkoa dela.

- Isuna: istilua udaltzain batekin (erreg. zk.: 1693 / 12)

Erreklamazioa

Herritar bat gugana kexu etorri da, udaltzainekin izandako istiluarengatik ezarri dioten isuna salatzen. Herritarra hiriko kale bateko terraza batean zegoen, eta udaltzainei kargu hartu zien oinezkoentzako erdibitzaile batean autoz zihoazelako. Agenteak jardun horren arrazoia azaltzen ahalegindu ziren, eta jarraian istilu bat sortu zen bi alderdien artean. Isuna ezarri zaio agintariei desobeditzeagatik eta bide publikoan segurtasun kolektiboa asaldatzeagatik.

Ebazpena

Polizia-txostena baloratu ondoren, agenteen jarduna bidezkoa izan da gure ustetan.

- TAO tasaren kudeaketa (erreg. zk.: 1566 eta 1606/ 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

TAO tasaren kudeaketaren inguruko kexak aurkeztu dizkigute Gasteizko hainbat herritarrek.

Udalak egoiliarrentzako lurrazaleko aparkalekuak erabiltzearen truke ekonomiko gisa sortu du TAO tasa. Tasen izaerarekin bat zerbitzu bat eskaintzen da. Tasa urte-hasieran ordaintzen da, aldi baterako aparkatzeko eskubidea zein kaletan izango den azaltzen denean. Ordaindu eta gero Udalak murriztu egiten ditu TAO

erabiltzeko kale eta plaza kopurua eta ez da ordaindutako tasari dagokion proportzioa itzultzen. Horixe da herritarraren kexa.

Tasa likidatu ondoren 2 B TAO eremuan leku horiek murriztu egin direlako kexu agertu zaizkigu herritarrak eta txikitu egin den gune horri dagokion diruaren zati proportzionala itzultzeko eskatzen dute.

2.- Azterketa juridikoa

Kexak erabat logikoak dira, zalantzarik gabe. Udalaren jarduna nahita izan den ala ez alde batera utzita (agian zerbitzuaren ezinbesteko arrazoiak izan dira tarteko), justizia materialari dagokionez, onartu egin beharra dago bizilaguna kaltetua izan dela eta TAO eremua erabiltzeko zuen asmoa ezin dela bete. Hala ere, legeari estu jarraiki, egoera horrek ez du erreklamatzeko eskubiderik ematen, izan ere horrela jasota dago ordenantzan. *"TAO txartela ematen denean zorpidetzen da zerga, eta kuotak ezingo dira inolaz ere murriztu, salbu eta txartela urte naturala hasita dagoenean eskatzen bada; halakoetan kuota proportzioz kalkulatu da, txartela eskuratu den egunetik abenduaren 31ra bitartean dauden egunak kontutan hartuta, eta txartela ematen den egunean bertan zorpidetuko da".* Arau hau egoiliarren txartelei zein merkatarien txartelei aplikatzen zaie.

3.- Ondorioa

Tasa eta bere sortzapena arautzen dituen Ordenantza kontuan hartuta (sortzapena erabat baztertzen du), kasu honetan ezin da TAO eremu bateko lekuak eta kaleak aldatu izanagatik Udala murrizketak eta hainbanaketa egitera behartuko duen erreklamazio juridikorik ezarri.

Tasa likidatu eta gero hainbat TAO eremutan bidegabekeriak gertatzen badira ere, libre dauden leku kopurua aldatzeagatik diru-murrizketak egiteko zailtasun administratibo eta praktikoak daude.

Edonola ere, urte naturala igaro ondoren, herritarrak TAO tasa berritzeari uko egin ahal dio.

- Isuna eta desobedientzia (erreg. zk.: 1701/12)

Aurkezpena

Erabiltzaile bat etorri zaigu esanez bigarren ilaran aparkatzeagatik eta desobeditzeagatik salatu egin dutela; haren ustez, ordea, ez zien agenteen aginduei desobeditu.

Azterketa eta Ebazpena

Udalaren txosten bat jaso dugu, eta, horren arabera, gidariak ez zien inolako kasurik egin agentearen aginduei. EZESPENA.

- Isuna: telefono mugikorretik hitz egitea (erreg. zk: 1734/12)

Aurkezpena

Erabiltzaile batek zera salatu digu, bere emazteari isuna jarri ziotela telefono mugikorretik hitz egiteagatik eta gidaria ez zutelako behar bezala identifikatu, trafikoaren zirkunstantziak zirela medio.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzailearekin bildu ginen, eta, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, zera adierazi genion, agentearen

lekuko-froga egokitzen jotzen zela, eta horrenbestez isuna ezartzeko datuak zuzenak zirela.

- Alaba jeneralaren kalea oinezkoentzat egitea (erreg. zk.: 1741/12)

Aurkezpena

Alaba Jeneralaren kalean bizi den herritar bati zera jakinarazi diote, eremu horretan ibilgailuak igarotzeko murrizketak ezarriko dituztela, eta horregatik etorri zaigu, kortesiazko jakinarazpen horiekin ados ez dagoela adierazteko.

Azterketa eta Ebazpena

Herritarrarekin bildu ginen eta zera jakinarazi genion, ordenantza bat indarrean dagoela ibilgailuak oinezko eremuetatik zer kasutan igaro daitezkeen arautzeko. Alabaina, ordenantza horrek ez ditu egoiliarrei buruzko ordenantza biltzen, eta, talde politiko guztiek babestutako erabakia izaki, guk ez daukagu horretan esku hartzeko aukera.

- Isuna: zirkulazio bidean aparkatzea (erreg. zk.: 1718/06)

Aurkezpena

Erabiltzaile batek uste du "zirkulazio-bidean aparkatu eta biratzea galarazteagatik" ezarri dioten isuna ez dela bidezkoa.

Azterketa eta Ebazpena

Zure kexa aztertu dugu eta arau-haustearen tokia ikuskatu. Egia da galtzada toki horretan zabala izanik ibilgailu askok bertan aparkatzeko bizioa hartu dutela, baina berez,

ibilgailuek debekatuta dute bertan aparkatzea. Udaltzainek erabilitako irizpideak legezkoak dira eta beraz erabilezinak; biribilgune batean aparkatu zuen ibilgailuak, eta bertan ezin daiteke aparkatu zirkulazio-kodearen arabera. Tokiak seinale bertikalik ez badu ere, biribilgunea izaki debekua orokorra da, eta aparkatzeko markarik ere ez dauka. Kasu honetan, guztietan bezala, "Legearen berri ez izatea ez da aitzakia Legea ez betetzeko", eta moralki ulertzekoa bada ere litekeena dela erabiltzaileak huts egin izana zirkunstantziak zirela-eta, ezin dugu gomendatu legez egindako salaketa bat bertan behera uztea. EZESPENA.

- Isuna: epailea eta parte (erreg. zk.:1720/12).

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek ***Udalaren aurrean defentsarik gabe dagoela salatu du, udalari epaile eta parte gisa jardutea leporatuta "segurtasun kolektiboa asaldatzeagatik edo bide, gune edo establezimendu publikoetan zalaparta sortzeagatik"*** ezarritako isuna dela-eta.

2.- Arazoaren azterketa

Ildo horretan zera eman nahi dugu aditzera, Udalak, kasu horietan, Legeak ematen dizkion eskumenak betez jarduten duela.

Prozedura zigortzaile honen esparruan, Administrazioak inpartzialtasunaren oinarrizko printzipioa ere bete behar du, benetako egia bilatzeko prozesu horretan, erabakiak hartzerakoan Administrazioak objektibotasunez jarduten duela ziurtatzeko, eta, halaber, administratuen eskubide subjektiboak eta interes legitimoak guztiz errespetatzen dituela bermatzeko.

Eskatzaileak egintza deuseztatu nahi du, baina hori deuseztatzea gertatzen denean justifika daiteke bakarrik, hau da, eskubide edo interes legitimoak defendatzeko argudioak baliatzeko edo froga-bide egokiak erabiltzeko aukera galtzen bada, ea kasu honetan ez da horrelakorik ikusten, administrazio-bideak ez duelako inolako mugarik jarri defentsa-eskubidea gauzatzeko. Eta defentsa-gabezia gerta zitekeen alegazioei buruzko izapidean, baina hori zuzendu egin zen 2012/03/29ko berraztertzeako errekurtsuari erantzuteko jakinarazpenean.

Kasu honetan esan dezakegu administrazio-jarduera proportzionala izan dela salatutako gertakariak aintzat hartuta, agintaritzaren agenteak bere eginkizunak betez osatutako egozketa-froga tarteko.

3.- Ebazpena

Sindikoaren edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz kasu honetan aldeko ebazpenik ematerik ez dugula jakinarazten diogu.

- Isuna: epailea eta parte (erreg. zk.:1720/12).

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek ***Udalaren aurrean defentsarik gabe dagoela salatu du, udalari epaile eta parte gisa jardutea leporatuta "segurtasun kolektiboa asaldatzeagatik edo bide, gune edo establezimendu publikoetan zalaparta sortzeagatik"*** ezarritako isuna dela-eta.

2.- Arazoaren azterketa

Ildo horretan zera eman nahi dugu aditzera, Udalak, kasu horietan, Legeak ematen dizkion eskumenak betez jarduten duela.

Prozedura zigortzaile honen esparruan, Administrazioak inpartzialtasunaren oinarrizko printzipioa ere bete behar du, benetako egia bilatzeko prozesu horretan, erabakiak hartzerakoan Administrazioak objektibotasunez jarduten duela ziurtatzeko, eta, halaber, administratuen eskubide subjektiboak eta interes legitimoak guztiz errespetatzen dituela bermatzeko.

Eskatzaileak egintza deuseztatu nahi du, baina hori deuseztatzea gertatzen denean justifika daiteke bakarrik, hau da, eskubide edo interes legitimoak defendatzeko argudioak baliatzeko edo froga-bide egokiak erabiltzeko aukera galtzen bada, ea kasu honetan ez da horrelakorik ikusten, administrazio-bideak ez duelako inolako mugarik jarri defentsa-eskubidea gauzatzeko. Eta defentsa-gabezia gerta zitekeen alegazioei buruzko izapidean, baina hori zuzendu egin zen 2012/03/29ko berraztertze errekurtsoari erantzuteko jakinarazpenean.

Kasu honetan esan dezakegu administrazio-jarduera proportzionala izan dela salatutako gertakariak aintzat hartuta, agintaritzaren agenteak bere eginkizunak betez osatutako egozketa-froga tarteko.

3.- Ebazpena

Sindikoaaren edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz kasu honetan aldeko ebazpenik ematerik ez dugula jakinarazten diogu.

- Irristailuen zarata, Sefarad plazan (erreg. zk.: 1721/12)

Erreklamazioa

Irristailuek Sefarad plazan sortzen duten zaratak enbarazu egiten diola eta, kexa aurkeztu du erabiltzaile batek, hara jotzen baitu bere etxebizitzaren atzeko fatxadak.

Azterketa

Adierazi diogu erabat funtsezkoa dela aurkeztu duen kexa. Izan ere, irristailuek Sefarad plaza baliatzea jolas eta lehia lekutzat ez da bateragarri leku hori oinezkoentzako pasealeku eta igarobide gisa baliatzearekin.

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzak arau oso bat eskaintzen dio irristailuekin ibil daitekeen lekuak zein diren argitzeari. 'Zirkulatzeaz' dihardu, hain zuzen ere, zirkulazio elementu gisa erabiltzeaz ari baita, ez, inondik ere, bestelako erabilerez:

11.4. artikuluan honela dago jasota:

11.4.- Bizikleta, irristailu eta trizikloek halakoentzat diren karriletan barrena zirkulatu beharko dute eta, halakorik ezean, oinezkoen alderdietan barrena egin ahal izango dute (espaloiak, nasak eta ibiltokiak barne), baldin eta oinezkoen joan-etorriak galarazten ez badu, eta beti ere horiek duten lehentasuna errespetatzen dela eta abaila motelean joanez.

Ulertzen dugu, bada, oinezkoentzako eremua irristailuen jolas, lehia eta erakustaldietarako leku gisa baliatzea ez dela bateragarri Sefarad plazaren gainerako erabilerekin. Hirian eta auzoan badira irristailuentzako entrenamendu eta jolas pistak, eta, horrenbestez, jakinaren gainean jarri ditugu Udaltzaingoko arduradunak, debekua betearaz dezaten, eta, behar izanez gero, arau-hausleak salatu eta zigortu. Egoera zertan den zainduko dugu, behar bezain laster konpontzen dela ziurtatze aldera.

Irristailuek leku hori erabil ez dezaten oztopo fisikoak jartzeko proposamenari dagokionez –hala nola lurreko zerrendak, sakanguneak edo beste–, une honetan aurrekontu eskasia handia bizi

du udalak, eta zail egiten du horrek proposamena ongi hartua izatea, ez ezegokia delako, baliabiderik ez dagoelako baizik.

Nolanahi ere, horrelako neurri baten benetako kostua eta plazan izango lukeen eragin estetikoa zehazteko balio lezakeen edozein informazio osagarri ematerik izanez gero, baliagarri izango zaigu gomendio zehatzago bat egiteko.

Oraingoz ezin dugu urrunago joan gure jardueran, baina, berriro diogu, bestelako informazio osagarriak jasotzeko prest gaude, eta horren haritik geroa gomendioren bat egiteko.

Ebazpena

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU kexa.

- Isuna TAO tiketik gabe aparkatzeagatik (erreg. zk.: 1759/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, TAOko agente batek isuna jarri diola TAOko tiketik gabe aparkatzeagatik lagun desgaitu baten bila joateko.

Azterketa eta ebazpena

Zera jakinarazi diogu, isuna ongi jarri diotela. HAREN ESKAERA EZETSI DUGU

- Isuna bizikletan bidaiari bat eramateagatik (erreg. zk.: 1783/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera adierazi digu, agente batek isuna ezarri ziola bere bizikletan beste bidaiari bat eramateagatik, eta isun horrekin ados ez dagoela.

Azterketa eta ebazpena

Bulegoan bildu ginen erabiltzailearekin, eta zera jakinarazi genion, zirkulazio-kodean jasota dagoela isun hori, 1428/03 Errege Dekretuaren 12.2 artikuluan, eta, horren arabera, isuna bidezkoa zela. HAREN ESKAERA EZETSI EGIN DUGU

- Herritarrak oinezkoen eremuan sartzea (erreg. zk.: 1777/12)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu etorri zaigu salatzeko udaltzainek zenbait datu eskatu dizkiotela Postetxeko aparkalekuan duen garaje-plazan sartzeko baimena emateko. Eskaera horrekin EZ DAGOELA ADOS adierazi digu.

Azterketa eta Ebazpena

Bulegoan bildu ginenean zera adierazi zigun, zenbait herritarren proposamenari erantzunez, Udalak Postetxeko aparkalekuan duen garajeen Andre Maria Zuriaren plazatik sartzeko aukera emateko erabakia hartua zuela, baina horretarako zenbait datu eman behar zituela, hala nola plazaren titularra, plazaren zenbakia, ibilgailuaren matrikula eta abar. Dioenez, eskatutako datuak ematea ez zaio bidezkoa iruditzen, datuak babesteko arrazoiak direla-eta.

Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Legeak datuen kalitate-printzipioa biltzen du bere printzipio orokorren artean, eta printzipio horren eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera, datu horiek bat etorri behar dute bilketa eragin duen helburuarekin.

Kasu honetan, eskatutako datuak bat datoz Andre Maria Zuriaren plazatik ibilgailuen sarrera erabiltzeko zorrotz mugatzeko helburuarekin, eta ez da, inondik inora, datuak babestearen ikuspegitik bereziki babestekoa den daturik eskatzen.

Kasu honetan, Legeak ezarritakoaren arabera jardun du Administrazioak, eta lortu beharreko helburua lortzeko funtsezkoak diren datuak eskatu ditu bakarrik.

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU eskaera.

- Zebra-bideetan eta aparkatzea debekatua dagoen tokietan radar-autoak jartzea. (erreg. zk.: 1758 / 12)

Erreklamazioa

“Zebra-bideetan eta aparkatzea debekatua dagoen tokietan radar-autoak jarri izana salatu du” erabiltzaile batek.

Azterketa eta Ebazpena

Jakinarazi behar diogu, kasu horietan, MARTXOAREN 2ko 339/1990 ERREGE LEGE DEKRETUAK ONARTUTAKO TRAFIKOARI, MOTOR IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDE SEGURTASUNARI BURUZKO LEGEAREN TESTU ARTIKULATUA APLIKATU ETA GARATZEKO ZIRKULAZIO ERREGELAMENDU OROKORRA ONARTZEN DUEN AZAROAREN 21eko 1428/2003 ERREGE DEKRETUA aplikatu behar dela.

68. artikulua. *Lehentasunezko ibilgailuetako gidarien eskumenak.*

1. Lehentasunezko ibilgailuetako gidariek honako erregelamendu honetan jasotako aginduak bete beharko dituzte,

baina, baldin eta aldez aurretik egiaztatu badute bidearen erabiltzaile bat ere ez dutela arriskuan jarriko, Erregelamendu honetako II., III. eta IV. Tituluetako arauak bete gabe uzteko aukera izango dute, erabaki horren gaineko erantzukizun osoa bere gain hartuz, udaltzainen agindu eta seinaleak betiere bete beharko dituztela kontuan hartuta.

Salbuespenez, ibilgailu horietako gidariek aukera izango dute, halaber, autobidetik edo autobiatik presazko zerbitzu bat ematen ari direnean eta erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jarri gabe, bira-erdia emateko edo atzera egiteko, errepideari dagokionaren kontrako noranzkoan ibiltzeko (bazterbidetik betiere), edo erdibitzailean edo erdibitzailearen zeharkako pasabideetan barneratzeko.

TRAFIKOA ZAINTEKO, ARAUTZEKO ETA KONTROLATZEKO ARDURA DUEN AGINTARITZAREN AGENTEAK aukera izango dute beren ibilgailuak bidean behar duten tokian jartzeko, baldin eta bidearen erabiltzaileei zerbitzua eman behar badiete edo ZERBITZUAREN edo zirkulazioaren PREMIEK HORRELAKORIK ESKATZEN BADUTE. Gainera, kasuan kasu erabakiko dute larrialdietako ibilgailuak edo beste zerbitzu berezi batzuetakoak non kokatu behar dituzten.

Gure ustez, Udal Administrazioak Zuzenbideari jarraiki jardun du gai horretan, eta horregatik, zoritxarrez, zure kexa ezin dugu aintzat hartu.

b) Gomendioa

- Dosier zigortzailea ustezko arau-haustea dela eta (erreg. zk. 1704 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Auzoko batek azaldu digu 2012ko martxoaren xxan ebazpen bat jaso zuela, zeinaren bidez haren kontra dossier zigortzailea abiarazten baita Herritarren Segurtasunari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa ustez hausteagatik.

Dosierrak Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen 26.h eta 26.i artikulua ustez hautsi izana aipatzen du, "*agenteei ez obeditzeagatik*" eta "*segurtasun kolektiboa asaldatzeagatik*".

Gertaera berak direla eta 0/xxxxxx Exxxxxx 2012/xxxxxx erreferentziako salaketa jaso zuen, agenteen aginduei ez obeditzeagatik.

Hona hemen gertatukoaren laburpena: manifestazio bat zela kausa kalea itxita zegoen, baina bukatzen ari zelarik kalea libre geratu zen, beraz, agente bati eskatu zion igarotzen utz ziezaion garajera sartzeko, eta Udaltzaingoak beti igarotzen uzten ziola esanez saiatu zen berriro. Salaketa egin zuen agenteak gaizki hartu zuen hori, eta desobedientzia leporatu zion; ondorioz, HIRU salaketa egin zituen haren kontra, bat trafikoaren alorrekoa, "agenteen aginduak ez betetzeagatik", eta beste bi Herritarren Segurtasunaren Legea aplikatuz, "segurtasun kolektiboa asaldatzeagatik" eta "desordena publikoengatik".

2.- Arazoaren azterketa

Bis in idem

Gure ustez, dossier zigortzaileak BIS IN IDEM ezarri nahi du, alegia, dagoeneko zigortutako arau-haustea zigortu nahi du berriro, eta horrek zigor zuzenbidearen berme orokorrak urratzen ditu.

Gure zuzenbidearen oinarritzko printzipioa da ezin dela dagoeneko zigortutako gertaerengatik zigor bikoitza ezarri, inguruabar hauek gertatzen badira:

1) Identitate subjektiboa. Horrek esan nahi du eragindako subjektua bera izan behar dela, epaitzen duen administrazioaren edo epailearen izaera edo agintea edozein delarik, salatzailea edo ebatzi duen organo zehatza edozein delarik, eta dena delakoa bakarka edo beste batzuekin batera epaitzen den ala ez.

2) Identitate faktikoa. Horrek esan nahi du epaitutako gertaerak berak direla, eta baztertu egiten ditu arau-hausteen pilaketa errealaren kasuak, horiek ez baitagozkio gertaera juridiko bakarrari, batzuei baizik. Auzitegi Konstituzionalaren 1990eko azaroaren 10eko epaiak zehazten duenez: *"es indudable que el principio non bis in idem no resulta vulnerado cuando las penas se aplican por acciones típicas diversas. La punibilidad acumulativa que se fundamenta en un concurso real de delitos no determina vulneración alguna de este principio precisamente por la diversidad de acciones sancionadas"*.

3) Oinarriaren edo kausaren identitatea. Horrek esan nahi du neurri zigortzaileak ezin direla pilatu izaera berari badagozkio, hau da, oinarri teleologiko bera badute. Gertaera berak eragindako ondasun juridikoak heterogeneoak badira, oinarriak ere askotarikoak izango dira, eta egintza bera bi aldiz zigortu ahalko da (Auzitegi Goreneko 3. aretoaren 1990eko urtarrilaren 21eko epaia, zeinean

jurisdikzio penalean osasun publikoaren aurkako delituarengatik kondena ezarri baitzen, eta gobernu aginteak droga saltzen zen aretoa ixteko zigorra ezarri, bigarren kasuan helburua delituaren prebentzioa baita, drogen komertzioa zabal dadin eragotzi eta hura desagerrarazteko asmoz).

Beste adibide batzuk:

- Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Hirugarren Salak (4. sekzioa), 2001eko uztailaren 12an emandako epaia, 428/1996 zk.

Langile baten heriotza dela eta ingeniariari zigor penala eta eraikuntza enpresari zigor administratiboa, ez baitzen antzeman non bis in idem printzipioaren urratzerik.

- Auzitegi Nagusiko Zigor Arloko Salak (1. sekzioa), 2007ko urtarrilaren 11n emandako epaia, 1908/2006 errekurtsio zenbakia:

“Ha sido reiteradamente declarado por la doctrina del Tribunal Constitucional (3154/90 de 14 de octubre que la denominada excepción de cosa juzgada es una consecuencia inherente al principio «non bis in idem», el cual ha de estimarse implícitamente incluido en el artículo 25 de la Constitución como íntimamente ligado a los principios de legalidad y de tipicidad de las infracciones, principio que se configura como un derecho fundamental del condenado, y que impide castigar doblemente por un mismo delito. Por otra parte, la doctrina de esta Sala, en orden a la estimación de cosa juzgada ha venido restringiendo los requisitos clásicos de identidad subjetiva, objetiva y causa de pedir, a los dos primeros, prescindiendo del título de imputación o calificación jurídica que pueda atribuirse a unos concretos hechos. Los requisitos son: i. identidad subjetiva (“eadem

persona") que en nuestro caso no plantea problemas, ya que ambas resoluciones se refieren a Sergio. ii. identidad objetiva ("eadem res"), iguales hechos, susceptibles de integrar uno u otro delito. Juzgado por ellos el acusado no podrá de nuevo seguirse procedimiento sobre los mismos hechos contra él en razón a otra tipificación jurídico-penal". (Auzitegi Gorenaren maiatzaren 27ko 622/2005 eta maiatzaren 10eko 505 /2006 epaiak).

Zer dira segurtasun kolektiboa asaldatzea eta desordena publikoa?

Bestetik, udaltzainaren salaketak beste arau-hauste bat –arina– eransten du, 300 eurorainoko isuna izan dezakeena, "**segurtasun kolektiboa asaldatzea**" eta "**desordena publikoa**" hitzen bidez adierazitakoa. Salaketa egiten duten agenteek ezin dute arbitrarioki hedatu segurtasun kolektiboaren kontzeptua, nolabaiteko garrantzia duen ARRISKU ZIURRA dakarren jarduera bati baitagokio definizioa, hau da, arau-haustea pertsonen osotasunari, bizikidetzak baketsuari edo indarkeria deuseztatzeari, bide eta espazio publikoen erabilera normalizatuari edo delitu eta falten prebentzioari eragiten dion ala ez.

Salatzaileak jasotzen duen kontaketa ez da horrekin lotutako zirkunstantziarik, hau da, zuzenean edo zeharka segurtasun kolektiborako arriskurik edo desordena publikoa dakarrenik.

3.- Ondorioak

Adierazitako guztia eta alegazioak aintzat harturik, errespetu guztiarekin, bi GOMENDIO egin nahi ditut:

1.- Aztergai dugun kasuari dagokionez, salaketa bertan behera uzteko eskatzen dut, eta prozedura artxibatu dadin, uste baitut,

batetik, bis in idem zigortu nahi dela, eta bestetik, segurtasun kolektiboaren eta desordena publikoaren kontzeptuak bidegabe erabiltzen direla.

2.- Udaltzainek "segurtasun kolektiboa asaldatzea" eta "desordena publikoak" arau-haustekak direla eta -arinak izan arren-salaketak jartzeari dagokionez, GOMENDATZEN DUGU horrelako salaketak bideratzeko pertsona edo ondasunek izan dezaketen arrisku zuzena edo zeharkakoa egiaztatu dezaten, edo espazio publikoaren erabilera normalizatuari eragin diezaiokeen aparteko gertaeren bat. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

- Isuna desgaituentzako eremuan aparkatzeagatik. Txartelaren ikuspena (erreg. zk.: 1672 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek eskaera egin digu 0/xxxxxxx Exxxx 2011/xxxxxx salaketa-buletinari dagokionez.

TAOko agente batek 2011ko uztailaren xx(e[a])n salatu zuen bere borondatez, mugikortasun urrituko desgaituentzat erreserbatutako eremu batean aparkatzeagatik; alabaina, salatuak % 35eko minusbaliotasun-maila onartua du 1999ko irailaren 29az geroztik, eta hori egiaztatzen duen txartela badu [**1. eta 2. eranskinak**], baita desgaitasunaren nazioarteko logoa ere.

Argi dago salaketa hutsegite baten ondorio izan dela, ibilgailuaren haizetakoan txartela ikusgai zegoelako. Nolanahi ere, eguzkiaren eraginez txartela ez hondatzeko eta kolorea ez galtzeko, edergarriaren gainean jarri beharrean, gidariaren eguzki-babesari atxikia zeraman, eta litekeena da salatzaileak arrazoi horrengatik ikusi ez izana.

2.- Arazoaren azterketa

Erreklamatzailleak aurkeztutako egiaztagiriek argi uzten dute hala dela, hau da, pertsona horri minusbaliotasun-maila jakin bat onartu zaiola, eta horrek eskubidea ematen diola erreserbatutako aparkalekuko txartelaren jabe izateko (gainera, txartel horren jabe da).

Arau-hauste bat salatu dute pertsona batek, mugikortasuna urritua eduki gabe, mugikortasun urritua duten pertsonentzat erreserbatutako eremu batean aparkatu duelako. Gure kasuan, pertsona horrek mugikortasun urritua duela eta dagokion txartelaren jabe dela egiaztatu du, eta horregatik salaketa aurkeztu du. Auziak giza hutsegite baten ondorio behar du, txartela haizetakoaren goialdean zegoelako seguruenik.

Azpimarratzekoa, da batetik, ezarritako zigorra handia dela, 200 eurokoa, eta, bestetik, frogatuta dagoela salatuak erreserbatutako eremuetan aparkatzeko eskubidea duela.

3.- Ondorioak

Horregatik guztiagatik GOMENDATZEN DUGU, salatuak alegatutakoa aintzat hartuta, erreferentziazko salaketa bertan behera uzteko, argi geratu delako salatuak ez zuela inolako arau-hausterik egin.

- Bizikleta-biltegia (erreg. zk.: 1670 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek kexa bat aurkeztu digu, eta jarraian laburtu egingo dut:

"2009ko urriaren xx(e)an bizikleta lapurtu zidaten nire lantokiaren aurreko aparkalekutik (Leroy Merlin El Boulevard merkataritza-zentroan), 14:30etik 20:00etara bitarteko tartean, eta poliziak horrela jaso zuen, xx zenbakiko agenteak 7/xxxx/09-0 atestatu-zenbakiarekin 2009/09/xx(e)an aurkeztutako salaketan (salaketaren kopia aurkeztu da).

Nire anaiak, xx xxx xxx jaunak, nire bizikleta ezagutu zuen Gasteizko erdigunean, zehazkiago San Prudentzio kalean, bizikletan ezarritako pieza espezifiko batzuei erreparatuta, eta horrenbestez, larunbat batean, 22:00etan gutxi gorabehera, hirigunera joan nintzen, udaltzaingoari deitu ondoren bizikleta berreskuratzeko zer egin behar nuen galdetzeko. Nire deiari erantzunez, zera esan zidaten, toki horretara joateko nire bizikleta zela egiaztatzeko, eta udal-zerbitzuari berriz ere ohartarazteko. Behin toki horretara iritsita udaltzainei bertaratzeko eskatu genien, eta haiek iritsi eta lanean jarri ziren udalaren garabi-zerbitzuarekin batera, ibilgailua udal-dependenzietara eramateko. Udaltzainekin adostu genuen bizikleta jasotzeko denbora-tarte bat itxaroteko, jabe bidegabea horren bila etor litekeelako, eta, horrela, hura nor zen jakiteko eta lapurretaren ondoriozko kalte-ordainak eskatzeko aukera egon litekeelako.

Hilabeteko itxaronaldiaren ondoren, 2009ko abenduan nire bizikleta jasotzeko lehen ahalegina egin nuen, eta ordu eta erdi zain eman ondoren horrelako ibilgailuak zaintzeko duten biltegiara eraman ninduten. Bertan, nire bizikleta ikusi nuen, baina giltzarrapo finkoa zeraman, nik kendu ezin nezakeena, eta udaltzain adeitsu batek egun horretan bertan askatuko zuela adierazi zidan, eta jarraian hots egingo zidala. Zoritxarrez, ez zuen horrelakorik egin.

Bi hilabete igaro ziren, eta azkenean, nire betebeharrak familiar eta profesionaletatik aske, "nire bizikleta" berreskuratzeko bigarren ahalegina egin nuen. Udaltzainak berriz ere bizikleta bertan zegoela ohartu ziren eta barkamena eskatu zidaten; jarraian, beste gazte batek konponbide berbera proposatu zidan, baina tamalez bigarrean ere asmo hori ez zuen bete.

Eta horrela 5 aldiz. Bosgarrenean, udaltzain batek, oker ez banago xxxx edo xxxx zenbakia zeramanak, 2011ko martxoan jakinarazi zidan nire ibilgailua erregistro informatikoan jasota ez zegoela, eta horrenbestez beste behin ere bizikleta-biltegira jo genuen; bertan, biltegia goitik behera arakatu ondoren, anaiak eta biok ez genuen nire bizikletaren inolako arrastorik ikusi.

Udaltzainak zera adierazi zidan, denbora jakin bat igarotzean ibilgailuak baztertu, zatikatu eta deuseztatu egiten dituztela; une horretan, horren harira, zera galdetu nion, ea ez ote zituzten txostenen batean jaso nik bizikleta handik eramateko egindako ahaleginak, eta hark ezetz erantzun zidan.

Azkenean, eta ia bi urte pasa ondoren, arduradunak deitu zidan, erreklamazio hori ondare-erantzukizuneko zerbitzuari bidalia ziola jakinarazteko. Arduradun hori nirekin harremanetan jarri zen, 2011ko urriaren xx(e[a])n gutun bat jaso ondoren (ohartu nintzenez, gutunak 2011/09/xx(e)ko data zeraman).

2.- Arazoaren azterketa

Erreklamatzailleak gertaerei buruz adierazi duena ikusita, argi dago Udaltzaingoaren lapurtutako edo galdutako bizikleten biltegiaren funtzionamendua eskasa dela. Izan ere, interesdunari esker,

lapurtutako bizikleta bat aurkitu eta berreskuratu zen, eta esan beharra dago hori ez dela batere erraza, eta, behin Agirrelandako bizikleta-biltegian gorde eta gero, eta interesduna behin eta berriz bertaratu bazen ere, Udaltzaingoa ez zen gauza izan bizikleta legezko jabearen eskuetara itzultzeko. Hortaz, ez dago esaterik biltegi horren funtzionamendua onargarria denik. Berandutze hori justifikatu nahi bada erreklamatzailerak benetako jabea zela egiaztatu beharra zegoela esanez, gure ustez sistemak bizkorragoa eta malguagoa beharko luke, dagozkion dokumentuak aurkeztuz. Alabaina, kasu gehienetan litekeena dela inolako dokumentaziorik ez izatea, eta horrelakoetan nahikoa litzateke administrazio-agiri bat egitea, ZINPEKO AITORPEN bat alegia, erreklamatzailerak identifikatuz, eta horrela, hirugarren bat agertuko balitz bizikletaren benetako jabetza erreklamatzeko, agiri publikoa faltsutzea edo bidegabeko jabetzea egozteko aukera izango litzateke.

Nolanahi ere, onartezina da berreskuratutako ehunka bizikleta Udaltzaingoaren zaintzapean biltegiratuta egotea bizikleta horien legezko jabeek bizikletak berreskuratzeko erraztasunak eman gabe, are gutxiago azkenean desegin behar dituztela kontuan hartuta.

3.- Ondorioak

GOMENDATZEN DUGU lapurtutako bizikletak itzultzeko sistema bizkorrago eta proaktiboago bat arbitratzeko, hala badagokio erreklamatzaileraren ZINPEKO AITORPENA bilduko duena nahikoa den titulu gisa, Udaltzaingoaren zaintzapean biltegiratutako bizikletak berreskuratzeko, erantsitako ereduaren edo antzeko beste baten arabera. [1. eranskina]

Gure ustez, funtzionamendu horrek zera ematen du aditzera, kausalitate-erlazioa badagoela herritar-segurtasunaren zerbitzu publikoaren eta erreklamatzailerak pairatutako kalte ekonomikoaren artean, eta hori kontuan hartu beharko da Ondare Erantzukizuneko Unitatean dagokion erreklamazioa aurkeztean.

- Tabernen ordutegia kontrolatzea (erreg. zk.: 55 / 12 OFIZIOA)

1.- Arazoaren Aurkezpena

Herritar asko etorri da gure bulegora gaueko jarduerak eragindako enbarazuen inguruko kexa aurkeztera. Egoerak okerrera egin ote dezakeen beldur dira, izan ere hiriko taberna eta pubak ixteko ordua luzatu egingo baita.

2.- Azterketa

Eusko Jaurlaritzak arautu egin ditu berriz ordutegiak eta honek aldatu egin du Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta gainerako aisialdiko jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituen abenduaren 16ko Dekretuaren 2. artikulua. Honela geratu da aipatutako artikulua hori:

2. artikulua.- Ostalaritza eta ikuskizun publikoetako lokalak

Ondorengo zerrendan ageri diren ostalaritza eta ikuskizun publikoetarako lokal eta instalazio finkoek, establezimendua jartzeko udal-baimenetan zehazten diren jardueren arabera, honako ordutegi orokor hau izango dute ixteko, zergei dagokienez aitortzen duten jarduera edozein delarik ere:

1. multzoa.- Berariaz adin txikikoentzat baimendutako lokalak eta instalazioak, edo alkoholik gabeko edariak eta janariak saltzeko baimena dutenak, baina sukaldaritza-jarduerarik gabeak, hala nola:

Gazteentzako dantzalekuak, gazteentzako diskotekak, dastalekuak, izozki-dendak, txokolategiak, txurro eta kruasandendak, tea hartzeko aretoak eta antzekoak **23:00**.

2. multzoa.- Edari alkoholodunak saltzeko eta sukaldaritza-jarduerak gauzatzeko baimena duten lokalak eta instalazioak, hala nola:

Edaritegiak, ardandegiak, tabernak, kafetegi-tabernak, snackak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, gastronomia-elkarteak, sagardotegiak eta antzekoak: **01:00**.

3. multzoa.- Jarduera berezi gisa, musika jar dezaketen baina dantzarako pistarik ez duten lokalak eta instalazioak, hala nola:

Taberna bereziak, whisky-tabernak, klubak, barra amerikarrak, pubak, disko-barrak, karaokeak eta antzekoak: 02:30.

4. multzoa.- Musika eta dantzarako pista edukitzeko edo ikuskizunak eskaintzeko baimena duten lokal eta instalazioak, hala nola:

Festa-aretoak, dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak eskaintzen dituzten jatetxeak eta antzekoak: **04:30**.

Aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen eta gainerako aisialdiko jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk arautzen dituen abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 12. artikulua. Honela geratzen da:

1. Udal-agintariek aurreikusitako ordutegia gehienez bi orduz luzatu ahal izateko ahalmena izango dute, zaindariaren jaiak eta beste jai edo interes turistikoa duten beste gertakari batzuk direla-eta, betiere dagokion urte naturalerako udal bakoitzak onartu beharko duen egutegiaren arabera.

2. Ondorio horietarako, udalak onartutako egutegiak gertaera eta data hauek jaso ahalko ditu:

Zaindariaren jaiak, hau da, udal bakoitzak bere udalerrian ofizialki ezarritako jaiak.

Aste Santuko ostegunetik astelehenera; Inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra arte Gabonetan.

Udalak berak edo Autonomia Erkidegoko organo eskudunak jaitzat hartutako edo interes turistikoa dutela iritzitako beste gertakizun batzuk ospatzeko data zehatzak, hala nola ospakizun publikoak, auzoko jaiak, gertakari sozialak, azokak, lehiaketak, erakusketak edo antzeko beste batzuk, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko muga dagoela.

3. Aurreko paragrafoan ezarritako urteko egutegirako aurreikusitakoa alde batera utzi gabe, udalak ordutegi orokorra ere luzatu ahalko du gehienez bi orduz, urte natural bakoitzeko hamabost eguneko gehienezko muga dagoela, aurreikus ez daitezkeen ezohiko

inguruabarren arabera eta aurreko paragrafoan aurreikusitako gertaeren izaera bereko gertaerei loturik.

4. Behin urteko egutegia indarrean egonez gero, eta udalak hurrengo ekitaldietan horretarako berariazko ebazpenik ematen ez duen bitartean, luzatutzat joko da hurrengo ekitaldietarako, betiere urte naturaleko datetarako behar diren moldaketak eginda.

5. Auzoetako jaiak edo udalerraren barruko lurralde-eremu batera mugatutako gertaerak izanez gero, udalak erabaki ahalko du ordutegi berezia udalerriko lurralde-eremu jakin batera mugatzea.

6. Artikulu honetan aipatutako ordutegi-luzapenez erabakia hartzeko, udalek aukera izango dute lokalei neurri zuzentzaile bereziak eskatzeko; esate baterako, gehiegizko zarata- edo bibrazio-maila kontrolatu, arindu edo ezerezean uzteko gailuak instalatzeko eginbeharra.

7. Udalak Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio aurreko idatz-zatien arabera hartutako ordutegi berezia. Gainera, ordutegia aplikatzeko eremua eta datak zehaztuko ditu; baita ordutegi horrek, hala egokituz gero, eragingo dituen mugapenak ere.

8. Udal-agintariek lokalen kanpoaldean terrazak edo antzekoak jartzeko lizentzia bereziak eman dituzten kasuetan, udalak berak instalazio horietarako ezarri dituen ixteko ordutegiak bete beharko dira, betiere Dekretu honetan ezarritako mugen barruan eta hirugarrenei eragozpenik sortu gabe.

Ordutegia LUZATZEAK eragindako egoera berria dela-eta, kategorien arabera ezarritako ordutegiak zehatz-mehatz betetzen direla bermatze aldera, gaur inoiz baino

beharrezkoagoa da ikuskatzen eta isunak jartzen ahalegin berezia egitea.

Herritarren eskubideak defendatzen ditugun erakundea garen aldetik, polizien jarduna gomendatzea dagokigu hainbat alderdi azter ditzaten: ixteko ordutegia behin eta berriz ez den errespetatzen, baimendutako gehieneko soinu-mailak errespetatzen diren eta ate bikoitzak erabiltzen diren. Izan ere, horrek guztiak bizilagunek duten atsedenerako eskubidea larriki urratzen baitu. Eskubide hori Konstituzioan jasota dago, egoitzaren intimitaterako eskubidearen urratzea eta osasunari kalte egitea berekin dakarren aldetik, eta badago eskubide horiek babesten dituen jurisprudentzia zibil eta penalik.

Ordutegiak aldatzeko Dekretu hau tarteko, Udalek luzatu egin ahalko dute ixteko ordutegia, gehienez ere bi orduz, jai nagusietan, inauterietan (ostegunetik asteartera), Gabonetan (abenduarien 15etik urtarrilaren 6ra) eta Aste Santuan (ostegunetik astelehenera). Horietaz gain, baita interes turistikoa duten jai eta ekitaldietan ere, gehienez 15 egunez urtean.

36/2012 Dekretuak ordutegi-aldaketa udalerrri bateko hainbat gune eta auzotara mugatzea aurreikusten du, programazioaren beharretara egokituz.

Horiez gain, Udalek beste 15 egunetan ere luzatu ahal izango dituzte ordutegiak (aurreko Dekretuaren arabera 10 ziren), baldin eta ezohiko inguruabarrak edo aurreikus ez daitezkeen egoerak badaude. Urteko HAMABOST EGUN horietan Udalak ordutegia BI ORDUZ luzatzeko ahalmena du.

Horrenbestez, gomendio hau egiten dugu.

3.- Gomendioak

2001eko irailaren 28ko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian finkatutakoaren ildotik, udako denboraldiari begira hiru astez tabernekin eta aisialdirako lokalekin OSTEGUNEAN, OSTIRALEAN ETA LARUNBATEAN, ETA IXTEKO EZARRIA DUEN ORDUTEGIAREN INGURUAN, ordutegia benetan BETETZEN DUTEN ikuskatu dezala ausaz **GOMENDATZEN DIOGU** Udaltzaingoari, 296/1997 Dekretuan finkatutako ixteko ordua errespetatzen duen ikusteko eta hala izan ezean, ordutegi-urraketak salatzen.

Halaber, Udalak taberna eta puben ordutegia luzatzeko ezarritako egunetan kontrol zehatza egin dezala gomendatzen diogu Udaltzaingoari, hain zuzen ere **36/2012 Dekretuaren 12.3 artikulua** ezohiko inguruabarrak edo aurreikus ez daitezkeen egoerak badira ordutegia BI ORDUZ luzatzeko ahalmena ematen dion egunetan (15 egun urtean, gehienez).

Hori guztia Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin.

- Istilua Udaltzaingoarekin (erreg. zk.:1695 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar bat —xxx xxxx— kexu etorri zaigu, haren ustez udaltzaingoak harekin gaizki jokatu zuelako.

Izan ere, udaltzaingoak salatu du 12-xxxxx txostenaren bitartez; txostenak honela dio:

"2012ko otsailaren xx([e]a)n, xxxx eta xxxx zenbakietako udaltzainak aparkatuta zeuden xxxx kalean, itxuraz alkoholaren

eraginpean gidatzen ari zen gidari bati alkoholemia-froga egiten. xxxx emakumezko agentea polizia-ibilgailuan sartu zen, operazio-zentralari ibilgailuaren gidariaren datuen berri emateko eta administrazio-salaketa idazteko. Une horretan, esku-hartzearekin zerikusirik ez zuen gizon bat emakumezko agenteari oihuka hasi zitzaion, mespretxuz eta harrokeriaz, ibilgailuaren barruan zegoelako kargu hartuz, eta besteak beste honelakoak ozenki esanez: "lotsagabea, irten ibilgailutik eta aurpegia eman besteek bezala, hotzak bazaude erosi eskularruak eta bufanda, herritarren zerbitzuan jardun behar duzu, eta auto barruan nekez beteko duzu zure eginbeharra". Udaltzainak ez zien oihuei jaramonik egin liskarretan ez sartzeko, baina gizonak, alendu beharrean, kalea zeharkatu zuen eta polizia-ibilgailuko leihoa jo, emakumezko agenteari harekin ari zela argi uzteko. Udaltzainak bere horretan jarraitu zuen, hau da, eztabaida saihestu eta lanarekin aurrera jarraitu zuen; gizonak, ordea, mugikorrarekin argazkiak ateratzeari ekin zion, eta patruila-laguna, xxxx zenbakiko udaltzaina, horretaz ohartu zen. Udaltzaina herritarrarengana hurbildu zen eta dokumentazioa eskatu zion. Bitartean, xxxx udaltzaina ibilgailutik atera zen lankideari laguntzeko, gauzak okertzen ari zirela ikusita.

xxxx udaltzainak behin eta berriz eskatu zion herritarrari bere burua identifikatzeko, baina hark aurre egin zion eta emakumezko udaltzaina mespretxatzen jarraitu zuen, oihuka eta espantuka, Ertzaintzari deitu behar ziola mehatxatuz eta egunkarietan aterako zirela esanez, ez zekitela norekin ari ziren eta abar, eta hori guztia emakumezko agentea beldurrarazteko xede bakarrarekin, harekin itsututa baitzegoen.

Azkenean bere burua identifikatu zuen, NANA urrunetik erakutsiz eta etengabe mugituz; beraz, emakumezko udaltzainari iseka egiten jarraitu zuen, hura identifikatzeko aukerarik izan ez zezan. Emakumezko udaltzainak ohartarazi zion zer gerta zekioken

bere burua identifikatzeari uko egiten bazion, eta orduan herritarrak NANA luzatu zion.

Telefono mugikorrarekin egin omen zituen argazkiei dagokienez, herritarrari jakinarazi zioten argazki horiek bidegabe erabiliz gero zer gerta zekioken, eta, aldez aurreko mehatxuak eta emakumezko agentearen aurkako mespretxuzko jarrera aintzat hartuta, azken horrek argazkiak erakusteko eskatu zion, eta azkenean herritarrak, men eginez, argazki-galeria erakutsi zion; hutsik zegoen, argazki bat ere gabe.

Interesdunari jakinarazi zioten Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko Lege Organikoa aplikatuz salatuko zutela, aurreko paragrafoetan azaldutako portaerari eusten ari zitzaiolako. Udaltzainek esku-hartzea amaitutzat eman zuten, eta handik alde egin zuten: herritarrak, aldiz, bertan jarraitu zuen, oihuka.”

Herritarrak onartzen du mugikorrarekin argazkiak ateratzeko keinua egin zuela eta udaltzainei kargu hartu ziela, baina ez dago ados udaltzainek kontatutako gainerako gertaerekin.

Gertaeran esku hartu zuten udaltzainek gertaerak salatu zituzten, arau-haustea “ARINTzat” joz herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 26.h eta 26.i artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Arazoaren azterketa

Beren eginkizunak betez agintaritzaren agenteek egindako adierazpenek egiazkotasun-ustekizuna dute, eta salatuak ez du kontrakoa egiazta lezakeen kontrafrogarik aurkeztu; gainera, kasu

honetan onartu beharrea gaude Udaltzaingoaren kontakizuna salatuarena baino sendoagoa eta koherenteagoa dela.

Polizia-txostenean zenbait esamolde zehaztugabe nabari dira gertaeren kontakizunaren atalean. Esaterako, "mehatxuaren" zigorkontzeptua ezin daiteke kaleko hizkeran erabili atestatu batean, baina horrek ez du salaketaren balioa indargabetzen.

Gertaerak juridikoki kalifikatzean, ordea, agenteek arau-hauste BAT aipatu dute, baina BI arau-hauste mota erabili eta metatu dituzte gertaerak kalifikatzeko:

1.- 26.h artikulua: *"Lege honetan ezarritakoa zuzenean aplikatuz agintaritzak edo agintaritzaren agenteek emandako aginduei desobeditzea, hori zigor-arloko arau-haustea ez bada"*

2.- 26. i artikulua: *"Segurtasun kolektiboa asaldatzea eta bide, gune edo establezimendu publikoetan anabasak sortzea"*

Gure ustez, 26. h artikuluan jasotako arau-hauste motari eman beharko litzaioke lehentasuna, izan ere, garrantzizkoena zera da, salatuak gaizki jokatu zuela, udaltzainei beren jardunean enbarazu eginez eta agenteen jarraibideei desobedituz. Aitzitik, gure ustez ez dago esaterik salatutako gertaerek *"segurtasun kolektiboa asaldatzearekin eta bide, gune edo establezimendu publikoetan desordenak sortzearekin"* zerikusia dutenik, arau-haustea horrela sailkatzeko ondasun edo pertsonentzako arriskuren bat egon behar duelako tartean, edo bestela espazio publikoaren erabilera bidegaberen bat, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatu.

3.- Ondorioak

Aldez aurretik adierazi dugunarengatik, aurkeztutako erreklamazioa partzialki onar dezakegu bakarrik.

Poliziak zuzen eta bikain jardun du, eta erreferentziazko salaketaren gertaeren kontakizunak egiazkotasun-ustekizuna du; alabaina, GOMENDATZEN DUGU gertaeren kalifikazio juridikoa 26.h artikuluan aurreikusitako arau-hausteari lotzea, "agintaritzaren aginduei desobeditzeagatik".

- Taberna ixteko ordua (erreg. zk.: 1474 / 11)

1. Arazoaren aurkezpena

Auzotarren komunitate bat gure bulegora bertaratu da, Kanpokale Berriko xxxxxxxxxx TABERNAREN gaueko jarduerak eragindako enbarazuengatik kexatzeko: ez dute ixteko ordutegia betetzen, eta zarata handia ateratzen dute, musika erreproduzitzeko aparatuek gehiegizko potentzia dutelako.

WEB-orrialdean bere ORDUTEGIA iragartzen du, eta Eusko Jaurlaritzaren 296/97 Dekretuan zehaztutako 3. kategoriari dagokio:

http://www.pubyfiesta.com/base.php?name=pubphotos&pub_id=003251

Ostegunetan, arratsaldeko zortzietatik goizeko ordu bietara.

Ostiraletan, arratsaldeko zortzietatik goizeko hiruretara.

Larunbatetan, arratsaldeko zortzietatik goizeko hiruretara.

2. Azterketa

Egiaztatu egin behar da ea benetan ez duten ixteko ordutegia behin eta berriz errespetatzen eta ez dituzten baimendutako gehieneko soinu-mailak errespetatzen. Halaber, ate bikoitzak erabiltzen diren aztertu behar da. Izan ere, horrek guztiak larriki urratzen baitu auzotarrek atsedenerako duten eskubidea. Eskubide hori Konstituzioan jasota dago, egoitzaren intimitaterako eskubidearen urratzea eta osasunari kalte egitea berekin dakarren aldetik, eta badago eskubide horiek babesten dituen jurisprudentzia zibil eta penalik.

Ordutegiak aldatzeko Dekretua tarteko, Udalek luzatu egin ahalko dute ixteko ordutegia, gehienez ere bi orduz, jai nagusietan, inauterietan (ostegunetik asteartera), Gabonetan (abendua 15etik urtarrilaren 6ra) eta Aste Santuan (ostegunetik astelehenera). Horietaz gain, baita interes turistikoa duten jai eta ekitaldietan ere, gehienez 15 egunez urtean.

Ordutegi-aldaketa udalerrri bateko hainbat guneta auzotara ere mugatu ahal izango da, programazioaren beharretara egokituz.

Horiez gain, Udalek beste 15 egunetan ere luzatu ahal izango dituzte ordutegiak (aurreko Dekretuaren arabera 10 ziren), baldin eta ezohiko inguruabarrak edo aurreikus ez daitezkeen egoerak badaude.

Guk dakigula, gaur arte Udalak ez du adierazitako ordutegi horiek aldatzeko ahalmena baliatu. Beraz, Erdi Aroko Hiriguneak gaueko zaratetik duen egoera berezia aztertzeke une egokia da Udalarentzat.

Horrenbestez, gomendio hau egiten dugu.

3.- Gomendioak

_Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen 2001eko irailaren 28ko Araudian xedatutakoaren ildotik, Udaltzaingoari GOMENDATZEN DIOGU hurrengo hiru asteetan XXXX tabernak OSTEGUN, OSTIRAL ETA LARUNBATETAN ETA IXTEKO EZARRIA DUEN ORDUTEGIAREN INGURUAN ordutegia benetan betetzen duen ikuskatu eta zaindu dezala, 296/1997 Dekretuan finkatutako ixteko ordua eta bestelako betebeharrekoak (ate bikoitzak erabiltzea, zaraten maila) errespetatzen dituen ikusteko eta hala izan ezean, ordutegi-urraketak salatzeko, baita esku-hartze horien berri eman diezagula ere.

Hori guztia Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin.

- Isuna, udaltzainari kasu ez egiteagatik (erreg. zk.: 1594 / 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Trafikoa antolatzen ari zen udaltzain bati kasu ez egiteagatik, oinezko baten aurka jarritako salaketa eta isun baten inguruko kexa dugu.

Salatuak eta udaltzainak adierazitako gertaerak ez datoz bat, eta horixe da arazoa.

Ez da ohikoa trafikoa kontrolatzen diharduten udaltzainek salaketak egitea, eta hori hala da ibilgailuen trafikoaren zentzua, norainokoa eta tratamendua gauzatzen direlako ibilgailu-gidariak nahitaez ezagutu beharreko hainbat keinu era seinale estandarizaturen bitartez. Oinezkoentzat, ordea, keinu eta seinale

horiek guztiak ez dira hain argiak, eta ez dute zertan horien berri izan; horregatik, arazoak izan ditzakete horiek behar bezala ulertzeko.

Kasu honetan argi dago gaizki-ulertu bat gertatu zela. Izan ere, 4202. udaltzainak zera adierazi du, gertaeren unean argi zegoela oinezko guztiak zebra-bidearen parean gelditzeko agindua emana zuela, San Viator Eskolaren aurrean. Honako hau ere adierazi du: "oinezko hori oinezkoen pasabidea zeharkatzen hasi zen uneaz geroztik, behin eta berriz adierazi zion espaloian gelditzeko eta pasatzen utzi arte itxaroteko, baina hark, hori egin beharrean, ibilera bizkortu zuen eta eskua altxatu eta astindu..."

Bestetik, salatuak zera adierazi du, salaketa jarri duen udaltzaina hari bizkarra ematen ari zitzaiola, eta horregatik nekez ikus zezakeela zebra-bidea zeharkatzen hasi zen unean; gainera, kalea zeharkatzen ikustean ere ez ziola gelditzeko agindurik eman ere adierazi du, eta behin beste aldera iristean orduan bai, kargu hartu ziola une horretan kalea zeharkatu izanagatik.

Salatuak ziurtatu du ez zuela udaltzainaren ahotik inolako abisurik edo agindurik entzun, eta ildo horretan zera gaineratu du, atzetik entzuteko arazoak dituela eta litekeena dela udaltzainak zerbait agindu izana, baina hark, jakina, ez ziola ezer ere entzun.

Salatuak berraztertzeke errekurtsua egin du, gertaeren tokian kokatutako zenbait lekukoren adierazpenenak eta aireko argazki bat aurkeztuz; azken horren arabera, udaltzain salatzailea salatuari bizkarra ematen ari zitzaion gertaeren unean.

2.- Arazoaren azterketa

Hala aitortutako lurralde demokratikoetan, aginte publikoa duten pertsonak bere jardunean duten eskubide edo printzipio legezkoa eta juridikoa da egiazkotasun-ustekizuna. Eskubide honek ematen duen balioa hauxe da: eskubide hori duenak esandakoa egiazkotzat jotzen dela; beraz, salatuak adierazitakoaren gainetik dago, salbu eta honek agintaritzak aitortutako ekintzak bestelakoak direla erakusteko probak erakusten baditu.

Egiazkotasun-ustekizunaren figura juridikoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3 artikuluan jasotzen da: Agintaritza aitortzen zaien funtzionarioek egitatei emandako sinestamenduek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute; baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak babesteko

Agintaritzaren agente batek bere eginkizunak betez salaketa bat egitea nahikoa kargu-froga da Administrazioak isunak jartzeko duen ahalmenaren esparruan, baina ezin daiteke txeki zurriz hartu eta beraz kontrako frogarik onartzen du, eta froga horrek posiblea behar du, aintzat hartzeko modukoa, eta modu arrazoitu eta kritiko batez baloratu behar da. Kasu honetan, trafiko-arloan oinezko bati isuna jartzeko esku-hartze batean gaude, eta hori bada, berez, ezohikoa.

Oinezkoekiko harremanetan ezinezkoa da trafiko-arauak automatikoki eta mekanikoki aplikatzea, eta aplikazio hori modulatu behar da ezaugarrien, adinaren, prestakuntzaren eta egoeraren arabera, erruduntasun-faktorea kontu handiz aztertuz.

Isunak jartzeko ahalmena betetzeko irizpideak murriztailea behar du betiere, eta ez irekia. Udaltzainek orientatzeari eta hezteari eman behar diote lehentasuna herritarrekiko harremanetan, dirua biltzeko arrazoia alde batera utzita, eta beraz, salaketa eta isuna azkenerako utzi behar dira beti.

Kasu honetan, udaltzainaren salaketa funtsezko kontraesan batean erori da, GELDITZEKO agindua ematen ari zitzaienean salatuarekiko zer posiziotan zegoen ez duelako guztiz zehaztu. Lekukoen adierazpenak, gertaeren tokiaren argazkia eta kontakizunaren nondik norakoak aztertuta, zera ondorioztatzen dugu, udaltzaina salatuari bizkarra emanda zegoela, eta horrenbestez zebra-bidea zeharkatu arte ez zuela oinezkoa ikusi, salatuak ez zuela udaltzainak besoa luzatuta egin zion seinalea ikusi, eta kalea zeharkatzean ez zuela beste inolako agindurik entzun. Gure ustez gaizki-ulertu bat izan zen, besterik ez, eta hortik ez dago ondorioztatzerik arau-urraketarik eman zenik, ezta 200 €-ko isuna ezarri beharra dagoenik ere.

Horrenbestez:

3. Ebazpena

Erreferentziazko espedienteari dagokionez GOMENDATZEN DUGU BERRAZTERTZEKO errekurtsua aintzat hartzeko, eta, errekurtsu horretan jasotakoari eta gomendio honetan aurkeztutako arrazoiei jarraiki, ezarritako isuna indarrik gabe uzteko

- Zapatari kaleko tabernak ixteko orduak (erreg. zk.: 1664/ 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Zapatari kaleko tabernen inguruko kexa adierazi digu herritarrak. Ixteko ordutegia ez dutela betetzen eta baimendutako ordua baino beranduago itxi ohi dutenez, auzokideei eragozpenak sortzen dizkiela salatu du. *Herritarrak hala adierazi digu "Ixteko baimendutako ordutegitik kanpo ere irekita egoten dira, batez ere ostegunetan".*

Behar diren neurriak har daitezela eskatzen du, era horretako establezimenduentzat finkatua dagoen ordutegia bete dezan.

2.- Azterketa

Berriz ere gogoratu behar izan diogu Udalari ZAPATARI KALEKO TABERNEK araututako ordutegiak modu sistematikoan urratzen dutelarik, etengabe eta larriki kalte egiten ari zaiola auzotarren atsedenerako eskubideari. Eskubide hori Konstituzioan jasota dago, egoitzaren intimitaterako eskubidearen urratzea eta osasunari kalte egitea berekin dakarren aldetik, eta badago eskubide horiek babesten dituen jurisprudentzia zibil eta penalik.

Horrenbestez, gomendio hau egiten dugu.

3.- Gomendioa

Sindikoko edo Herritarren Defendatzailearen 2001eko irailaren 28ko Araudian xedatutakoaren ildotik, Udaltzaingoari GOMENDATZEN DIOGU hurrengo hiru asteetan ZAPATARI KALEKO TABERNEK OSTEGUNETAN ETA IXTEKO EZARRIA DUEN ORDUTEGIAREN INGURUAN ordutegia benetan betetzen duten ikuskatu eta zaindu dezala, 296/1997 Dekretuan finkatutako ixteko ordua errespetatzen duten ikusteko eta hala izan ezean, ordutegi-urraketak salatzeke,

baita, ahal den neurrian, esku-hartze horien berri eman diezagula ere.

Lehen ere, antzeko kasuetan, gomendio bera egin dugu, eta Udaltzaingoak gogo onez onartu izan du.

Hori guztia Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta bertan aurreikusitako eraginarekin.

- Isuna: zamalanetarako baimendutako ibilgailua (erreg. zk.: 1711/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Erabiltzaile baten kexa jaso genuen gure bulegoan, eta zera adierazi zigun, *trafiko-isuna BIDEGABE ezarri ziotela 0/002576712 xxxxxxxx expediente- eta buletin-zenbakiarekin, zamalanetarako seinaleztatutako eremuan aparkatzeagatik zamalanak egin beharrik gabe.*

Isun hori bertan behera uzteko eskatzen du, salatutako egintzak ez direlako egiazkoak, eta hori egiaztatzeko frogak aurkeztu ditu.

2.- Arazoaren azterketa

Erabiltzaileak zera salatu digu, salaketaren egunean obra bat egiten ari zela kontratupean, Ramón y Cajal kaleko etxebizitza batean, eta horretarako, zamalanetarako baimendutako ibilgailua aparkatu behar izan zuela horretarako erreserbatutako eremu batean, erabilitako materialaren bolumena eta pisua aintzat hartuta.

Errekurtsoekin batera, erabiltzaileak zenbait dokumentu aurkeztu ditu, eta horiek egiaztatzen dute zamalanetan ibili zela horretarako baimendutako ibilgailuan:

1. DOK. Ramón y Cajal kalean (1, 3º B) kokatutako etxebizitzan obrak egiteko azpikontratatu zuen enpresaren ziurtagiria.

2. DOK. Etxebizitzaren jabeak emandako ziurtagiria. Etxebizitzaren jabeak Udalaren baimena zuen zamalanetarako eremuan edukiontzia jartzeko, eta gertakarien egunean materialaren zamalanetan ibili zela ziurtatu du.

Gure ustez, agenteak egindako salaketaren arabera, salatuak aurkeztutako egiaztagiria ez dira aintzat hartu, egiaztagiri horien arabera, zamalanak egiaztatu beharko ziratekeelako, horretarako lizentzia duen ibilgailu batez ari garela aintzat hartuta.

Gure ustez, salaketan hutsegite nabaria egin da, eta bidezkoena salaketa bertan behera uztea dela uste dugu.

Ekintza zigortzaileak eta zigor-zuzenbideak gutxieneko esku-hartzearen printzipioa bete behar dute, eta sistema demokratiko batean "in dubio pro reo" printzipioa aplikatu behar da.

Horrenbestez,

3.- Ondorioa

Udalari **GOMENDATZEN DIOGU:**

Ezarritako salaketa bertan behera uzteko eta horretarako ordaindutako zenbatekoa itzultzeko.

Horixe GOMENDATZEN DUGU, Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta han xedatutako eraginarekin. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA

- Isuna: koadro astunen zamalanak (erreg. zk.: 1709/12)

1. Arazoaren aurkezpena

Erabiltzaile baten kexa jaso dugu gure bulegoan, eta zera adierazten digu, *trafiko-isuna ezarri diotela 0/xxxxxxx espediente-eta buletin-zenbakiarekin, baimendu gabeko ibilgailu bat zamalanetarako seinaleztatutako eremu batean aparkatzeagatik.*

Gelditu beharra ongi justifikatu du, eta horrenbestez isuna baliogabetzeko eskaera egin du.

2.- Arazoaren azterketa

Erabiltzaileak zera adierazi digu, salaketaren egunean ibilgailua minutu batzuetan utzi zuela zamalanetarako eremuan, inguruko denda batean bi koadro handi jasotzeko; minutu batzuk geroago itzuli zenean, ordea, salaketa-buletina aurkitu zuen haizetakoan, baina agentea joana zen ordurako.

Koadroak erostean eman zioten albarana ekarri du, baita erosketa-txartela ere, non egiaztatzen den koadroak 17:30ean ordaindu zituela, salaketa-buletinean 17:29ko ordua ageri delarik.

Formalki salaketak bete egiten ditu erreferentziazko arauak, salatutako ibilgailua baimendutako ibilgailua ez delako, nahiz eta kasu honetan benetan deskarga bat egiten ari zen. Agenteen ahalmen zigortzaile edo salatzailea ezin daiteke AUTOMATIKOA izatera mugatu, eta, arbitrariotasunean erori gabe, arrazoizkoa eta

berdintasunezkoa izan behar du beti, betiere kasuan kasuko zirkunstantziak aztertu behar direlarik. Hori da bidezkoa, Legeak agintzen duena eta herritarrek eskatzen dutena. Administrazio-zuzenbide zigortzailea zigor-zuzenbidearen modu bat da, eta horren jardun-mekanismoak errazteko aukera badago ere, justifikazio- eta errugabetze-arrazoiak kontuan hartu behar dira betiere.

Gure ustez, koadroak kargatzeko zereginak denbora gutxi eraman zuela aintzat hartuta, agenteak arauaren aplikazioa ponderatu beharko zukeen berdintasunaren arabera (Kode Zibilaren 3. artikulua), eta gutxieneko zuhurtzia batekin jardun beharko zukeen salaketa jartzerakoan. Ezin dezakegu esan agentearen jarduna deuseztatzeko modukoa denik, baina salaketa eta isunen arloko jardunbide egokien arabera, kasuaren zirkunstantziak, arau-hauslearen benetako erruduntasuna hartu behar dira kontuan, eta horregatik kasu honetan GOMENDATZEN DUGU egindako salaketa bertan behera uzteko, errugabetzeko arrazoia badagoela uste dugulako.

Horrenbestez,

3.- Ondorioa

Udalari **GOMENDATZEN DIOGU:**

Ezarritako salaketa bertan behera uzteko eta horretarako ordaindutako zenbatekoa itzultzeko.

Horixe GOMENDATZEN DUGU, Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta han xedatutako eraginarekin. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

- Isuna: agenteen seinaleak edo aginduak ez errespetatzea (erreg. zk.: 1724/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat etorri zaigu bulegora salatzeko udaltzain batek gaizki tratatu zuela eta isun bidegabea ezarri ziola "*agenteen seinaleak eta aginduak ez errespetatzeagatik*" (trafiko-esp.: 0/002608780 E030218s1 2012/001861 (1. dok. erantsia).

2.- Azterketa

Sindikoaren bulegora etorri da eta gai honekin lotutako agiriak ekarri ditu erabiltzaileak: *2012ko otsailaren 18an, ibilgailuarekin Ortiz de Zarate kalean duen garajearen sartzeko ahalegindu zen, baina inauteriko karrozak desfilatzen ari zirenez, pasatzea galarazten zuten hesiak kendu arte itxaron behar izan zuen. Pazientzia handiz itxaron zuen ordu erditik gora, agenteek hesiak kendu eta trafikoari bide eman zioten arte. Orduan, aurrean zuen ibilgailuari garajerantz pasatzeko baimena eman zioten, baina interesdunaren txanda iristean 4159. agenteak, oso urduri, zakarki eta bere onetik aterata, ezkerralderantz biratzeko agindua eman zion, oihuka (kontuan hartzekoa da interesdunak eskuinalderantz biratu behar zuela bere garajearen sartzeko). Hark berriz ere adierazi zion eskuinalderantz biratu nahi zuela garajearen sartzeko, ordu-erdi bat zeramala zain eta gainera bere ama edadetua barruan zeramala. Agenteak oihuka segitzen zuen, eta lehenbailehen handik ateratzeko esan zion eta salatuko ziola mehatxatu, matrikula apuntatu zuen, eta ezkerraldera biratzera behartu, buelta bat eman eta gero toki berera itzultzeko. Hala egin zuen, hau da, agentearen agindua errespetatu zuen, eta, zergatik egin zuen ulertu ez bazuen ere, ezkerraldera biratu zuen, eta buelta osoa eman behar izan zuen toki berera itzultzeko.*

“Zirkulazioa erregulatzen duten agenteen seinale edo aginduak ez errespetatzeagatik” (143.1 RGC 1428/2003 artikulua) salatu dute, eta horri dagokion jakinarazpena jaso du.

143. artikulua. *Besoarekin egindako seinaleak eta beste batzuk.*

1. Trafikoaren ardura izaki zirkulazioa erregulatzen duten agenteek, beren lana betetzerakoan, bidearen erabiltzaileek urrunetik, egunez eta gauez, erraz ezagutzeko moduan jardun beharko dute, eta bidearen erabiltzaileek berehala bete beharko dituzte agenteen seinale nabariak eta aginduak.

Lehen. **Agindu horrek agindua berehala betetzera behartzen du, baina erabiltzaileak ez zion agenteari aurre egin, eta agindutakoa betetzean ere ez zen berandu ibili; ohar bat baino ez zion egin agenteari, aurreko ibilgailuak hartutako noranzkoa hartu nahi zuela alegia, baina agenteak, aldiz, kontrako noranzkorantz biratzera behartu nahi zuen.**

Bigarrena. Gainera, agenteak begirunerik gabe tratatu zuen erabiltzailea, eta hortaz, agenteak ez zuen gizalegez tratatu, agintaritzaren agenteen betebeharrak deontologikoen arabera guztiz kontrako jarrera bat hartu behar bazuen ere bere eginkizunak betetzean. Alor horretan, 1992ko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko poliziarri buruzkoak eta udaltzainei ere aplikagarria denak, honako hau finkatzen du: *30. artikulua.- Herritarrekin dituzten harremanetan jokabide zuzena eta arretazkoa izan beharko dute, eta esku hartzen dutenean zergatik eta zein helbururekin egiten duten ahalik eta argibide gehienez azaldu beharko dute.*

3.- Ondorioa

Erabateko deuseztasuneko kasu baten aurrean gaude gure ustetan, agenteak alegatutako arau-haustea izateko premisak ez direlako betetzen, erabiltzaileak haren aginduei men egin baitzien. Dagozkigun ondorioetarako, dagokionari **GOMENDATZEN DIOGU** ezarritako zigorra DEUSEZTATZEKO. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

- Isuna: isun desberdina egintza berdinetarako (erreg. zk.: 1669 eta 1728/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Bi herritar bulegora etorri zaizkigu, eta zera adierazi digute, isunak jarri dizkietela *ibilgailua TOKI BEREAN aparkatzeagatik, hain zuzen ere zirkulaziorako erreserbatuta dagoen edo gelditzea debekatuta dagoen toki batean. Diotenez, bakoitzari gutxienez hiru aldiz jarri diote isuna, baina kasu bakoitzean zenbateko desberdina ezarrita. Hori guztia egiaztatzeko dokumentuak ekarri dituzte Hau da:*

A) xxxxxxxxxx erabiltzaileak HIRU salaketa-jakinarazpen jaso ditu, *ibilgailua zirkulaziorako erreserbatutako bide batean aparkatzeagatik Tomas Alfaro kaleko 1ean:*

- 2011/07/8an E/040606DT 2011/008 xxxxxxxxxxxx esp. (1. DOK. ERANTSIA)
- 2011/07/15ean E/040606DT 2011/0 xxxxxxxxxxxx esp. (2. DOK. ERANTSIA)
- 2011/11/2an E/030218S1 2011/0 xxxxxxxxxxxx esp. (3. DOK. ERANTSIA)

Lehen bi espedienteetan, debekatutako aparkatzea toki berean gertatu bazen ere, isuna areagotu zioten "zirkulazioa

oztopatzeagatik”, eta horrek 200 euroko zenbatekoa ekarri zuen berekin; azkenean, berriz, 45 euroko zenbatekoa ezarri zioten.

A) xxxxxxxxxx erabiltzaileak BESTE HIRU salaketa-jakinarazpen jaso ditu, ibilgailua zirkulaziorako erreserbatutako bide batean aparkatzeagatik Tomas Alfaro kaleko 1aren eta Tomas Zumarraga dohatsuaren arteko bidegurutzean:

- 2011/10/26an E/040606DT 2011/01 xxxxxxxxxxxx esp. (1a. DOK. ERANTSIA)*
- 2011/10/28an E/040606DT 2011/01 xxxxxxxxxxxx esp. (2a. DOK. ERANTSIA)*
- 2011/10/29an E/030218S1 2011/01xxxxxxxxxx0 esp. (3a DOK. ERANTSIA)*

Aurreko kasuan bezalaxe, lehen bi espedienteetan, debekatutako aparkatzea toki berean gertatu bazen ere, isuna areagotu zioten "zirkulazioa oztopatzeagatik”, eta horrek 200 euroko zenbatekoa ekarri zuen berekin; azkenean, berriz, 45 euroko zenbatekoa ezarri zioten.

2.- Azterketa

Bi erabiltzaileei gauza bera gertatu zaie, hau da, biek ibilgailuak aparkatu dituzte toki berean zenbait egunez, eta bakoitzari hiruna isun jarri dizkiote, egintza berberagatik arau-hauste desberdinak egotzi dizkietelarik. Udaltzainek egindako argazkiek hori berresten dute (4. eta 5. DOKUMENTU ERANTSIAK), ibilgailua arau-haustea egin zen tokitik ez zela mugitu argi eta garbi uzten baitute.

Deskribatutako sei aldietan arau-hauste berbera gertatu da toki berean, baina hala eta guztiz ere zenbait udaltzainek

ez dute irizpide berbera aplikatu, eta lau aldiz isuna areagotu egin dute. Kasu horietan administratuei **In dubio Pro Reo** printzipio juridikoa aplikatu behar zaie, eta zalantza izanez gero zigortuaren alde egingo da; salaketetan kontraesana nabari den kasu horietan, zigorrik arinena aplikatu beharko litzateke, hau da, bi udaltzainek arintzat jotakoa.

Horrenbestez, gomendio hau egiten dugu.

3.- Gomendioa

2011ko irailaren 28ko Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudian ezarritakoarekin bat etorrituz, Udaltzaingoari GOMENDATZEN DIOGU jarraian zehaztutako espedienteen kalifikazioa alda dezan, arau-haustea ARINTZAT joz:

A) xxxxxxxxxx erabiltzailea.

- 2011/07/8an E/040606DT 2011/00xxxxxxxx esp.
- 2011/07/15ean E/040606DT 2011/00xxxxxxxx esp.

B) xxxxxxxx erabiltzailea.

- 2011/10/26an E/040606DT 2011/01xxxxxxxx esp.
- 2011/10/28an E/040606DT 2011/0xxxxxxxx esp.

- Isuna: agenteek agindutakoa ez betetzea (erreg. zk.: 1727/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat bulegora etorri zaigu salatzeke udaltzain batek "agenteen seinaleak eta aginduak ez errespetatzeagatik" ezarritako

isuna jaso zuela (trafiko-espeditentia: 0/002606474 xxxxxxxxx) (1. dokumentu erantsia), "ibilgailua gelditu eta zirkulazioa larriki oztopatzeagatiko" salaketarekin batera (esp.: 0/002606475 xxxxxxxxx) (2. dokumentu erantsia).

2.- Arazoaren azterketa

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: *2012ko otsailaren 10ean, La Unión enpresarako gidari-eginkizunetan ziharduela, bidaiariak jasotzen ari zen horretarako prestatutako autobus-geltokian. Une horretan, kamioi bat zegoen aparkatuta autobus-geltokian, erregaia kargatzeko eta deskargatzeko lanetan, eta horregatik ezin izan zuen ibilgailu osoa geltokian sartu. Hortaz, autobusa geltokian libre zegoen toki txikian sartzen ahalegindu zen, zain zeuden bidaiariak autobusera igotzeko aukera izan zezaten, bidaiarien segurtasuna babesten ahaleginduz, eta, aldi berean, trafikoaren zirkulazioa ahalik eta gutxien eragozten saiatuz. Nolanahi ere, autobusaren atzealdea ezkerreko bidearen zati batean sartu behar izan zuen bi minutu eskasetan. Orduan, 204. udaltzaina autobusera hurbildu zen, kristala bortizki jo zuen, eta trafikoa galarazten ari zela adierazi zion. Gidaria agenteari zer gertatzen ari zen azaltzen ahalegindu zen, baina agenteak ez zion inolako kasurik egin, eta, behin bidari guztiak autobusera igo eta gero, dokumentazioa eskatu zion eta jarraian isuna ezarri, agenteen seinaleak eta aginduak ez errespetatzeagatik eta ibilgailua gelditu eta zirkulazioa larriki eragozteagatik, geldialdi luzea egin baitzuen bi bide oztopatuz.*

AZTERKETA:

1.- "Zirkulazioa erregulatzen duten agenteen seinale edo aginduak ez errespetatzeagatik" (143.1 RGC 1428/2003 artikulua) salatu dute, eta horri dagokion jakinarazpena jaso du.

143. artikulua. *Besoarekin egindako seinaleak eta beste batzuk.*

1. *Trafikoaren ardura izaki zirkulazioa erregulatzen duten agenteek, beren lana betetzerakoan, bidearen erabiltzaileek urrunetik, egunez eta gauez, erraz ezagutzeko moduan jardun beharko dute, eta bidearen erabiltzaileek berehala bete beharko dituzte agenteen seinale nabariak eta aginduak.*

Aginduak agindua berehala betetzera behartzen du, baina testuinguruaren arabera uler dezakegu gidariak ezin izan zuela agindua berehala bete, bidaiariak jasotzen ari zelako. Erabiltzaileak ez zion agenteari aurre egin, eta agindua betetzen ez zen berandu ibili; bidaiariak jaso egin zituen, besterik ez, arriskuan ez jartzeko.

2.- *Ibilgailua gelditu eta zirkulazioa larriki eragotzi eta bi bide oztopatu zituela dioen salaketaren aurka zera adierazi behar dugu, erregaia kargatzen ari zen kamioia zela behar ez zuen tokian zegoena, bidaiariak jaso eta uzteko prestatutako autobus-geltokian baitzegoen, eta horregatik, **maniobra egitean, bidaiarien segurtasuna ahalik eta gehien babesten eta zirkulazioa ahalik eta gutxien eragozten ahalegindu zela,** autobusaren atzealdearekin ezkerreko bidearen zati bat hartuz bi minutu eskasetan, hain zuzen ere geltokian zain zeuden bidaiari urriek igotzeko behar izan zuten denboran, autoei pasatzen uzten zielarik,.*

3.- Gainera, **agenteak begirunerik gabe tratatu zuen erabiltzailea,** eta hortaz, agenteak ez zuen gizalegez tratatu,

agintaritzaren agenteen betebeharraren deontologikoen arabera guztiz kontrako jarrera bat hartu behar bazuen ere bere eginkizunak betetzean. Alor horretan, 1992ko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko poliziari buruzkoak eta udaltzainei ere aplikagarria denak, honako hau finkatzen du: *30. artikulua.- Herritarrekin dituzten harremanetan jokabide zuzena eta arretazkoa izan beharko dute, eta esku hartzen dutenean zergatik eta zein helbururekin egiten duten ahalik eta argibide gehienez azaldu beharko dute.*

3.- Ondorioak

Gure ustez, salaketa hori ezartzea gehiegizko zigorra da, lekukoek berretsitako gertakariak aintzat hartuta, eta horregatik Ogasun Sailari **GOMENDATZEN DIOGU** alegazioak kontuan hartzeko deskribatutako isunak aldatu eta deuseztatzeko. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

c) Gogorrazpena

- Udaltzainen adeitasuna (erreg. zk.: 1663 eta 1686/ 12)

Udaltzainek hainbat egoeretan izan duten jardunarekin kexu diren herritarrak etorri zaizkigu bulegora. Ondoren jasotako gogorrazpena egingo dugula eta udaltzaingoko arduradunei kasu zehatz bakoitzaren berri emango diogula jakinarazi diegu:

GOGORARAZPENA.:

1.- Udaltzainek herritarrekin dituzten harremanak beren zereginetan ari direnean: begirunea eta adeitasuna

Ohikoak dira Herritarren Defendatzailearen - Sindikoaren bulegora heltzen diren kexak; herritarren arabera, Udaltzaingoaren funtzioen garapeneko begirunerik gabeko tratuak bultzatuta.

Kasu gehienetan kexatzeko arrazoiak ez dira OBJEKTIBATZEN errazak, eta esapide hauen bidez deskribatu ohi dira: "gaizki begiratu zidan", "harropuzkeriaz jokatu zuen", "keinu zakarrak egin zituen", "oihuka hitz egin zidan", "nagusikeriazko jarrera zuen", "haren gorputz-adierazpenak eta lengoaiak erasokorrak ziren"... Tartean zeuden udaltzainei gertaerak aipatzean, ordea, haiek ere kexatzen dira herritarrek berekin duten begirune faltaz, gutxiespen-adierazpen eta -keinuak egiten baitizkiete, baita iraindu ere.

Jakina da udaltzainekiko harremana ez dela lasaitasun-egoeretan gertatzen, baizik eta nolabaiteko tentsioa daramala beti inplizituki, ahalmen zigortzaileak, salaketaren gertaerak, isunaren ordainketak edo zigorraren ordainketak eraginda. Zenbait kasutan, esku-hartze hori ibilgailuen trafikoarekin lotuta egiten da edo legez kontrako zigorraren ikerketan, horren berezko estresarekin eta zenbaitetan gaueko ordutegian, edari alkoholduen kontsumoa tarteko dela...; askotan, poliziaren esku-hartzeak denbora kentzen digu, estresaren mende dauden gure jarduera profesionalak oztopatzen ditu eta horrek beste presio-faktorea ekartzen du.

Herritarrek ez dute beti ongi ulertzen agenteen agintaritza, haien agindu txikiena ere zalantzan jartzen baitute, eta edozergatik argudiatzen baitute, agenteek nekez kontuan har ditzaketen aitzakiak jarriz: "une bat besterik ez da", "ez dut seinalea ikusi", "ez da horrenbesterako", "ez zen nire asmoa"...; edo okerrago dena: "ikusiko duzu", "ez dakizu norekin ari zaren"... Agenteak kexatu egiten dira, "kalea gero eta zailago" dagoela esanez, eta herritarrak gero eta erasokorragoak omen dira.

Gizakion asmo nagusia besteek begirunea digutela sentitzea da.

Pertsonen diegun begiruneak haien auto-estimua handitzen laguntzen du. Pertsona gehienon "nia" hauskorra da, eta maiz euskarrien beharra du. Hori dela eta, agresibitatez jokutzen du begirune-faltatzat jotzen duenaren aurrean.

Errespetua eta adeitasuna agintaritzaren agenteen betebeharrak deontologikoak dira eta funtzioaren garapeneko tinkotasunarekin konbinatu behar dira, baina beti ez da erraza izaten.

Arazo mota horrek ez du irtenbide juridiko garbirik, legearekin baino psikologiarekin zerikusirik handiagoa duen harremanetarako gaitasunak sortu eta garatzearen arazo gisa hartu behar da.

Bestalde, adeitasuna, gizarte- eta hiri-bertute gisa, ez dago unerik onenean, gure hezkuntza-sistemak eta moda sozialek lehentasuna eman diete berezotasunaren balioei, askatasun pertsonalari eta asertibitateari euskarriaren eta errespetuaren aurrean eta horren ondorioz, zintzotasuna zenbaitetan agresibitatearekin eta kontsiderazio faltarekin nahasten da.

Alor horretan, 1992ko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko poliziari buruzkoak eta udaltzainei ere aplikagarria denak, honako hau finkatzen du:

30. artikulua

1. Euskal Herriko Poliziako kideen jokabidea hobespen politikorik eta alderdikieririk gabekoa izango da guztiz, eta gehiegikeriazko eta bidegabeko edozein ekintza galaraziko dute,

berdintasun eta bereizkeriarik ezarekiko sortarauei eta [Konstituzioan](#) eta [Giza Eskubideei buruzko Mundu-mailako Adierazpenean](#) aipatzen diren beste guztiei uneoro begirune izanen.

2. Zintzo eta duintasunez jokatu beharko dute beti, eta beren zereginei zor zaien uste ona eta itzala galtzea nahiz zerbitzuaren edo Administrazioaren izen ona edo eraginkortasuna arriskuan jartzea ekar dezaketen jokabide orori itzuri egin beharko diote. Ustelkeria-ekintza guztietatik bereziki jare izan eta horrelakoen aurka erabaki sendoz jokatu behar dute.

3. Herritarrekiko harremanetan, tratu zuzena eta arretatsua eskainiko dute, esku-hartzearen arrazoiei eta xedeari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eta zabalena eskainita.

Baldintza profesionala ziurtatuko dute, beharrezkoa den guztietan eta jardueretan harremana dutenekiko pertsonak eskatzen dutenean.

2.- Udaltzaingoaren aldetik "trebetasun sozialetan" prestakuntza egokiaren eta iraunkorraren beharra

Polizien prestakuntza honako hauei buruzko alderdi askotan indartu da: polizia-teknika, zuzenbide administratiboa eta penala, autodefentsa, prestakuntza fisikoa, kriminologia... hiri-alorrarekin hain lotuta dagoen Udaltzaingoaren kasuan bereziki, agian beharrezkoa izango litzateke trebetasun sozialekin lotutako alderdiak ez ahaztea: gatazkaren kudeaketa, poliziaren adeitasuna, probokazioekiko erresistentzia...

Jakin badakigu Udaltzaingoaren Zuzendaritzak alor horretan prestakuntza-baliabide berriak txertatzeko xedapenak hartu dituela

eta, horregatik, zorientzea dagokigu, prestakuntza mota horrek duen garrantzia azpimarratuta eta alor horretan egindako edozein hobekuntzak kontsiderazio handiagoa eta poliziaren eginkizunetan eraginkortasun handiagoa ekarriko duela azpimarratuta. Garrantzitsua da udaltzainek, zaharrek eta berriek, zorrozki polizia-jarduerak direnak ez direla –oso garrantzitsuak izanik– bakarrak ulertzea eta udaltzaina bereziki bizikidetzako agentea ere badela ulertzea.

Adierazitako guztiari jarraiki, GOGORA EKARRIKO dugu udaltzain guztiek legez duten betebeharra, herritarrei une oro, eta kasuaren baldintzen barruan, tratu zuzena eta arretatsua eskaintzekoa, esku-hartzearen arrazoiei eta xedeari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eta zabalena eskainita. Herritarrak poliziaren esku-hartzearen arrazoia eta zentzua ulertzen ez duenean, errazagoa da gatazka sortzea.

Poliziaren funtzioa toki-mailan garatzeak duen zailtasuna ulertzen dugu, salatzeke ahalmenarekin eta, aldi berean, bizikidetzako agente gisa.

Alor horretan udaltzainen gaitasunak indartzeko hartutako edo etorkizunean hartuko den neurri oro txalotuko dugu eta une honetan indarrean dauden edo aribidean dauden prestakuntza-planei buruzko INFORMAZIOA eskatuko dugu.

d) Idazki lagundua

- Isuna: bigarren lerroan geratzea Salburua bulebarrean (erreg. zk. 1712 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du arau-hauste LARRIarengatik isuna jarri diotela Salburua bulebarrean bigarren lerroan aparkatzeagatik. Alegazioen idazkia egiteko laguntza eskatzen digu.

Azterketa eta ebazpena

Alegazioak idazten lagundu diogu. IDAZKI LAGUNDUA.

- Poliziaren atestatuan salatutako adingabeak (erreg. zk.: 1748 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, poliziak bere atestatuan jasotakoak ez duela frogatzen bere semeak delitu batean parte hartu zuela.

Azterketa eta ebazpena

Zenbait elkarrizketa egin genizkion, administrazio-espedienteari erantsi beharreko adierazpenak lantzen laguntzeko. IDAZKI LAGUNDUA.

- Zamalanetarako lekuari dagokionez jarritako zigorra (erreg. zk.: 1756 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera adierazi digu, laguntza behar duela berraztertze errekurtsoa jartzeko zamalanetarako lekuan baimenik gabeko ibilgailua uzteagatik ezarritako zigorrari dagokion ebazpenaren aurka; zigorraren arabera, ezin du ibilgailua erabili.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin zenbait aldiz bildu gara, errekurtsoa lantzen laguntzeko. IDAZKI LAGUNDUA

- Isuna, Garbiketa Ordenantza ez betetzeagatik (erreg. zk.: 1820 / 12)
- Liskarra udaltzainekin (erreg. zk.: 1866 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek adierazi digu laguntza behar duela errekurtsio bat aurkezteko, animaliak zaintzeko orduan nahikoa kontu izan ez duelako jarritako isunaren kontra.

Azterketa eta ebazpena

Hainbat elkarrizketa izan dugularik berarekin, errekurtsioa egiten lagundu diogu. IDAZKI LAGUNDUA

e) Errefusatzea

- Isuna: bizikletan kaskorik gabe ibiltzea (erreg. zk.: 1735 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, bizikletan kaskorik gabe ibiltzeagatik zigortu dutela.

Azterketa eta ebazpena

Jakinarazi diogu gai hori ez dela gure eskumenekoa, isuna ezartzea Ertzaintzaren ardura delako. ATZERA BOTATZEA.

- Atzera botatzea asmo txarrez jokatu izanagatik (erreg. zk.: 1733/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek *udaltzainen aurkako kexa bat aurkeztu du, axolarik gabe gidatzeagatik salatu zutelako.*

Azterketa

Zure kexa-idazkia jaso genuen, eta jarraian zure ESKAERA transkribatuko dugu:

"Lehena, ezarritako salaketa kentzea, eta, bigarrena, bi agente horiei espedientea egitea eta zigorra jartzea, nirekin gaizki jokatu zutelako, salaketa faltsua egin zutelako eta putaseme batzuk direlako!"

Zure idazkian jasotako irainak ez dira onargarriak, zure kexaren arrazoiak edozein izanik ere, eta horregatik ezin dugu arrazoi horiek aintzat hartu, inondik inora.

Sindikoaren – Herritarren Defendatzailearen Erregelamenduaren 26 c) artikuluan ezarritakoari jarraiki, ezin dezakegu eskatutakoa *onartu*, hau da,

26. artikulua.- Herritarren Defendatzaileak – Sindikoak kexak atzera bota ditzake honako arrazoi hauengatik:

c) Asmo txarra edo gehiegikeriazko jokabidea atzematen badu.

Interesdunak irainak erabili ditu bere idazkian, eta beraz begirunerik gabe eta gehiegikeriaz jokatu du; horrenbestez, haren kexa ATZERA BOTA behar dugu, ezinbestean.

Ebazpena

Hortaz, interesdunaren kexa **ATZERA BOTA DUGU**.

f) Orientabidea

- Isuna: patruila-autoari pasatzen ez uztea (erreg. zk: 1740/ 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu digu, isuna jarri diotela biribilgune batean sartzean pasatzen uzteko seinale bat ez errespetatzeagatik, baina jarraian agente salatzaileak oso gaizki tratatu zuela.

Azterketa eta ebazpena

Zera jakinarazi diogu, hark esandakoa kontuan hartuko dugula Sailarekiko etorkizuneko harremanetarako. ORIENTAZIOA.

- Prostituzio-etxea Batzar Nagusien kalean (erreg. zk.: 1765/ 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat etorri zaigu jarraian azalduko duguna salatzeko. Herritar batzuen kexari erantzunez, gure bulegoak esku hartu zuen, eta, horri esker, erabiltzailea bizi den etxebizitza ikertu zen, salatzaileek bertan prostituzio-etxe klandestino bat egon litekeela salatu zutelako. Horrek berekin ekarri zituen eragozpenak salatu ditu.

Azterketa eta ebazpena

Zera adierazi diogu, poliziak zuzenbideari jarraiki jardun zuela salatutako egoeraren aurrean. ORIENTAZIOA.

- Liskarra udaltzainekin (erreg. zk.: 1813 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaileak adierazi digu liskarra izan zuela udaltzainekin, bere burua identifikatu ez zuelako.

Azterketa eta ebazpena

Jarritako zigorrari buruzko informazioa eskatu diogu Udaltzaingoari, eta erabiltzaileari jakinarazi agenteek bazutela bera atxiki eta poliziaren bulegoetara eramateko gaitzen zituen gertakari bat, eta administrazio zigorra irainengatik eta bere burua identifikatzeari uko egiteagatik jarri zaiola. ORIENTAZIOA

g) Bitartekaritza

- Bizikidetza arazoak gizalegez jokatzen ez duten adingabeekin (erreg. zk.: 1779/ 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Erdi Aroko hiriguneko ama batzuek kezka azaldu digute, ijito etniako 11 urteko neska batek eraso eta mehatxu egiten dielako beren seme-alaba adingabeei, eta haiek izututa dituelako.

2.- Azterketa eta ebazpena

Aurkeztutako arazoak Udaltzaingoaren esku hartzea eskatuko luke, gertaerak aztertu eta zehazteko, eta egiaztatuko balira, Udaleko Haurtzaro Zerbitzuak edo beharrezkoa balitz Adingabeen Auzitegiak esku hartu beharko lukete.

Horretarako, aipatutako adingabearen izena eta seme-alabatasuna zehaztu beharko litzateke, bai eta gertaeren leku-egunak ere.

Kexa aurkeztu dutenek beldur diote beren burua ezagutarazteari, errepresaliarik egon daitekeelakoan. Hori dela eta, sindikoa salatzaile gisa agertu da kasuan, eta elkarrizketa eskatu du Erdi Aroko hiriguneko Udaltzaingoaren arduradunekin, ikertu beharreko gertaerak isilpean jakinarazi eta beharrezkoa bada Udalari ekintza zehatzen bat eskatzeko. BITARTEKARITZA

2.3.3.2-Trafikoa

a) Bitarteko jarduera

- Latinoamerikako plazako semaforoen araubidea (erreg. zk.: 61/12).

1.- Arazoaren planteamendua.

Zenbait kexa jaso ditugu Euskal Herria bulebarraren eta Latinoamerikako plazaren arteko bidegurutzeko semaforoen araubidearen inguruan, eta zenbait komunikabidek ere eman dute kexa horien berri.

Izan ere, bidegurutze horretan oso zaila da trafikoa kudeatzea, ibilgailuen, oinezkoen, bizikleten eta tranbien bilgunea delako.

Puntu horretan nolabaiteko disfuntzioa ageri da oinezkoek eta ibilgailuek noiz igaro behar duten kudeatzean, hain zuzen ere oinezkoentzat semaforoa berde egonik ibilgailuentzat anbar dagoenean, eta gainera kontuan hartzekoa da bertan ibilgailu-pilaketak gertatzen direla sarri, ibilgailu ugari ibiltzen direlako.

2.- Arazoaren azterketa

Ezin dezakegu esan Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak puntu hori alde batera uzten duenik, horri buruz hainbat kudeaketa-formula ebaluatu dituelako, baldintza fisiko eta funtzionalak oraindik ugariak badira ere.

Nolanahi ere, eta eremu horretako semaforoen araubidearen funtzionamenduari buruzko azken ebaluazioa egin eta gero, zerbitzuak berak araubide hori aldatzea erabaki du, semaforoko

seinaleen artean gorria sartuz oinezkoek kalea segurtasun handiagoarekin zeharkatzeko aukera izan dezaten.

3.- Ondorioak

Horregatik guztiagatik, gure ustez Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak zuzen jardun du kasu honetan, exijitutako baldintzak betez, areago eremu horrek dituen baldintzak eta zailtasunak aintzat hartuta, eta horregatik zera uste dugu, aurreikusitako erregulazio berriari esker, oinezkoek puntu horretatik kalea hobeto igarotzeko aukera izango dutela.

- Oinezkoentzako pasabidea Sofia Erreginaren hiribidean (erreg. zk.: 1769/12)

Erreklamazioa

Sofia Erreginaren hiribidean pasabide bat jar dadila eskatu du erabiltzaile batek.

Azterketa eta ebazpena

Lekua ikuskatzen izan gara, eta igarobide hori beharrezko dela ikusi dugu. Pare bat hilabeteren buruan deitu diogu erabiltzaileari, eta obra dagoeneko hasita omen dago. BITARTEKO JARDUERA.

- Hainbat isun, TAO eremuan aparkatzeagatik, egoiliar txartela edukirik (erreg. zk.: 1827/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek dokumentazioa ekarri digu, erakusteko nola hainbat bider izan den salatua, ordu txartelik gabe aparkatzeagatik, egoiliarrentzako TAO txartela duen eremuan.

Azterketa eta ebazpena

Sailarekin harremanetan jarri gara, eta erabiltzaileari jakinarazi diogu kendu egin zaizkiola isunak. BITARTEKO JARDUERA

2.3.4.- Ogasun Saila

2.3.4.1- Zuzendaritza Nagusia

a) Gomendioa

- Gainbalioa. Bahiketa eta etxe kaleratzea (erreg. zk.: 1683 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek Udalaren gutuna jaso du, zeinean gainbalioari dagokion zerga zor duela esaten baita, baina herritar horri etxea bahitu eta bertatik kaleratu dute, hortaz, berez ez da inolako gainbaliorik gertatu.

2.- Arazoaren azterketa: Zergak eta ahalmen ekonomikoa

Nire ustez, administrazioek ez dute aginte moralik (eta esango nuke ezta juridikorik ere) existitzen ez den gainbalioa zergapetzen duen zerga eskatzeko, etxetik bota duten pertsonaren aurka zuzenduta. Zergen Lege Orokorrak gure zerga-sistema guztiaren oinarrizko printzipiotzat finkatzen ditu hauek: *zergak ordaintzera behartutako pertsonen gaitasun ekonomikoaren printzipioa, hurrengoak kontuan hartuta: justizia, orokortasuna, berdintasuna, gehikortasuna, zerga-kargaren bidezko banaketa eta konfiskagarritasun eza*. Gaitasun ekonomiko zergapegarria duten zergapekoak soilik zergapetu daitezke honako hauen inguruan:

errenta, irabaziak, luxua, kontsumoa, ondarea, gainbalioa... baina gainbaliorik ez dagoenean, exekutaturako ondasuna Erremate Judizialak (ez zergapekoak) besterendu egiten duenean denean eta gaitasun ekonomikorik ez duen pertsonaren devaluaturako ondasunaren gainean. Non daude zergapeturako gaitasun ekonomikoa, justizia eta gure zerga-sistemaren zuzentasuna?

"Gainbalio" gisa ezagutu ohi den zerga, legez dagokion Foru Arauan gaituta dator, baldintza hauen arabera:

"Zergaren egitate zergapegarria osatzen du zerga-aldian hiri-izaerako lursailek izandako balio-igoerak, horien jabetza titulu bidez transmititzen denean edo horien gainean gozatzeko edozein eskubide erreal osatu edo transmititzen denean, jabetza mugatuz".

Zerga guztietan bezala, arauaren zioa eta zentzua zerga publikoei kontribuzio-ahalmen jakina finkatzea eta horren gainean bidezko zerga-ordainketa inposatzea da, kasu honetan zerga gisa.

Horrez gain, argi dago hipoteka-exekuzioko nahitaezko besterentze kasuetan, definizioz ordaintzera behartuta dagoena galera ekonomikoaren egoeran dagoela eta, hain zuzen ere, horregatik ezin dio finantza-betebeharren ordainketari aurre egin eta bankuak, beraz, eragindakoa bahitzeari eta etxetik botatzeari ekiten dio. Sarkastikoa da hipotekatutako balioaren azpitik baloratzen dituzten tasazioekin etxebizitzarik gabe geratutakoei gainbalioaren zerga ezartzea. Non dago gainbalioa?

Une honetan, Batzar Nagusiak gainbalioaren gaineko zergaren aldaketa aztertzen ari dira, eta idazketa berrian atzera eragina izan lezake. Hori dela eta, zentzuzkoa litzateke 9 hilabeteko LUZAMENDUA

ematea Udalak gainbalioaren zergarekin lotuta betearazte-bidetik egindako erreklamazioetan, Arabako Batzar Nagusiek erreforma ebazten duten arte.

3.- Ondorioak

GOMENDATZEN DUGU LUZAMENDUA ematea erabaki dadin azken sei hilabeteetan eta aurrerantzean zorpetutako gainbalioekin lotutako premiamendu prozeduretan, hau da, Batzar Nagusiek arauaren testua aldatzen duten bitartean, eta Hiri-izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zergaren egitate zergapegarriaren definizioan salbuespena jarri arte, transmisioa etxebizitza bahitzeko eta bertatik botatzeko prozesuaren emaitza gisa gertatzen denean, hori gainera bahitura jasan duen pertsonaren ohiko etxebizitza denean. EZ ZEN ONARTU GOMENDIOA.

- Zuzenbide publikoko zorraren ordainketa atzeratzea (erreg. zk.: 1691/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek -xxx xxxx- zera adierazi digu, egoera pertsonal eta ekonomiko txar batean dagoela, eta horregatik ordaindu gabeko isunengatik Udalari ordaindu beharreko 12.000 €-ko zorraren ordainketa atzeratu behar duela. Ordaindu nahi du eta ordain dezake, eta horretarako epeka ordaintzeko atzerapena eskatu du, 250 € hilean uztaile arte, eta 500 € hilean abuztutik aurrera. Horrela ordainketari aurre egingo lioke, eta, aldi berean, bere buruaren eta familiaren mantenuari lagunduko lioke.

2.- Arazoaren azterketa

2011/12/28ko 152. zenbakiko ALHAO aldizkariko 2011/12/23ko Diru-bilketari buruzko Ordenantzak prozedura eta irispide zehatzak ezartzen ditu ordainketak atzeratzeko eskabideak ebazteko, ATZERAPENAK ETA ZATIKAPENAK izeneko IV. KAPITULUAN. [Ikus 1. eranskina]

Bartzelonako Diputazioko kontu-hartzaile Ángela Acín Ferrer andreak honako hau dio *La concesión de aplazamientos y fraccionamientos de pago de los tributos locales (Tokiko zergen ordainketan atzerapenak eta zatikapenak ematea)* lanean¹⁸:

"Oso krisi ekonomiko larria bizitzen ari gara, eta horregatik hainbat aterapen- eta zatikapen-eskaera sortzen ari dira zuzenbide publikoko diru-sarrerengatik udalek egindako likidazioak ordaintzeko.../...

1.- Batetik, udal-arduradunek aintzat har dezakete egoera jakin batzuetan litekeena dela zergadunak dirurik gabe egotea eskatzen zaizkien zenbatekoak ordaintzeko, eta, horrenbestez bidezkoa dela ordainketa geroratzeko aukera ematea. Litekeena da, halaber, ordainketaren atzerapena edo zatikapena kreditua gauzatzeko alternatiba bideragarri bakarra izatea, bestela, agian, kreditu kobraezinaren deklarazioa onartu beharko litzatekeelako.

2.- Bestetik, ezinezkoa da altxortegiko eskuragarritasuna atzeratzea, eta araudi jakin bat bete behar da nahitaez, araudi horren arabera ordainketa-atzerapena kasu jakin batzuetan bakarrik gauza daitekeelarik.

Ezbairik gabe, diskrezionalitate tartea zabala da finantza-ahalmenari buruzko iritzietan, baina hori ezin daiteke sekula

¹⁸ "Boletín Derecho Local", 2011ko urriaren 1ekoa.

arbitrariotasun bihurtu; hortaz, oso komenigarria da barne-araudi bat edukitzea, ordainketa-atzerapenak edo -zatikapenak emateko/ukatzeko irizpide eta baldintzak ezartzeko. Hortaz, araudi hori aplikatuta, nahikoa tratamendu uniformeak ziurtatzeko moduan egongo gara, logikoa denez berdin-berdinak izango ez diren egoera eta espedienteak baloratzeko.”

Diru-bilketako Araudi Orokorra zuzenbide publikoko diru-sarrerei aplikatzen zaie, zerga-arlokoak izan edo ez, eta ildo horretan Zerga-bilketako Araudi Orokorraren 44.2 artikulua zera aurreikusten du, zerga-arloko zorrak eta izaera publikoko gainerakoak atzeratzeko edo zatikatzeko aukera izango dela, legetan aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

3.- Ondorioak

Erreklamatzailerak dagokion atzerapen-eskaera egin beharko du erreferentziazko araudiaren arabera, 1. Eranskinean bildu duguna, eta araudi hori ikusita **gomendatzen dugu** erreklamatzaileraren atzerapen-eskaera aintzat hartzea.

Gure ustez, erreklamatzailerak planteatutako kasuan, hainbat arrazoi daude, nola praktikoak hala berdintasunezkoak, ordainketaren atzerapena justifikatzeko. Batetik, atzerapenak behartzen du ordainketa ordaindu behar duena zorra ordaintzera, eta horrela prozedura betearazlea saihesten da, emaitza zalantzarria izaki azken batean kreditu kobraezin bat ekar lezakeena. Bestetik, atzerapenak behartzen du ordaindu behar duena zorra ordaintzera eta betebeharrak eta zibilak betetzera.

- Sailaren kontraesana trafiko-isunaren aurrean (erreg. zk.: 1438 / 10)

1.- Arazoaren aurkezpena

Bere garaian jaso genuen kexan honako hau adierazi zigun herritar batek: *trafiko-isun baten ondorioz (zk: 2007/0xxxxx7) bere aurka abiarazitako bahitze-zuzemena zela-eta errekurtsioa aurkeztu zuen bere ustez isun hori iraungi egin baitzen. Udalaren diru-bilketa sailetik jakinarazi ziotenez, premiamenduzko probidentziaren jakinarazpenak eten egin zuen iraungitzea. Hala ere, herritarrak probidentzia hori epez kanpokotzat jotzen zuen.*

Guk gomendio bat landu genuen horri dagokionez (1. zenbakiko dokumentu erantsia), *Administrazio Publikoa bidegabe aberasten ari zela salatzeko, sartutako balio txikiari zein handiari eusteko bidezko tituluaren jabe ez baita, ordainketaren xedea ez delako bete.*

Ogasun Sailak **gomendio hori onartu zuen**, eta hari jarraiki, isuna baliogabetu behar zen eta diru-sarrerak itzuli (2. dok. erantsia).

Bi hilabete geroago, Sail horren beste erantzun bat jaso genuen, eta, horren arabera, gure gomendioa **partzialki baino ez zen onartu**, bere garaian betearazitako isunaren deuseztapenaren eraginkortasunari dagokionez zalantzak sortu zirelarik (3. dok. erantsia)

2.- Arazoaren azterketa

Administrazioa behartuta dago bere egintzen arabera jardutera, eta ezin du egintza irmo baten aurka egin, baldin eta erabaki horrekin erabiltzaileari kalterik eragiten badio. Gure ustez, Sailak isuna baliogabetzeko hartu zuen lehen ebazpena bidezkoa izan zen, eta lehentasuna eman behar zaio ondorengo erantzunaren aurretik,

gomendioa partzialki onartu zuena kaltegarritasun-deklarazioa izan ezik.

Segurtasun juridikoaren mesedetan, GOMENDATZEN DUGU Udalak administratuarentzat onuragarriena den ebazpena aukera dezan, eta hori jakinarazten dugu Sindiko edo Herritarren Defendatzailearen Araudiaren ildotik eta han xedatutako eraginarekin. GOMENDIO ONARTUA.

- Zaborren gaintasa (erreg. zk.: 1660,1776,1781,1785,1786,1788,1789,1790,1793,1794,1797,1798,1799, 1801/12 eta 1795 , 1800/12 eta 1791, 1796/12).

1.- Arazoaren aurkezpena

Gomendio batzuk eman genituen zaborren tasari buruzko errekaruari dagokionez, eta horren ondorioz herritar ugari etorri zaizkigu Sindikoaren bulegora, bakoitzaren egoera partikularraren berri emateko. Horregatik, aintzat hartu ditugu zabor-tasaren 72. tarifak berekin dakartzan arazoak, eta bidezkoa iruditu zaigu ebazpen berri bat ematea honako hauek aintzat hartuta:

Oso egoera bidegabeak gertatzen dira, guztiak ere erabiltzaileek errekurrituak udal-zerbitzuei egindako eskarietan. Hona hemen horietako batzuk:

1660/12 esp: Herritar baten guraso zaharrek etxebizitza salgai jarri dute irisgarria ez delako, eta tutoretzapeko apartamentu batera joan dira bizitzera. Alabaina, merkatua mugitzen ez denez, ezin dute etxebizitza saldu, eta gaintasa bidaltzen diete etxebizitza horretan ez dagoelako inor erroldatuta.

1776/12 esp: Etxebizitza bat dute Andolluko udalean, eta asteen bi aldiz joaten dira bertara. Hala ere, gaintasa bidaltzen diete etxebizitza horretan ez dagoelako inor erroldatuta.

1781/12 esp: Egiatzatua dago beren etxean egunero ura kontsumitzen dela, titularra etxebizitza erabiltzen ari delako nahiz eta bertan erroldatuta ez egon.

1785/12 esp: Etxebizitza bat du Berroztegieta, eta bigarren etxebizitza gisa erabiltzen dute senarra zendu zenez geroztik, baina titularrarentzat ezinezkoa da aldi berean bi etxebizitzatan erroldatuta egotea.

1786/12 esp: Etxebizitzan 9 urtetik gora zeramatzan erroldatuta, eta lan-arrazoiengatik beste hiri batera bidali zuten; etxebizitza salgai jarri zuen baina ezin izan du saldu, eta gaintasa pasatzen diote etxebizitzan inor ez dagoelako erroldatuta.

1788/12 esp: Otazun badu etxebizitza bat, eta bertan eta Gasteizko etxebizitzan bizi da, txandaka.

1789/12 esp: Negua beste hiri batean ematen dute, baina urteko gainerako sasoieta etxe horretan bizi dira; alabaina, etxebizitza horretan inor ez dago erroldatuta, eta horregatik gaintasa hari bidaltzen diote.

1790/12 esp: Etxebizitza bat berritzen ari da semea bertan bizi dadin, eta obretan dagoen bitartean tasa bidaltzen diote bertan ez dagoelako inor erroldatuta.

1793/12 esp. 2011ko irailean eskrituratu zuen etxebizitza, baina egiatzatutako gaixotasuna tarteko, martxora arte ezin izan du bertan bizi, eta tasa bidaltzen diote urtarrilaren 1ean bertan ez zegoelako inor erroldatuta.

1794/12 esp: Etxebizitzan bizi da normalean, eta kontsumoekin egiazta dezake hori, nahiz eta etxebizitzan inor ez dagoen erroldatuta.

1797/12 esp: 2011ko abenduan erroldatik kendu zen obrak egin behar zituelako (komuneko sabaia bota zuten), eta gaintasa bidaltzen diote.

1798/12 esp: Herentzia baten zenbait titularkidek etxebizitza bat salgai jarri dute, baina etxebizitzak egokitze-premia du eta ezin dute saldu; hala ere, gaintasa bidali egiten diete.

1799/12 esp: Bere semeak urte batzuk eman ditu etxebizitza horretan bizitzen.

1801/12 esp: Pisu bat jaso zuen herentzian, baina ez zegoen bizitzeko moduan. Hala eta guztiz ere, gaintasa bidaltzen diote.

Honako kasu hauetan, **Administrazioak berak eskatzen du etxebizitza horiek husteko:**

1795/12 esp: Bizigune Programaren alokairu-poltsan sartzeko, Eusko Jaurlaritzak eskatzen dio pisua hutsik edukitzeko inolako erroldatzerik gabe gutxienez azken 9 hilabeteetan, eta hala eta guztiz ere zaborren gaintasa bidaltzen diote hutsik daukalako.

1800/12 esp: Eraisteko moduan dagoen etxebizitza baten % 20 baino ez du. Etxebizitza ez dago bizitzeko prestatua, eta interesdunek ez dute hura konpontzeko dirurik; hala ere, gaintasa bidaltzen diete.

Honako kasu hauetan, **Administrazioak 3 hilabeteko epea eman du BOEetan erroldatzeko, eta gainera eskriturak 2011ko abenduan sinatu dituzte:**

1791/12 esp: 2011/12/31n sinatu ditu BOEaren eskriturak, eta horregatik ezinezkoa da egun horretan erroldatuta egotea; urtarrileko lehen egunetan erroldatu zen, baina urtarrilaren 1ean inor erroldatuta ez zegoenez gaintasa bidali zioten.

1796/12 esp: 2011ko abenduan sinatu zituen bere BOEaren eskriturak, eta gainera Udalak gutxienez 3 hilabete eman zizkion erroldatzeko.

Gu funtsezko arrazoi batengatik gaude gaintasaren aurka. Izan ere, zeharka bada ere, ZABOR TASA ETXEBIZITZA HUTSEN ZERGA bihurtzen da, prestazio-xedea duen zerga baten izaera aldatuta.

Zerbitzu Publikoak Eskaintzeagatiko eta Jarduerak Garatzeagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantzaren azken eguneraketan (2012) ezarritakoaren arabera, inor erroldatuta ez dagoen etxebizitzetan, alokatuta daudenetan izan ezik, zaborren tasak 200 €-ko errenergua izango du, gutxi gorabehera. Badirudi argi dagoela errenergua horrek ez duela loturarik zerbitzuaren hornidurarekin; izan ere, isilbidez ondorioztatzen da erroldatzerik ez izateak higiezia ez erabiltzea dakarrela berekin, eta hain zuzen ere kasu horretan ezartzen da tasaren errenergua, nahiz eta ez prestaziorik ez egon.

2.- Arazoaren azterketa

Gure lehen gomendioan esan genuen bezala, zergak legez definitutako diru-sarrera publikoak dira; nahierara aldatu ezin den egitura zehatza dute eta Administrazio publikoak eskatutako diru-prestazioak dira, jardueraren (eta ez beste jarduera baten) garapen eskusiboaren ondorio gisa, eta Legeak kontribuzioa egiteko betebeharra lotu ohi dio horri.

Zabor-bilketako tasaren zenbatekoak zehazten dituen taula zerbitzuaren erabilerako intentsitate handiagoan edo txikiagoan oinarritzen da, jarduera eta okupatutako azalera kontuan hartuta. Irizpide horretako salbuespen bakarra erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzak kasua da, hain zuzen; horiei tasaren zenbatekoa igo zaie (60tik 200 €-ra gutxi gorabehera) eta gorabehera hori ezin daiteke zuzenean edo zeharka lotu aipatutako zerbitzuaren erabilerarekin.

Arauketa anomalo horren bidez, Udalak okupatu gabeko etxebizitzak (erroldatuta inor ez dutenak) zergapetzen dituen zerga berria "contra legem" (zabor-tasen mende) sortu du modu irregularrean.

Oro har, kasu horietako gehienetan interesdunek dokumentu bidez egiaztatu dute inor etxebizitza hori erabiltzen eta okupatzen ari dela, eta, horrenbestez, errekarquak lortu nahi zuen xedea ez da betetzen.

3.- Gomendioa

Gure ustez, eta orain artean esandakoa berretsi behar dugu, *zabor-tasaren 72. tarifak ez du tasari zerga gisa dagokion izaera errespetatzen, ezta legegileari zerga-gaietan dagozkion eskumenak ere, zeharka eta modu biziotsu batean benetako ZERGA bat sortzen duelako okupatu gabeko etxebizitzak gainean, Foru Aldundiaren eskumeneko ondasun higiezin zergarekin zerikusi handiagoa duena zabor-tasarekin baino.*

a) Gaintasaren existentziari berari dagokionez:

Udalaren Osoko Bilkurari GOMENDATZEN DIOGU okupatu gabeko etxebizitzetarako (ez erabiltzailerik, ez maizterrik ez dutenak) 72. tarifa kentzeko aukera azter dezan, eta, egokitzen jotzen badu,

Batzar Nagusietara jo dezan, ondasun higiezinaren zergan karga berezi bat ezar dezan okupatu gabeko etxebizitzetarako.

b) Hutsik dauden etxebizitzetarako gaintasaren aplikazioari dagokionez, tasa horri eusten bazaio:

GOMENDATZEN DUGU interpretatzeko INSTRUKZIO bat emateko, eta, horren arabera, gaintasaren likidaziotik salbuesteko aukera ematea, baldin eta subjektu pasiboak egiaztatzen badu etxebizitza hori okupatu gabe dagoela baina haren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik edo Administrazioaren eskakizunengatik (bizitzeko moduan ez dauden etxebizitzak, bizigune programa), edota, eskriturak egin ondoren, erroldatzeko izapideak egiten ari bazen, baldin eta Administrazioak erroldatzeko epea ematen bazion (BOEak)

Nolanahi ere, eta 2013. urterako:

GOMENDATZEN DUGU Zaborren Ordenantzaren 72. tarifa aldatzea, honako hau jasota: **subjektu pasiboak egiaztatzen badu etxebizitza hori hutsik ez dagoela, kontsumo-froga aurkeztuz, tasa 11., 12., edo 13. tarifa arruntari jarraiki likidatu behar da.**

ZATI BATEAN ONARTUTAKO GOMENDIOA.

- TAO zerbitzuaren salaketa-txartela bidegabe kobratzea (erreg. zk.: 1762 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Sindikoaren bulegora herritar bat etorri da honako egoera hau salatzen: "ordu-txartelean adierazitako ordu-muga gainditzeagatik" isuna ezarri zioten, eta txartel-makinak salaketa BALIOGABETZEKO ematen duen aukera baliatu zuen; ordu-txartelean adierazitako ordutik, gehienez, ordubetean egin behar da hori, baina minutu

batzuegatik muga hori gainditua zegoen. Bere aldetik, toki-administrazioak ez dizkio salaketa baliogabetzeko ordaindu zituen 6 euro horiek itzuli. (Salaketa-jakinarazpena honekin batera doa)

2.- Azterketa eta ebazpena

Herritar batek baino gehiagok salatu dute horren moduko egoera. Lehenago ere zegozkion gomendioak egin genituen (1343/10; 1302/10), baina ez ziren onartu. Gomendia egitean adierazi genuenez, herritarrei jarritako salaketa bidezkoa da eta ordaindu egin behar dute hura; baina tokiko administrazioaren bidegabeko aberastea ez dago justifikatuta, ez baitiete itzultzen salaketa baliogabetzeko oker ordaindu dutena —horretarako zeukaten denbora bukatu ondoren alferrekoa baitzen hori egitea—.

Gure ustez, beharrik gabe ordaindu den zenbatekoa EZ itzultzea **administrazio publikoaren bidegabeko aberastea** da, eta administrazioak ez du bidezko titulurik diru-kopuru hori —handia zein txikia izan— ondarean gordetzeko. Zer dela-eta jaso du Udalak kopuru hori? Zer tituluri jarraiki jaso du Ogasun publikoak hutsegite baten ondorioz jasotako diru hori? Zigor bat da? Zerga bat ote? Prezio publiko bat?

Administrazioak ezin du berea ez den dirua eskuratu, horretarako gaitzen duen lege-titulu baten jabe ez bada. Administratuak hutsegite baten ondorioz ordaindu izana ez da behar adinako titulua.

Palmako Sindikoaren ustez, herritarra behin baino ez da zigortu behar dagokion isunarekin, ez bitan, eta hori gertatzen da oker ordaindutakoa itzultzeari uko egiten badio Udalak, hau da, bi aldiz ezartzen zaiola isuna, isunaren kopuruari baliogabetzeko zenbatekoa gehitzen baitzaio.

Guk berriz ere 6 euroko zenbatekoa itzultzeko gomendioa egin nahi dugu, SALAKETA BALIOGABETZEKO oker ordaindutakoa.

Horixe da gure GOMENDIOA, zure sailak aintzat hartzea espero duguna, herritarren eskubideak eta interesen eta zerbitzu publikoen kalitatearen onerako.

b) Ezestea

- Isunaren ordainketa zatikatzea (erreg. zk.: 1713 / 12)

Erreklamazioa

Herritar batek 210 euroko isunaren ordainketa zatikatzeko eskaera egin digu.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin egon ginen eta zera adierazi genion, oso kopuru txikia dela, eta horregatik Udalak ez duela zertan zatikatzea onartu. Administrazioak ez du horrelakorik onartzen 300 eurotik beherako kopuruetarako. EZESPENA.

- Utzarazpenagatiko gainbalioa (erreg. zk.:1766 / 12)

Erreklamazioa

Herritar batek zera eskatu digu, eragiten dion gainbalio-erreklamazioari buruzko ebazpena eteteko, 2010. urtean gertatutako etxebizitza-utzarazpenari dagokiolako.

Azterketa eta ebazpena

Harekin bildu ginen eta zera jakinarazi genion, neurri hori aztertzen ari dela baina aurten kaltetutakoei dagokienez. EZESPENA.

c) Orientabidea

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak (erreg. zk.: 1869/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek azalpenak eskatzen ditu, xxxxxxxxxxxx kaleko etxebizitzaren eskualdaketa dela eta egindako plusbalioaren likidazioen inguruan.

Azterketa eta ebazpena

Joan den urtarrilaren 14an Ogasun Sailarekin bilera egin ondoren, txosten bat igorri ziguten, non adierazten den udal plusbalioen kalkulua, foru arauak eta udal ordenantzak arautua, katastro lurzorua balioaren arabera egiten dela, merkatuko balioa eta horren bilakaera gorabehera. Egindako likidazioa berrikusi delarik, uste dugu zuzena dela, eta, beraz, ezetsi egin da erreklamazioa. Erantsita doakizu zalantzak argitzeko balio diezazukeen txostena (1. doc).

Informazioa berrikusi ondoren, administrazioaren jokabidea zuzentzat jo beharra daukat. ORIENTAZIOA.

- Hobaria, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (erreg. zk.: 1871/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek eskatzen du berrikusi dakiola 2012ko ekitaldiko OHZren ordainagiria, hobaririk ez zaionez aplikatu (errentaren arabera hobaria).

Azterketa eta ebazpena

Urtarrilaren 14an Ogasun Sailarekin bilera egin ondoren, txosten bat igorri digute, non adierazten diguten ezen erabiltzaileak, zergapeko den aldetik, hobaria eskatu beharko zukeen arren, egina zutela PFEZren aitortpeneko datuen egiaztatpena. *Nolanahi ere, erabiltzaileak erreklamatu eta bere egoera ekonomikoa justifikatzen badu, gehiegizkoa itzuli egingo zaio, erreklamazioa horretarako ezarritako epetik kanpo egonda ere (erantsita doa 1. doc gisa).* Horrenbestez, gomendatu diogu, telefonoz iradoki genion bezala, Ogasun Sailaren bulegoetara joan dadila –Eduardo Dato kalea, 11 - 2. solairua–, behar den dokumentazioarekin (batez ere, errenta aitortpena), eta bertan azaldu dezala berriro bere egoera.

ORIENTAZIOA

- Etiket kanporatzea (erreg. zk.:1872/12)

Erreklamazioa

Herritar batek informazioa eskatu digu, kanporatzeei buruz, etorkizunean berari gerta dakiokela aurreikusten duelako.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin izan ondoren, Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuarekin jarri ginen harremanetan, gizarte baliabideei, elkarteei eta besteri buruzko informazioa jasotzeko, Gasteizen gertatzen diren kaleratzen arazoaren inguruan. Informazioa jaso ondoren, eta bulego honetatik besterik ere aztertu ondoren, informazioa edo laguntza eskuratzeko zein plataforma, elkarte edo zerbitzutara jo dezakezun jakinarazten dizugu:

- Hipoteken Bitartekotza Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzak abian jarria, Ekonomisten Euskal Elkargoaren bitartez. Elkargoaren egoitzan dago zerbitzu hori –San Bizente Paulekoaren kalea, 3 behea–. Tel.: 945250209

- "Kaleratzeak Stop Araba" plataforma, zeinen web orria, oraindik bukatu gabea, esteka honen bitartez kontsulta daitekeen: <http://www.elkartek.info/mapa.php> . Telefonoa: 616 385 471; helbide elektronikoa: stopdesahucios.gasteiz@gmail.com; twiter: @StopAraba, edo facebook. ORIENTAZIOA

2.3.4.2- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Orientabidea

- Udal-lorezainak fatxadan eragindako kalteak (erreg. zk.: 1764 / 12)

Erreklamazioa

Herritar batek kalteak jasan zituen bere fatxadan udal-lorezainen jardueraren ondorioz, eta kalte horiek salatzeke erreklamazioa aurkeztu zuen. Jarraian, aholku bila etorri zaigu, ondare-erantzukizuneko unitateak kalteei buruzko txosten xehatua eskatzen badio nola jardun behar duen jakiteko.

Azterketa eta ebazpena

Harekin bildu ginen, eta zer dokumentu aurkeztu behar dituen jakinarazi genion. ORIENTAZIOA.

2.3.5.- Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila

2.3.5.1- Errolda eta Hauteskundeak

a) Gomendioa

- Erroldako baja norberaren jabetzako etxebizitzan (erreg. zk.: 1689 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batek –xxx xxx xxx– kexa azaltzera etorri zaigu gertaera hauek direla eta: 2011ko maiatzean zegoeneko bere jabetzako etxebizitzan bi pertsonari baja emateko eskatu zuen, jada ez zirelako han bizi, eta geroago kontsultatu zuenean erantzun zioten ez zutela ofizioz baja emateko prozedura abiarazi pertsona horiek eskatzailearen senideak zirelako; hortik ondorioztatu daiteke agiri publikoa faltsutzea egozten diotela, zuzenean esaten ez badute ere. Erantzun hori ez datorrela legearekin bat uste du, eta aipatutako pertsonak ez direla dagoeneko bere etxean bizi berresten du. Haiek erroldatuta jarraitzea ez dator bat errealitatearekin eta, gainera, kalte egiten dio.

2.- Arazoaren azterketa

4/1996 Legearen 17. artikulua Udalak errolda mantendu eta berrikusteko obligazioa duela ezartzen du, eguneratuta egon dadin:

17. artikulua.

1. Udalei dagokie udal errolda osatu, mantendu, berraztertu eta zaintzea, Estatuko legeriak ezarritakoari jarraituz.

2. Udalek behar diren ekintzak eta eragiketak bideratuko dituzte beren erroldak eguneratuta edukitzeko, horietan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen.

Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea –Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena udal erroldari dagokionez– eta Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugen Araudia onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986

Errege Dekretua kontuan hartuz, udal erroldan ofiziozko bajak izapidetzeko arau hauek bete behar dira:

Etxebizitza baten jabeak, edo alokairu kontratuaren titularrak, pertsona bat udal biztanle-erroldan baja eman ahal eta behar du, baldin eta pertsona hori ez bada eskatzailearen bizilekuan bizi, edo urtearen zati handi batean bertan bizi ez bada.

- Jabeak hori egiaztatu beharko du (eskritura publikoa aurkeztuz).
- Maizterrak etxebizitza horretan erroldatuta egon beharko du, eta hori egiaztatzeko alokairu kontratua eta azken ordainagiria aurkeztu beharko ditu.

Eskatzeko nahikoa da dagokion orria eta agiri hauek aurkeztea:

- Eskatzailearen nortasun agiriaren jatorrizkoa eta fotokopia.

Atzerritarrek agiri hauen jatorrizkoak eta fotokopiak aurkeztu behar dituzte:

- Europar Batasuneko kide diren estatuetakozko nazionalitatea duten herritarrek: egoitza txartela, nortasun agiria edo pasaporteak, indarrean.

- Europar Batasuneko kide ez diren estatuetakozko nazionalitatea duten herritarrek: egoitza txartela edo pasaporteak, indarrean.

•Eskabidea jabeak egiten badu: jabetza eskrituraren jatorrizkoa eta fotokopia.

•Eskabidea maizterrak egiten badu: indarreko alokairu kontratuaren jatorrizkoa eta fotokopia. Indarraldia luzatu bada, eskabidea egiten den hileko ordainagiriaren jatorrizkoa eta fotokopia erantsi beharko dira.

Udalak gutun ziurtatu bat bidaliko du baja eman nahi d(ir)en interesdun(ar)en izenean. Haiek JASOTZEN EZ BADUTE, pertsona horiek ez direla bizileku horretan bizi egiaztatuko da, eta ofizioz baja emateko izapideak azkartu egingo dira.

Baja eskatzen duen pertsona eta baja eman nahi zaion pertsona senideak izatea ez da esanguratsua berez, baldin eta adindunak badira.

3.- Ondorioa

Hori guztia aintzat harturik, GOMENDATZEN DUGU erreklamatzailerak eskatutako ofiziozko baja gauzatu dadin, uste baitugu legeak ezarritako betekizunak betetzen direla. Legearen aginduz aipatu diren dokumentuetakoren bat ekarri beharko balu, hori jakinarazi beharko litzaioke, horrela eskabidea hobetzeko aukera izan dezan.

2.3.5.2- Zuzendaritza

a) Orientabidea

- Gizarte laguntza ez ordaintzea (erreg. zk.: 1723 / 12)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du egoera ekonomiko txarrean egon arren ez duela gizarte laguntzarik jaso.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin bildu eta arazoa konpontzeko bere gizarte laguntzailearengana joan behar duela esan diogu, orain Lanbideren ardura bada ere. **ORIENTAZIOA.**

- Auzotarrekin bizitzeko ezintasuna (erreg. zk.: 1690 / 12)

Erreklamazioa

Salatzaileen esanetan, beren etxebizitzaren azpiko lonjako maizterrak enbarazuak eta txikizioak eragiten ari dira komunitatean. Haien ustez Udalak esku har dezake, lokala Udalarena delako.

Azterketa eta Ebazpena

Behin Udalaren txostena eskatu eta jaso ondoren, jakinarazi diegu Udalak ez duela inolako elementurik Komunitate horren eraikinean. ORIENTAZIOA

- Laguntzak eta Lanbide (erreg. zk.: 1702 / 12)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du gizarte laguntzak jasotzeari utzi diola eta ez dakiela zer egin behar duen orain.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzailearekin izandako elkarrizketan azaldu diogu Lanbiden izena eman beharra duela. ORIENTAZIOA.

- Menpeko egoeran dagoen amarentzako laguntza (erreg. zk.: 1782/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu duenez, Aldundiko gizarte zerbitzuek balorazioa egin dutelarik, ez diote laguntzarik eman bere amari.

Azterketa eta Ebazpena

Gizarte zerbitzuetan erreklamazioa aurkeztu dezala aholkatu diogu, eta erabiltzailearekin harremanetan jarri garelarik adierazi digu

une honetan bost orduko laguntza ematen ari zaizkiola bere amari, eta zain dagoela aldundiak beste balorazio bat noiz egingo.

ORIENTAZIOA

- Janarietarako laguntzak (erreg. zk.: 1817/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du janarietarako laguntzak jasotzen ari zela, baina abuztutik ez diotela ordaindu dagokiona.

Azterketa eta Ebazpena

Gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri garelarik, jakinarazi digute ezen, langabezia saria eta etxebizitza alokatzeko GLL jasotzen zuenez, eta gainera logela alokatu bat zuenez, ez zegokiola eskatzen zuena. Hala jakinarazi genion berarekin hitz egin genuelarik.

ORIENTAZIOA

- Lanbidera bideratzea (erreg. zk.: 1874/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek eskatzen zuen gizarte zerbitzuek azaldu ziezaiotela zergatik ukatzen zioten eskatutako gizarte laguntza eta Lanbidera bideratzen zuten.

Azterketa eta Ebazpena

Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailarekin elkarrizketatu ginelarik joan den urtarrilaren 16an, txosten bat igorri ziguten, non adierazten den: gizarte laguntzei buruzko informazioa eskatu zenuen

zuk, eta zerbitzu honetan ditugun datuen arabera Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta etxebizitzarako laguntza osagarria jasotzeko baldintzak betetzen zenituen. Horregatik bideratu zintugun Lanbidera, hura izaki laguntza horiek kudeatzen dituen (...). Gainera zerbitzu horretatik (Lanbide) jaso beharko zenukeen laguntza aurreratu zitzaizun, 1.700 euro, gero itzultzeko konpromisoarekin (...) (txostena eransten dugu 1. agirian). *ORIENTAZIOA*

b) Bitarteko jarduera

- Gizarte laguntzak: ez kobratzea (erreg. zk.:1694 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera salatu du, azken hiru hilabeteetan ez duela gizarte-laguntzarik jaso.

Azterketa eta Ebazpena

Behin Udalaren txostena eskatu eta jaso ondoren, zera jakinarazi diogu, sailari eman behako ziokeela horren berri, baina, horrelakorik egin ez zuenez, orain auzia Lanbideren zerbitzuaren esku dagoela. BITARTEKO JARDUNA.

c) Ezestea

- Oinarrizko errenta etetea, izen-mailegatzaila (erreg. zk.: 1710 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu digu oinarrizko errenta eten egin diotela, eta horretarako eman dizkioten arrazoiak ez ditu ulertzen.

Azterketa eta ebazpena

Sailari txostena eskatu diogu, eta behin jaso ondoren bidali egin diogu erabiltzaileari, izapideak zuzenak izan direla jakinaraziz, eta arrazoiak zehatz-mehatz azaltzen dituen testu osoa erantsiz. EZESTEIA.

- Alokabideren alokairu-luzapenari ez erantzutea (erreg. zk.: 1780 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaileak zera salatu digu, Alokabideren pisu bat zeukala alokairuan, eta kontratuaren luzapena eskatu zuela. Udala, ordea, dokumentazioa eskatzen ari zaio azken hilabetean gastuari aurre egiteko gaitasun ekonomikoa baduela egiaztatzeko.

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzailearekin bildu ginen, eta aurkeztu zizkigun dokumentuak aztertu genituen; jarraian, Administrazioa oraindik ebazteko epearen barruan zegoela adierazi genion. EZESPENA.

- Auzotarren arteko zarata-arazoak (erreg. zk.: 1792 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat kexu etorri zaigu, honako hau adieraziz: "*bere anaiaren gaineko pisuan bizi den familia zalapartaka ari da etengabe; emakume bat eta bi neskato dira, eta egunean zehar ez dira kalera ateratzen*"

Azterketa eta Ebazpena

Erabiltzaileekin bildu ondoren, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin jarri ginen harremanetan gaia aztertzeke, eta zera esan ziguten, jakinaren gainean zeudela, hainbat ikuskapen eta elkarrizketa eginda zeuzkatelako horren harira. Gizarte Zerbitzuen ustetan, familia horrek ez du gizarte-larrialdiren bat justifikatzeko moduko arazorik.

Auzoarte jatorreko araei jarraiki, adingabeek etxebizitzan eragin ditzaketen zaratei eraginpeko alderdien artean heldu behar zaie, edo bestela auzo-batzordean, edo, hala badagokio, epaitegien aurrean, aurreratzen dizuegunez partikularren arteko arazo bat delako, udal-ordenantzen araubidetik kanpo egonik Udalari esku hartzeko gaitasunik ematen ez diona.

Erreferentziazko datuen arabera, Udal Administrazioak zuzen jokatu du, Legean ezarritakoaren arabera, eta hortaz horren inguruan ez dugu inolako gomendiorik egin behar. EZESPENA

- Aldi baterako desgaituaren txartel-eskaera (erreg. zk.: 1757 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salaketa aurkeztu du aldi baterako desgaituentzako aparkatze-txartelaren eskaera dela-eta kexatzeko.

Azterketa

Zera jakinarazi behar dizugu, urriaren 17ko 236/1989 Dekretua, minusbaliatuak daramatzaten ibilgailuen aparkatzeko txartela sortzen eta arautzen duena eta Gizarte Zerbitzuei buruzko maiatzaren 20ko 6/1982 Legearen eta Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen babesean eman zenak (azken horren 60. artikulua) arabera, Udalek neurri egokiak jarri behar

dituzte abian mugitzeko zailtasun handiak dituzten minusbaliatuei beren automobilak aparkatzeko erraztasunak emateko), zera utzi duela agerian, txartel hori tresna eraginkorra dela gizarteratzea eta laneratzea errazteko, mugitzeko zailtasun handiak izaki garraio publikoak erabiltzeko mugak dituzten pertsona askori aukera ematen dielako komunitate-eremu eta -zerbitzuetan autonomiaz sartzeko ibilgailu partikularrak erabiliz, txartelari esker jomugako gunean aparkatzeko abantailak dituztelarik.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidego udalerrri batean bizi diren eta desgaitasun fisiko edo psikiko larriren bat duten pertsona guztiak jotzen ditu desgaituentzako aparkatze-txartela lortzeko eta erabiltzeko eskubidearen jabetzat, baldin eta Euskadiko Foru Aldundietako Balorazio eta Orientazio Unitatearen baiezkoko irizpena lortu badute.

Hortaz, gure ustez, txartel horren helburua ez da aparkatzeko aukera ematea aldi baterako baja batengatik, txartelaren eskatzailearen DESGAITASUN LARRI ETA IRAUNKOR batengatik baizik.

Ebazpena

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU eskaera.

- Zaratak udalaren etxebizitzan (erreg. zk.: 1615/11)

Erreklamazioa

Berearen gaineko etxebizitzatik iristen zaizkion zarata gogaikarriak salatu ditu erabiltzaile batek. Goiko etxebizitza hori udalaren jabetzakoa da.

Azterketa

Adierazi diogu ezen, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailarekin elkarrizketatu ondoren txosten bat igorri digutela, non zehazten den Gizarteratze Zerbitzuaren gizarte larrialdietarako etxebizitza dela hori, eta kontuan hartuko dituztela zaratak direla eta aurkeztutako kexa, eta saiatuko direla aurrerantzean halakorik gerta ez dadin, bertan bizi diren edo gerora bertan bizitzen jartzen diren pertsonekin duten esku hartze profesionalaren baitan (...).

Administrazioaren jokabidea indarrean dagoen legediaren arabera izan da kasu honetan, eta, gainera, salaketari konponbidea jartzeko lanean ari da:

Ebazpena

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU kexa.

- Alokairu sozialerako etxebizitza ezegokia (erreg. zk.: 1637/11)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du gizarte zerbitzuek ez diotela onartzen bere etxebizitza alokairu sozialerako.

Azterketa

Joan den abenduaren 26an Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailarekin elkarrizketatu ondoren, txosten bat igorri digute, non zehazten den logelak alokatzeko etxebizitza bat dela hori, xxxxxxxxxxxx kalean kokatua, eta ez dituela betetzen abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. eranskinean galdatzen diren gutxieneko bizigarritasun baldintzak. Zakuto gisako etxebizitza bat da, 31 metro koadrokoa, bi zatitan banatua; zatietako batek logela, komuna eta sukaldea dauzka, eta besteak logela bat eta komuna. Etxebizitzak ez dauka espazio komunik, partekatzeko, eta logelek ez dute leihorik (...)

Ebazpena

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU kexa.

- Laguntza eskabidea erantzunik gabe (erreg. zk.: 1787/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du laguntza eskabidea aurkeztu zuen arren gizarte zerbitzuek ez diotela erantzun.

Azterketa

Adierazi diogu ezen, Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailarekin hitz egin ondoren, txosten bat igorri digutela, non zehazten duten 2012ko maiatzaren 8an egindako eskabidea –Gizarte Larrialdirako Laguntza, etxebizitza mantentzeko gastuei dagokiena– ukatu egin zitzaiola, bateraezina izaki Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotzen duen beste batekin. Ebazpenaren jakinarazpena etxera bidali zitzaion, eta errefusatu egin zen. 2012/12/17an aurkeztu zuen eskabide berria ere ukatu egin zaio, arrazoi beragatik, eta aurki jakinaraziko zaio. (ikus txostena 1. eranskinean)

Ebazpena

Kasu honetan, bada, administrazioaren jardunbidea indarrean dagoen legediaren arabera izan dela esan daiteke. EZESPENA

d) Errefusatzea

- Bidegabeko kobratzeei buruzko erreklamazio bidegabea (erreg. zk.: 1772 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaileak zera salatu du, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen ari zela, eta une jakin batean Administrazioak jakinarazi ziola langabezia-sorospena jaso behar zuela. Alabaina, ondoren 5800 euro erreklamatu zizkion Administrazioak, bidegabeko kobratzeengatik.

Azterketa eta Ebazpena

Lehenik eta behin, Sindikoak erabiltzaile horri jakinarazi nahi dio ulertzen duela egoera zail bati egin behar diola aurre; prima facie, gure ustez erabiltzaileak arrazoa du, bidegabeko kobratze hori Administrazioen jardun koordinatu gabearen ondorioz etorri delako. Nolanahi ere, guk ez daukagu gai horretan esku hartzeko eskumenik, inplikaturako Administrazioak Eusko Jaurlaritza eta Ministerioa direlako.

Sindikoak eskumena du Gasteizko herritarren eta Udalaren Sail eta Zerbitzuen arteko kexetan bitartekari izateko, baina Lanbide da gaur egun horrelako laguntzak kudeatzen dituen organoa, eta harekiko bitartekotza-lana egiteko eskumenik ez dugu.

Horrenbestez, Arartekora bideratu dugu, huraxe baita Administrazio horien aurrean bitartekari izan daitekeen eskumeneko instantzia.

e) Bideratzea

- Laguntzak ukatzea eta Lanbide (erreg. zk.: 1878/12)

Erreklamazioa

Herritar batek kexa aurkeztu zuen, eta eskatu azaldu ziezaiotela zergatik Lanbidek ukatuak zizkion gizarte laguntzak.

Azterketa eta ebazpena

Adierazi diogu Sindikoak ez duela eskumenik gai horretan, eta Arartekoarengana jo behar duela, hark baitu eskumen hori.
BIDERATZEA

2.3.5.3- Ondare Erantzukizunaren Atala

a) Gomendioa

- Egoera txarrean zegoen kutxatila eragindako erorikoa (erreg. zk.: 1747 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek adierazi digunez, erreklamazio bat aurkeztu zuen egoera txarrean zegoen kutxatila baten ondorioz izandako erorikoa zela-eta, eta ondare-erantzukizuneko prozeduraren (*zenbakia: 2011/hacrpXXXX*) ebazpenarekin ez dagoela ados salatu nahi du.

Azterketa

Gure bulegora etorri zenean, zera adierazi zigun, gurpil-aulki elektrikotik erori zela, San Antonio kaleko oinezkoen pasabidean aulkiak gaizki kokatutako kutxatila batekin estropezu egitean. Bi udaltzain berehala joan zitzaizkion laguntzera. Erorikoaren ondorioz, gurpil-aulkia hondatu zen, eta gainera mina du giharretan; horregatik, kalte-ordaina eskatzen du. Gasteizko Udalak zera ebatzi du, zerbitzuaren funtzionamenduaren eta kaltearen arteko kausalitate-erlazioa ez dela behar bezala frogatu, eta, horregatik, Udalari ezin dakiokela ondare-erantzukizunik egotzi, besteak beste honako arrazoi hauengatik:

- *Poliziak zegokion txostena egin zuen, baina horrek ez ditu gertakariak frogatzen, agenteek ez zituztelako gertakariak ikusi.*
- *Txosten medikoek ere ez dute argitzen istripua nola gertatu zen.*
- *Ez dago egiaztatzerik erreklamatutako kalte materialak istripuaren ondorio izan zirenik, agenteek bi gurpiletan eragindako kalteak bakarrik egiaztatu dituztelako*
- *Inork ez zion herritarren zerbitzuari edo bide publikoko zerbitzuari deitu udal-zerbitzuei kutxatila hondatua zegoela jakinarazteko; espedientean ez da dei bat ere jaso horri dagokionez. Jasota dago, ordea, Bide Publikoko Zerbitzuak akatsa konpondu egin zuela, horren berri izan eta berehala. (...)*

Ildo horretan zera jakinarazten dizugu, joan den ekainaren 18an, erabiltzailearen esanetan erorikoa gertatu zen eremua ikuskatu egin genuela, gertakariei buruz esandakoa bertatik bertara egiaztatzeko (ateratako argazkia honekin batera doa).

Gure ustez, erabiltzailearen adierazpenekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta zera ondorioztatu behar dugu, kasu horretan Udalaren jarduna ez dela, inondik inora, onargarria. Kasuaren zantzuak nabarmenak dira, eta erantzukizuna onartzea ekarri beharko lukete berekin. Ondare Erantzukizuneko Zerbitzuaren jardunak gertakarien ezinezko froga bat eskatzen du nolabait, eta argi dago ez dagoela inolako objektibotasunik, parte baten interesei lehentasuna eman zaielarik.

- Erorikoaren ondorioz deia jaso ondoren gertakarien tokira iritsi zirenean, agenteek aukera izan zuten zaurituaren inguruan pilatutako herritarren testigantza entzuteko, baina gertatutakoaz galdetu beharrean, sakabanatzeko eskatu zieten. Udaltzainek ez zituzten erorikoa zuzenean ikusi, baina gertakarietako, tokiko eta uneko elementu guztiak bertatik bertara ikusi zituzten: zantzuen arabera argi zegoen erorikoa gertatu zela kutxatila gaizki jarrita zegoelako. Erreklamatzailleak gertakariari buruz emandako azalpena guztiz logikoa zen, eta beste edozein azalpen BIDEGABEA izango zatekeen. Kontua da gurpil-aulkia errepidean erori zela, eta elementu ortopediko egonkor hori nekez erori edo kalte daitekeela udaltzainen esanetan kaltetu zen bezala; zantzu guztien arabera, erorikoa gertatu zen gurpiletako bat erori egin zelako apurtutako edo gaizki estalitako kutxatilaren barruan.
- Gurpil-aulkia adituen zerbitzu tekniko batera eraman zuten, eta zerbitzu horrek egiaztatu zuen aulkiaren gurpilak ez ezik motorra ere kaltetua zegoela.
- Gainera, estoldaren egoera txarra salatzeke deirik jaso ez bazen ere, Udalaren txostenak, bere argudioekiko kontraesanen nabarmen, zera dio, kutxatila hori istripua gertatu eta gero konpondu zela, eta horren arabera, bide publikoaren zerbitzuaren akatsak frogatu egiten du akatsik egon bazegoela.

Gure ustez Administrazioak ez du jardun exijitu behar zaizkion objektibotasun-betebeharren arabera, eta defentsa-jarrera interesatua hartu du, areago kontuan hartzen badugu kasu honetan desgaitu bat erori dela bide publikoaren akats baten ondorioz.

Ezin diogu Administrazioari eskatu bere erantzukizunaren bila jarrera proaktiboa hartzea, baina ezin dugu ahaztu Administrazioak interes orokorren arabera jarduten duela, eta ez interes partikular soilen alde, eta beraz, jarduterakoan epailea eta parte dela nolabait. Horrenbestez, ahalik eta objektibotasunik handienarekin jardun behar du, interes partikular legitimoak babestuz. Ezinezkoa da Administrazioak bere prerrogatiba eta abantailei soilik begiratzea, eta erreklamazio partikularrei horrelako erantzuna ematea.

Erreklamatzailleak gertakariari buruz emandako azalpena logikoena da, eta Administrazioak hori ez onartzeak, kaltetuak plantak egin zituela edo iruzur egin zuela iradokiko luke nolabait, gertakariak kaltetuaren irudimenaren ondorio balira bezala.

Udalak bere egintzak ofizioz berraztertzeke aukera dauka, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie, kasu honetan bezala, eta horregatik GOMENDATZEN DUGU ebazpen hori berraztertzea, bidezkoa delako.

Nolanahi ere, berriz ere azpimarratu behar dugu gure ustez udalak zekenkeriaz eta bidegabe jardun duela erreklamazio hori balioestean, Udalak bere erantzukizuna ez onartzearen ondorioz abian jar litekeen administrazioarekiko auzi-prozesuaren xedeetarako.

2.3.6.- Ingurumen Saila

2.3.6.1- Espazio Publikoa eta Natur Ingurunea

a) Gogorarazpena

- Hosto haizagailuak (erreg. zk.: 1644 / 12)

Erreklamazioa

Hiriko lorategiak ureztatzeko jarri diren ihinztargailuekin kexu diren hainbat herritar etorri zaizkigu bulegora.

Azterketa eta ebazpena

Jakin badakigu Udala hostoak kentzeko programarekin lanean aritu dela, udazkenean bereziki, eta eraginkortasun handiagoa eskaintzen eta enbarazuak gutxitzen saiatu dela. Alabaina, herritarrek jakinarazi digutenez, *Burubizkarra kaleko lorategietan bereziki langileak ez dira kontu handiz ibiltzen eta, ondorioz, garbiketa egitean zikinkeria etxeetara sartzen zaie.*

Segur aski enbarazua konpondu egin ahalko da garbiketa egiteaz arduratzen diren langileek ihinztargailuak etxebizitzetatik urrutixeago jartzeko ahalegin txikia egiten badute.

Honakoa gure GOGORARAZPENA da.

- Hiriguneetan baimendu gabeko herbizidak erabiltzea (erreg. zk: 985 / 08)

Erreklamazioa

Gasteizko herritar bat kexu etorri zaigu zera adierazteko, ingurumenaren aldeko elkarten kexei, osoko bilkuraren mozioei eta gure gomendioei kasurik egin gabe, Gasteizko Udalak oraindik ere ez duelako oztoporik jartzen bizitegi- eta kirol-eremuetan herbizidak aplikatzeko, hiriguneetan barrena baimendu gabeko produktuak aireratuz, arauzko segurtasun-oharrak, -epeak eta -arretak ere aintzat hartu gabe. Egoera larri jakin batzuetan, horrek delitu ekologikoa edo osasun publikoaren aurkako delitua ekar dezake berekin.

Azterketa

Zigor Kodearen 325. artikulua honela definitzen du delitu ekologikoa: zuzenean edo zeharka, emisioak, isurketak, erradiazioak, erauzketa edo indusketak, lurperatzeak, zaratak, bibrazioak, injekzioak edo metaketak eragitea edo egitea atmosferan, lurpean, lurrean edo lurreko, lurpeko edo itsasoko uretan, baita itsas zabalean ere, mugaz gaindiko eremuetan eta urak biltzeko lanetan eragiten dutenak barne. Jokabide horietako bat egiaztatzeaz gain, ohiko bi baldintza osagarri hauek ere bete behar dira: legeak edo ingurumena babesteko bestelako xedapen orokorrak haustea, eta sistema naturalen oreka larriki kaltetzeko aukera badagoela egiaztatzea.

Zigor Kodearen 359. eta 360. artikuluek zera ezartzen dute, **osasunerako kaltegarri diren substantzien edo oso kalte handiak eragin ditzaketen produktu kimikoen** trafikorako baimena dutenei, produktu horiek banatu edo hornitzean lege eta araudietan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badituzte, sei hilabetetik hamabi hilabetera bitarteko zigorra ezarriko zaiela, eta hori ez ezik, beren lanbide edo ogibidean sei hilabetetik bi urtera bitarte jardutea galaraziko zaiela. Eremu baztertuetan edo arauz kontrako egoeran, osasunerako kaltegarri diren legez kontrako produktuak erabiliz tratamendu fitosanitarioak aplikatzea egon liteke delitu horren barruan.

Bere garaian ohartarazi genuen zenbait hirigunetan baimendu gabeko herbizidak erabiltzen ari zirela, eta beste zenbait metodo alternatibo ez-kimiko erabili beharra zegoela parke eta lorategietako izurriteak eta belar txarrak ezabatzeko. Udal Sailak gomendio horiek guztiak onartu zituen (gomendioa eta onarpena honekin batera doaz).

Kaltetutako herritar batek telefonoz deitu digu, eta zera esan digu, joan den maiatzaren 25ean, 17:00etan gutxi gorabehera, eta une horretan 32 °C-ko tenperatura bazegoen ere –esan gabe doa tenperatura hori guztiz desegokia dela produktu horrek toxikoak barreiatzen dituelako– zenbait langile herbizidekin fumigatzen ari zirela, jendeari ohartarazi gabe eta beharrezko prebentziorik gabe, Rosalia de Castro kaleko eta Senda ibilbideko bizitegi- eta kirol-eremu ludikoan.

Ebazpena

Berriz ere gogoratu behar ditugu, batetik, jendeak erabiltzen dituen eremuetan edo biztanle talde sentikorrek ibiltzen diren eremuetan plagizidak erabiltzeko eta merkaturatzeko arauak bete behar direla, eta bestetik, Hiriak iraunkortasunaren aldeko konpromisoak nazioarteko arrakasta lortu duela, Gasteiz “pestizidarik gabeko parke eta lorategiak dituen hiritzat” jo baitute, hain zuzen ere Green Capital urtean.

Horixe da gure GOGORARAZPENA, zure sailak aintzat hartzea espero duguna, herritarren eskubide eta interesen eta zerbitzu publikoen kalitatearen onerako.

b) Orientabidea

- Saretxoak bide publikoan, Uralmendi kalean (erreg. zk.: 1736/ 12)

Erreklamazioa

Herritar batek Udala salatu du aireztapen-saretxoak bide publikotik kentzeagatik, aireztapenik ezean etxebizitzetan hezeguneak sortu zirelako.

Azterketa eta ebazpena

Zera adierazi diogu, egoera horren azken arduradunak auzotarrak direla, baina hark dokumentazioa ekarriko du horri buruzko idazki bat lantzeko. ORIENTAZIOA.

- Gazteentzako lonjetarako jarduera-lizentzia (erreg. zk.: 1697/ 12)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu digu alokatua zuen gazte-lonja itxi egin dutela, zaratek eragindako salaketen ondorioz eta abar.

Azterketa eta ebazpena

Sailarekin bildu gara eta zera adierazi behar diogu, Saileko arduradunek uste dutela horrelako lokalen alokairuaren barnean aisia-jardueraren lizentzia hartu beharko litzatekeela. ORIENTAZIOA

c) Ezestea

- Baratze ekologikoaren emakida (erreg. zk.: 1743 / 12).

Erreklamazioa

Herritar bati baratze ekologiko bat erabiltzeko baimena eman zioten, baina baimena kendu egin zioten herbizidak bidegabe erabiltzeagatik.

Azterketa eta ebazpena

Zera adierazi diogu, baratze ekologiko batean ezinezkoa dela horrelako plagizida herbizidak erabiltzea. EZESPENA.

- Bidegorria oinezkoentzako kalean (erreg. zk.: 1808/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du espazio urria utzi dutela oinezkoentzat bera bizi den kalean, bidegorria jarri ondoren.

Azterketa eta ebazpena

Bertatik bertara ikuskatu genuelarik joan den azaroaren 6an, ikusi genuen bidegorritik Teodoro Dublang Margolariaren kaleko atari bakoitietarainoko distantzia aski zabala dela, 5 metro ingurukoa. (*ikus argazkiak erantsitako 1. agirian*)

Uste dugu kontu zaila dela oinezkoak eta bizikletak behar bezala moldatzea elkarrekin bide publikoan, baina kasu honetan esan dezakegu administrazioaren jokabidea egokia izan dela. EZESPENA

d) Errefusatzea

- Zaratak auzotarren artean (erreg. zk.: 1732/ 12)

Erreklamazioa

Herritar bat etorri zaigu salatzeko *goiko solairuko auzotarren jarrerak eragozpen ugari dakarzukiola: zaratak, ordutegiak eta abar.*

Azterketa eta ebazpena

Sindikok honek ulertzen du seguruenik egoera larri bat bizitzen ari direla, baina partikularren arteko gatazka da azken finean, eta guk ez dugu eskumenik horretan esku hartzeko. Sindikok eskumena du Gasteizko herritarren kexen eta Udala osatzen duten sail eta zerbitzuen arteko bitartekaritza-lana egiteko, baina ez etxe bateko jabekide-komunitatearen barnean sortzen diren arazoetan sartzeko.

Horrelako arazoak konpontzeko, **Auzotarren arteko Bitartekaritzarako Udal Zerbitzua** indarrean dagoela jakinarazi diogu, honako helbide honetan:

San Bizente aldapa, z/g
01001 Vitoria-Gasteiz
Tlfn.: 945 161240 eta 945 161250

Sentitzen dugu, baina ezin dugu inolako ebazpenik eman haren eskaerari erantzuteko, eta nolana ere eskerrak ematen dizkiogu erakunde honetan jarri duen konfiantzarengatik; tamalez, oraingo honetan ezin dugu haren kexaren aldeko ebazpenik eman.

e) Bitarteko jarduera

- Zaratak Diputazio kaleko patioan (erreg. zk.: 1737/ 12)

Erreklamazioa

Herritar batek informazioa eskatu digu Diputazio kalean duen etxebizitzaren barneko patioan entzuten diren zaratak nondik datozen jakiteko.

Azterketa eta ebazpena

Horri buruzko informazioa eskatu ondoren, Ingurumen Saileko arduradunek zera adierazi digute, udalaren zerbitzu teknikoak xxxxxxxx kalean kokatutako xxxxxxxx taberna-jatetxera bertaratu zirela lokala ikuskatzeko, eta zera ikusi zutela, erretzeko parrillek ateratako keen irteerak difusio eskasa duela patioaren barruan; hori izan daiteke zuk entzuten dituzun zaraten arrazoia.

Ildo horretan jakinarazi behar dizugu establezimendu horretako titularrei eskatu zaiela, Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Sailak emandako Dekretuaren bitartez, hustuketa-tximiniaren difusioa hobetzeko.

Gure Bulegoak zorrotz zainduko du Dekretu hori betetzea, salaketa hori ez ezik beste zenbait erabiltzaile ere kexu etorri zaizkigulako Prado kalearen eta Diputazio kalearen barneko patioan dituzten etxebizitzetan entzuten dituzten zaratak salatzeke.

f) Bideratzea

- Apaizgaitegiko pilotalekuak enbarazu egitea (erreg. zk.: 1696/12)

Erreklamazioa

Apaizgaitegiko pilotalekuko hesiaren egoera txarrak sortzen dion enbarazua salatu du herritar batek, zeharkatu egiten baitute hura pilotek, eta leihoraino iristen baitzaizkio.

Azterketa eta ebazpena

Bilera izan dugu dagokion sailarekin, eta erantzulea aldundia dela jakinarazi digute, eta galdatu zaiola konpondu dezala. Hala jakinarazi diogu herritarrari. BIDERATZEA.

g) Herritarrak berak itxia

- Kutxatilak Antepara kalean (erreg. zk.: 1770/12)

Erreklamazioa

Herritar batek salatu du Antepara kalean obrak egitean bere garajeko kutxatilak zulatuegi geratu direla, eta horren ondorioz ur jaurtigailuekin igarotzen direnean sotoa urez betetzen zaiola.

Azterketa eta ebazpena

Bertan izan gara lekua ikuskatzen, eta berriro jarri gara harremanetan erabiltzailearekin, jakinarazteko txostena eskatuko diogula eskumena duen zerbitzuari. Berak, ordea, nahiago du

etxejabeen elkarteak ontzat eman arte itxaron. ERABILTZAILEAK ITXIA.

2.3.6.2-Zuzendaritza

a) Gomendioa

- Kebidea jartzea (erreg. zk.: 1638/ 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

2011ko azaroaren 30ean eta 2011ko uztailaren 29an udalean eskaerak aurkeztu zituela adierazi digu herritar batek. Data horiek erregistro datak dira. Ordutik ez du inolako erantzun idatzirik jaso.

2.- Azterketa

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: 2011ko azaroaren 30ean eta 2011ko uztailaren 29an ingurumenaren arloko erreklamazioa aurkeztu zuen udalean, hain zuzen ere okindegi bati (xxxx) behin-behinekoz baimendutako aireztapen-instalazioen ingurukoa.

2012ko martxoaren 7an oraindik ez du Administrazioaren erantzunik jaso, ez aldeko ez kontrakorik.

Gure ordenamendu juridikoan administrazioaren isiltasunaren figura jasotzen da, herritarrak nahi izanez gero administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan. Dena den, laburra bada ere, *esanbidezko* erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea du beti, administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen edo ez adieraziko diona.

Administrazio Prozedura Erkidearen 30 / 92 Legearen 42. 1 artikulua honako hau ezartzen du:

42.1. artikulua.- *Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.*

42.3. artikulua.- Prozeduretako arauetan gehieneko eperik ezartzen ez denean, hiru hilabetekoa izango da.

Herritarrei dagokion jurisdikziora jotzeko aukera ematea du helburu administrazioaren isiltasunaren figurak, baina horrek ez du baztertzen herritarren eskabide eta idazkiei berariaz erantzun nahiz halakoak ebatzi beharra.

3.- Ondorioa

Herritarrak erreklamazioa aurkeztu zuenetik igaro den denbora kontuan hartuta, gure ustetan bada arrazoirik UDALEKO INGURUMEN SAILARI herritar horrek egindako eskariei ERANTZUN DIEZAIELA **GOMENDATZEKO.**

- Prostituzioa Barnekale berrian (erreg. zk.: 1544/ 11)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat bulegora etorri zaigu salatzeko Udalak ez diola inolako erantzunik eman **Barnekale berriko bi lokalek keak ateratzeko biderik gabeko sukaldea eta oheak dituztela-eta 2012ko MAIATZAREN 17an** aurkeztutako Instantziari dagokionez. **Salatu duenez, ohe horiek prostituziorako eta proxenetismorako erabiltzen dituzte,** eta hori gutxi balitz, haren ustez jarduera-lizentziak ez du erabilera horietarako baimenik ematen, eta hortaz, bertan behera geratu beharko lirateke. (1. dokumentu erantsia).

2.- Azterketa

Erabiltzailea Sindiko honengana etorri da, eta zera salatu du, horri buruzko dokumentazioa aurkeztuz: "2012ko maiatzaren 17an instantzia aurkeztu zuen gertakariak salatzeko. Udalaren aldetik erantzunik jaso ez zuenez, 2012ko ekainaren 19an erabaki zuen Sindikoari kexa aurkeztea, bitartekari gisa jardun zezan. Udalaren ingurumen-teknikariek adierazi zioten gaiaren berri bazutela, baina erabiltzaileak ez du oraindik ez aldeko ez kontrako erantzunik jaso Administrazioaren aldetik".

Gure antolamendu juridikoan administrazioaren isiltasuna dago indarrean, herritarrak, hala nahi badu, administrazioarekiko auzi-jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan, baina, hala eta guztiz ere, *esanbidezko* erantzun arrazoitu labur bat jasotzeko eskubidea dauka herritarrak, Administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen ala ez jakiteko.

Administrazio Prozedura Erkidearen 30 / 92 Legearen 42. artikulua honako hau ezartzen du:

42.1 artikulua- *Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura hori edozein dela ere*

Administrazioaren isiltasunaren helburua herritarrei jurisdikzioan sartzeko aukera ematea da, baina hori ez ezik, herritarren idazki eta eskabideei esanbidez erantzuteko eta ebazteko betebeharra ere bete behar du.

3.- Ondorioa

Iragan den denbora aintzat hartuta, aurkeztutako erreklamazioa sakonetik aztertu gabe eta erabiltzaileak egindako alegazioak baliozkoak diren edo ez zehaztu gabe, dagozkigun xedeetarako honako hau **GOMENDATZEN DIOGU** eraginpeko Sailari:

1.- Salatutako gertakariak aztertzea eta ostalaritza-lokal horietan, emandako lizentziarekin bateraezinak diren erabilerak garatzen ari ote diren ikuskatzea, hau da, oheak orduka "meublé" gisa alokatzen ari ote diren¹⁹ prostituzioan jarduteko.

2.- Jarduera-lizentziak baimendu gabeko "sukaldea" benetan erabiltzen ote den ikuskatzea.

3.- Nolanahi ere, erreklamazioa aurkeztu duen herritarrari ERANTZUTEA, eskatutako informazioa aurkeztuz. Eremu horretako auzotarrak behin eta berriz etorri zaizkio kexu Sindikoari eremu horretan diharduten proxeneten jardunak eragindako eragozpenak eta arazoak salatzeke; izan ere, kaleko prostituzio marjinala sustatzen dute, eta auzotarren ustez, jardun hori bateraezina da kaleko bizitegi-erabilerarekin, baita eremu horretan ekonomia sustatzeko asmoz garatu diren programekin ere. Lehenik eta behin, erreferentziazko lokaletan jarduera-lizentziak errespetatu behar dira, eta, jarraian, egungo egoera aztertu eta herritarren kexak zenbateraino justifika daitezkeen ebaluatu.

b) Bitarteko jarduera

- Irristailuen zarata, Sefarad plazan (erreg. zk.: 1721/12)

¹⁹ Meublé: Bikoteei sexu-harremanak edukitzeko gelak alokatzen dizkien tokia.

Erreklamazioa

Irristailuek Sefarad plazan sortzen duten zaratak enbarazu egiten diola eta, kexa aurkeztu du erabiltzaile batek, hara jotzen baitu bere etxebizitzaren atzeko fatxadak.

Azterketa

Adierazi diogu erabat funtsezkoa dela aurkeztu duen kexa. Izan ere, irristailuek Sefarad plaza baliatzea jolas eta lehia lekutzat ez da bateragarri leku hori oinezkoentzako pasealeku eta igarobide gisa baliatzearekin.

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzak arau oso bat eskaintzen dio irristailuekin ibil daitekeen lekuak zein diren argitzeari. 'Zirkulatzeaz' dihardu, hain zuzen ere, zirkulazio elementu gisa erabiltzeaz ari baita, ez, inondik ere, bestelako erabilereaz:

11.4. artikuluan honela dago jasota:

11.4.- Bizikleta, irristailu eta trizikloek halakoentzat diren karriletan barrena zirkulatu beharko dute eta, halakorik ezean, oinezkoen alderdietan barrena egin ahal izango dute (espaloiak, nasak eta ibiltokiak barne), baldin eta oinezkoen joan-etorriak galarazten ez badu, eta beti ere horiek duten lehentasuna errespetatzen dela eta abaila motelean joanez.

Ulertzen dugu, bada, oinezkoentzako eremua irristailuen jolas, lehia eta erakustaldietarako leku gisa baliatzea ez dela bateragarri Sefarad plazaren gainerako erabilerekin. Hirian eta auzoan badira irristailuentzako entrenamendu eta jolas pistak, eta, horrenbestez, jakinaren gainean jarri ditugu Udaltzaingoko arduradunak, debekua betearaz dezaten, eta, behar izanez gero, arau-hausleak salatu eta zigortu. Egoera zertan den zainduko dugu, behar bezain laster konpontzen dela ziurtatze aldera.

Irristailuek leku hori erabil ez dezaten oztopo fisikoak jartzeko proposamenari dagokionez –hala nola lurreko zerrendak,

sakanguneak edo beste-, une honetan aurrekontu eskasia handia bizi du udalak, eta zail egiten du horrek proposamena ongi hartua izatea, ez ezegokia delako, baliabiderik ez dagoelako baizik.

Nolanahi ere, horrelako neurri baten benetako kostua eta plazan izango lukeen eragin estetikoa zehazteko balio lezakeen edozein informazio osagarri ematerik izanez gero, baliagarri izango zaigu gomendio zehatzago bat egiteko.

Oraingoz ezin dugu urrunago joan gure jardueran, baina, berriro diogu, bestelako informazio osagarriak jasotzeko prest gaude, eta horren haritik geroa gomendioren bat egiteko.

Ebazpena

Horrenbestez, EZETSI EGIN DUGU kexa.

- Zaratak Jimmy Jazz diskotekan (erreg. zk.: 1809/12)

Erreklamazioa

Etxearen azpian duen diskotekaren jarduerak etengabe sortzen dituen zaratak salatu ditu erabiltzaile batek. Behin eta berriro salatu du, eta neurri ekonomikoak hartu dira jabeen kontra, baina arazoak konpondu gabe jarraitzen du.

Azterketa eta ebazpena

Udaleko Ingurumen Sailarekin izandako elkarrizketan jakinarazi digute esku hartu dutela dagoeneko, eta diskotekaren jabeak kaltetutako erabiltzailearen etxea erostea erabaki duela. Hala baieztatu digu erabiltzaileak. BITARTEKO JARDUERA.

- M2 tabernaren zaratak (erreg. zk.: 1818/12)

Erreklamazioa

M2 tabernak zaratak sortzen dituela eta ez dituela ordutegiak errespetatzen, salatu du erabiltzaile batek. Hainbat bider jarri du salaketa.

Azterketa eta ebazpena

Ingurumen Sailarekin izandako bileran adierazi digute dagoeneko esku hartu dutela, eta hainbat salaketa larri egin direnez dagoeneko, isun ekonomikoaz harantzagoko neurriren bat hartuko dela aurki. Hala jakinarazi diogu erabiltzaileari. BITARTEKO JARDUERA.

- Hotza etxebizitzan, supermerkatuko aire girotuagatik (erreg. zk.: 1744/12)

Erreklamazioa

Azpian duten supermerkatuko aire girotua dela eta etxebizitzan jasan behar duten hotza salatu dute erabiltzaile batzuek.

Azterketa eta ebazpena

Udaleko Ingurumen Sailarekin izandako elkarrizketan jakinarazi digute esku hartu dutela dagoeneko, eta supermerkatuari galdatu diotela proiektuan eskatzen ziren neurri zuzentzaileak betetzeko. BITARTEKO JARDUERA.

2.3.7.- Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak

2.3.7.1- Zuzendaritza

a) Idazki lagundua

- Elkarteen ordezkariak (erreg. zk.: 1601 / 11)

Erreklamazioa

Herritarrek parte hartzeko araudiaren 51. artikuluan elkarreei buruz xedatutakoa betetzeko eskatu nahi dio herritar batek Udalari.

Azterketa eta ebazpena

Udal administrazioan aurkezteko eskabide bat egiten lagundu diogu. IDAZKI LAGUNDUA

b) Ezestea

- ONCEren federazioan bildu beharra (erreg. zk.: 1705 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batzuk etorri zaizkigu eta zera salatu digute, Espainiako Goalball Federazioak ikusmen-desgaituak behartu egiten dituela ONCEren federazioan bilduta egotera bere jardueretan parte hartzeko.

Azterketa eta ebazpena

Gasteizko Udalak aho batez babestu zuen ikusmen-desgaituen kolektiboaren erreklamazioa; izan ere, 2012/04/27ko Osoko Bilkurak onartutako mozioaren arabera, Itsuentzako Kirolaren Espainiako Federazioan indarrean dagoen kirol-legeria aldatu beharko litzatekeela eskatu zuen, ONCEri afiliatuta ez dauden ikusmen-desgaitu guztiei goalballean jokatzeko aukera ukatzen diela aintzat hartuta.

Gure ustez, Udal Administrazioak bere esku zegoen guztia egin du gai horretan.

2.3.7.2- Herritarren parte-hartzea

a) Orientazioa

- Kirol-elkartea (erreg. zk.:1752 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat etorri zaigu orientazio eske. Izan ere, kirol-klub bateko kide izaki, bidaiaria bat antolatu zuen, eta Elkarteak gutxienez 3000 euroko etekina eskatu zion. Hark diru gehiago atera zuen, eta, Zuzendaritza Batzordearen baimenik gabe, klubeko bazkide parte-hartzaileen artean banatzea erabaki zuen. Zuzendaritza-batzordeak erabaki zuen espediente zigortzailea irekitzea eta bazkide-kondizioa kentzea.

Azterketa eta ebazpena

Erabiltzailearekin bildu ginen eta zenbait alternatiba eskaini genizkion haren egoera konpontzeko. ORIENTAZIOA.

2.3.8.- Udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoak

2.3.8.1- TUVISA

a) Ezestea

- Autobus-aldaketa kobratu izana (erreg. zk.:1675 / 12)

Erreklamazioa

2011ko abuztuaren xx(e[a])n, 20:00ak inguruan, erreklamatzailerak, Salburua-Zabalgana 6. linearen erabiltzailea,

autobusetik jaistera behartu zuen gidariak azken geltokira iritsi aurretik, eta, euripean, kalearen bestaldeko geltokira aldatu behar izan zuen, eta berriro ordaindu, txartela baliatuz.

Uste du gidariaren portaerak ez duela justifikaziorik, eta ez du ulertzen zergatik ez den uzten linea horretan autobusean geratzen, azken geltokiaren ondoren, itzulera egin ahal izateko.

Azterketa

TUVISAren autobus zerbitzua arautzen duten arauetan aurreikusten da ezen, joan-etorriko ibilbide lineala edo ibilbide bera duten lineetan, azken geltokian bidaiari guztiek autobusetik jaitsi beharra daukatela, eta berriro igotzekotan, dagokiena ordaindu behar dutela berriro.

Honela dago jasota udalaren webgunean:

Zer dira azken geltokiak?

Lineetako azken geltokiak dira; bertan pertsona guztiek jaitsi egin beharko dute autobusetik. Behin autobusetik jaitsi direlarik, txartela ordaindu beharko dute berriro igo nahi badute. Gaur egun [5](#), [6](#) eta [7](#) lineetan bada azken geltokia, horietan ibilbidea antzekoa delako noranzko bietan.

Arau horren oinarria hauxe da: joan-etorriko ibilbide berberak dituzten linea horietan ez dauka zentzurik bidaiariak azken geltokitik atzera itzultzea; izan ere, aukera dute autobusa nahi duten noranzkoan hartzeko dena delako geltokian, parez pare baitaude alde baterako nahiz besterako geltokiak.

Ebazpena

Azaldutakoa ikusirik, eta autobus-gidariak behar den adeitasunez jokatu zuen ala ez epaitzera sartu gabe, zerbitzua modu egokian eman zela uste dugu, eta arauak bete zirela.

- Autobus-txartelaren zenbatekoa (erreg. zk.:1699 / 12)

Erreklamazioa

Autobusen erabiltzaile bat kexu etorri zaigu, *hiri-autobusaren prezioa igo delako*.

Azterketa eta ebazpena

Bere eskaera aztertu dugu, eta horren harira zera adierazi diogu, Gasteizko Udalaren Gizarte Gaien eta Adinekoen Sailaren erabakia ez dela ez arbitrarioa ez legearen kontrakoa, demokratikoki hautatuko gobernu-organoei dagokien diskrezionalitate politikoaren emaitza baizik; izan ere, besteak beste, prezio publikoak erabakitzeke ardua ere gobernu-organo horiei dagokie.

Doako hiri-garraioaren prestazioa hiri-garraio hobariduna izango da hemendik aurrera, eta hortaz, erreklamatzailerentzat, garraio hori EZ da doakoa izango, eta txartelarengatik prezio murriztu bat ordaindu beharko du, hain zuzen ere 11 zentimo bidaia bakoitzeko.

Azken batean, diskrezionalitate politikoaren ondoriozko erabaki baten aurrean gaude, eta gainera kontuan hartzekoa da erabaki horrek eragin txikia duela; beraz, gure erakundeak ezin du erabaki hori baloratu, Udala zuzen jokatzen ari delako Zuzenbideari jarraiki.

Ezin dugu haren eskaeraren aldeko inolako ebazpenik eman, eta hortaz EZETSI egingo dugu, gogoan hartuko badugu ere

b) Gomendioa

- Bonotaxia (erreg. zk.:1682 / 12)

Erreklamazioa

Herritar bat kexu agertu da **TUVISAk ezindu fisiko zein psikikoek (% 33 eta % 65 bitartekoa) garraio txartel hobariduna lor dezaten eskatzen dituen baldintzengatik.**

Azterketa

TUVISAko kontseiluaren erabakiarekin bat, ezindu fisiko zein psikikoek garraio txartel hobariduna eskuratzeko honakoak bete behar dituzte:

TXARTEL HOBARIDUNA ESKURATZEKO:

**Laguntzen duen finantza-erakunderen baten txanpon txartela.*

**Eskabidea betetzea.*

**Ezintasun maila (% 35etik % 65era bitartekoa) egiaztatzen duen jatorrizko agiria.*

** **Ez gida-baimenik ez garraiorako beste laguntzarik ez izatearen** zinpeko aitortpena*

** Bonotaxiaren onuradun ez izatea, aparkatzeko txartelik ez izatea eta eskatzailea **trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan subjektu pasiboa ez izatea.***

Baldintza guztiak ikusi ondoren, laguntza horien onuradunek garraiorako bestelako laguntzak ez jasotzeko baldintza justifikatzen duen HELBURUA uler dezakegu, hain zuzen ere, kontzeptu beragatik laguntzak ez pilatzea, baina ez dugu ulertzen zergatik eskatzen zaien % 33tik % 65era bitarteko ezintasuna dutenei ibilgailurik eta gidatzeko baimenik EZ izateko. Mugikortasun urritua duen pertsonak Gasteiztik kanpo bidaiatzeko ibilgailu egokitua izan dezake eta aldi

berean TUVISAren zerbitzuko ohiko erabiltzaile izan. Matrikulazioaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestean pertsona horiek hobaria jaso dutela esaten da, hau da, jada ezindu izateagatiko onura jaso dutela; baina ezin gara ados egon arrazoi horrekin hobaria ezinduei hiritik haratagoko mugimenduan autonomia emango dien autoa lortzeko baita, eta hori ez da hiri-espazioa. Autobuserako hobaria, berriz, hiri-garraiorako espezifikoa da. Bi arrazoi osagarri erantsi ditzakegu, batetik, 65 urtetik gorakoei hobaria ematen zaie gidatzeko baimenari uko egitera behartu gabe, eta bestetik kontuan hartzekoa da desgaituek eta herritar-sektore jakin batzuek (zaharrak,, familia ugariak eta abar) **gehiago behar dutela zerbitzu hori gainerako herritarrek baino**, eta horregatik hobaria justifikatua dagoela baldintza berdinetan.

Ebazpena

Adierazitako guztia aintzat hartuta,

Herritarren Defendatzailearen Araudian xedatutakoarekin bat, honako GOMENDIOA egiten dugu: **ezindu fisiko edo psikikoek garraiorako txartel hobariduna lortzeko bete behar dituzten baldintzak berrikusteko eta honakoa kentzeko: *Gidatzeko baimenik ez izatearen* zinpeko aitortpena.**

- “Artiumen” garaje-plaza lagatzea (erreg. zk.: 1775/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batek zera salatu digu, Artium garajeko plaza baten lagapen-hartzaile izaki, orain Zabalgana auzoan bizi dela, eta horregatik, plaza erabiltzen ez duenez, horren erabilera laga nahi duela. Udala, ordea, prozedura hori oztopatzen ari da: ez diote lagapenean interesatuta daudenen zerrenda ematen, ez diote

alokairua baimentzen transmisioa baizik, ezin du hutsik dagoen plazaren berri emango lukeen iragarkirik jarri, eta abar.

2.- Arazoaren azterketa

Lagapen-kontratuaren baldintzek ezartzen dute lagapen-
eskubidea alokatzeko debekua; alabaina, planteatutako bestelako
mugak saihestu daitezke eta saihestu behar dira. Gure ustez, **Artium
aparkalekuaren baldintza-agiriaren 3. artikuluan jasota
dagoenez**, Udalaren helburu nagusia zera da, aparkalekua kokatua
dagoen eremuan bizi diren herritarrei ibilgailua aparkatzeko plaza bat
eskaintzea. Edozein arrazoirengatik lagapen-hartzaile batek plaza
transmititu nahi badu, gure ustez transmisioa erraztea litzateke
bidezkoena, eta baliabide hori alfer gera dadin saihestea.

UUTTEEk sustatutako zeharkako kudeaketako beste aparkaleku
batzuetan, Udalak, eskatzailerik eza aintzat hartuta, itxarote-
zerrendaren eskakizuna alde batera utzi du, eta erraztasunak eman
ditu lagapen-hartzaileek beren kabuz, lagapen-eskubidea hartzeko
interesa duten pertsonak bila ditzaten. Gure ustez ARTIUMi ere
eskatu behar zaio horrela joka dezan, eta horrek esan nahi du
interesdunei erraztasunak eman behar zaizkiela transmiti daitezkeen
plazak iragartzeko.

3.- GOMENDATZEN dugu:

Artium aparkalekuko zenbait lagapen-hartzailek beren plazen
erabilera laga nahi dute, aparkalekuekin egiten ari den bezala, eta
TUVISAk plaza horien transmisiorako izapideak erraztu beharko
lituzke, lagapen-hartzaileei aukera emanaz eskuragarri dituzten
publizitate-bitartekoak erabiltzeko eskuratzailerik izan daitezkeenekin
harremanetan jar daitezzen.

2.3.8.2- 21 Zabalgunea

a) Orientabidea

- Olarizuko birkokatzeak (erreg. zk.: 1708 eta 1725 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar batzuk etorri zaizkigu esateko Olarizuko etxeetan noiz birkokatuko dituzten zain daudela, eta ez dakitela egoera hori gaur egun zertan den. Zalantzak dauzkate, gainera, beren etxebizitzetan egindako neurketen inguruan.

2.- Arazoaren azterketa

Erabiltzaileekin bildu gara, eta Ensanche 21 agentziakoekin egindako bileran gertatu denaren berri eman diegu:

- Alternatibak eskaini dizkiegu: etxebizitza zaharragoak, ordura arte zuten hipoteka-maileguko eskaintzarekin jarraitzeko.
- Olarizuko auzotarren % 80, gutxi gorabehera, birkokatzea aurrera eramateko prest zegoen.
- Etxebizitzak neurtzeko, katastroaren arabeko metro erabilgarriak hartuko dira kontuan.
- Aukera izanez gero, etxebizitza aldatzeko aukerak emango dira.

3.- Ebazpena

AHOZKO ORIENTAZIOA.

b) Bitarteko jarduera

- Etxebizitza eraberritzea, Arkupeetan (erreg. zk.: 1822/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek erantzun bat eskatzen du, bere semeari etxebizitza bat eraberritzeko diru-laguntza ematearen inguruan.

Azterketa eta ebazpena

Eskaera hori dela eta egindako jarraipenaren ondoren, txosten bat igorri digute, non adierazten diguten "gaur goizean bertan" onartu dela xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx-ren jabetzako etxebizitza – xxxxxxxxxxxxxxxx kalean dagoena– eraberritzeko diru-laguntza. Hala jakinarazi diogu herritarrari. BITARTEKO JARDUERA.

2.3.8.3- "Luis Aranburu" Udal Musika Eskola

a) Ezestea

- Autismoa eta Musika Eskolan sartzea (erreg. zk.: 1750 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat bulegora etorri zaigu salatzeko alaba autista baten ama dela, eta haurrari ukatu egin diotela udalaren musika-eskolan sartzea.

Azterketa eta ebazpena

Zera adierazi diogu, guk ez dugula inolako diskriminazio-zantzurik ikusi, Udala ez dagoelako legez behartuta horrelako haurrei tratamendu bereziren bat ematera. EZESPENA

2.3.8.4- Amvisa

a) Herritarrak berak itxia

- Ur-hornikuntza Estarroan (erreg. zk.: 1688 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat kexu etorri zaigu bulegora, Estarroako udalean ura nola hornitzen duten salatzeke.

Azterketa eta ebazpena

Harekin bildu ginen, eta azkenean zera adierazi zigun, hobe genuela pixka bat itxarotea, guk esku hartu gabe arazoa konpon daitekeen ikusteko. ERABILTZAILEAK ITXITA.

b) Bitarteko jarduera

- Kontagailuen zaratak (erreg. zk.: 1814/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek salatu du 2008an aldameneko etxebizitzetan kontagailuak aldatu zirenez geroztik zarata gogaikarriak entzuten dituela logelatik.

Azterketa eta ebazpena

AMVISArekin harremanetan jarri garelarik, jakinarazi digute 2008an bai aldatu zirela kontagailuak, baina salaketa jaso ondoren, urrian, berriro aldatu zirela. Erabiltzailearekin harremanetan jarri gara, eta baieztatu digu arazoa konpondu dela. BITARTEKO JARDUERA.

c) Orientabidea

- Fakturazio arazoak (erreg. zk.: 1867/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek kexa aurkeztu digu bere etxebizitzan dagoen ezkutuko ur isuriaren ondorioz AMVISAREN fakturazioarekin izandako arazoak direla eta.

Azterketa

AMVISAREkin harremanetan jarri garelarik, baieztatu digute halaxe dela, onartzen dutela gehiegizko kontsumoa ezkutuko isuri bati zor zaiola, eta kontuan izanik isuritako ura ez zela arazketa sarera joan, ez diotela erabiltzaileari ez saneamendua ez arazketa kobratuko. Horrek berekin dakar hasieran jaulkitako faktura zuzendu beharra, kopurua murrizte aldera. Zuzenketa hori ez da egin oraindik, enpresaren sistema informatikoa aldatzearen ondorio diren arazoengatik.

Era berean jakinarazten digute hasieran jaulkitako faktura itzuli egin duela erabiltzaileak, eta, hala ere, AMVISAK ez diola inolako errekar gurik edo interesik aplikatuko faktura berria igortzen dionean.

Ordainketa zatikatzeari dagokionez, Udaleko Ogasun Sailari dagokio kontu hori. Beraz, erabiltzaileak faktura berria jasotzen duenean, otsailean, Ogasun Sailaren bulegoetara jo beharko du – Eduardo Dato kalea, 11 behera–, dokumentazioarekin eta, bereziki, AMVISAK 2012ko urriaren 8an egindako txostenarekin, ordainketa zatikatzeko baimena eman diezaioten. AMVISAtik adierazi digutenez, ezkutuko ur isurien kasuan Ogasun Sailak arazorik gabe onartu ohi du ordainketa zatikatzea.

Ebazpena

ORIENTAZIOA

d) Ezestea

- Kontagailuen funtzionamendu okerra (erreg. zk.: 1763/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile bat kexu ageri da xxxxxxxxxxxx-n kokatutako lokal batean ur zerbitzuek modu ezegokian funtzionatzen dutelako.

Azterketa

Lonja hori bere jabetzakoa dela azaldu digu, baina xxxxxxxxxxxx SLri alokatua egon dela ur kontsumoak gertatu ziren denboran; sozietate hori kontratuaren titular gisa ageri dela AMVISArekin egindako kontratuan, eta hura izan dela erreklamatzeko dioten ura kontsumitu duena. Zerorrek ordaindu zenuen kopuru hori kontratuaren titularra aldatzean.

Jakinarazten dizugu AMVISAK ezohiko ur kontsumoaz kontratuaren titularrari bakar bakarrik ohartarazteko obligazioa duela, eta hala erabaki zuen egitea xxxxxxxxxxxx SLrekin, hura ageri baitzen hornikuntza kontratuaren titular gisa, baina ez lokalaren jabeari, hura ez baitzen kontratuaren titularra. Hala dago jasota:

Gasteizko udalerriko uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzeko ordenantza:

56. ARTIKULUA.- KONTRATUAREN TITULARRAK

Ura hornitzeko zerbitzuak, Ordenantza honetan aurreikusitako xedeetarako eta bertan ezarritako baldintzetan, dagokien kontratuaren bitartez kontratatuko dira. Kontratua honako hauek sinatuko dute: alde batetik, AMVISAK izendatzen duen pertsonak, eta bestetik, zerbitzuak jasoko dituen eraikinaren,

lokalaren edo barrutiaren jabeak edota dagokion eraikina okupatzeko zilegitasuna duela egiaztatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak.

Hornikuntza mozteari dagokionez, ordenantza horren 71. artikulua, ordaintzeko obligazioa ez betetzeaz diharduelarik, honela dio: *Abonatuak ez badu erregistratutako ur-kontsumoa ordaintzen – edo beste edozein kontzepturen trukekoa–, aldian-aldian indarrean dauden tarifyan adierazitakoaren arabera, eta dagokion Ordenantza Fiskalean adierazitako moldeetan, AMVISAK hornidura eta saneamendu zerbitzuak eten ahal izango ditu.*

Udalaren ur enpresaren aukerako ahalmena da beraz, libreki moztu baitezake ur hornikuntza, ez ordaintzea gertatu ala ez.

Ebazpena

Administrazioak ordenantzari finkatutako moduan jokatu du kasu honetan. Beraz, zoritxarrez, ezin dugu aintzat hartu zure kexa. EZESPENA

2.3.9.- Ekonomia Sustapena eta Enplegua

2.3.9.1- Zuzendaritza

a) Ezestea

- Kontratazio-poltsa (erreg. zk.: 1692 eta 1698 / 12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Gasteizko herritar batzuk gugana kexu etorri dira, Gasteizko Udalaren aldi baterako kontratazioko poltsak osatzen dituzten

pertsonen "kontroleko ofizial edo atezain" gisa lan egiteko duten eskubidea aldarrikatzeko.

2008ko otsailean, Poltsa Batzordeak eskaturik, kontratazio-zerrenda zabaltzeko erabakia hartu zen, Mendizorrotzako eta Gamarrako udako kanpainaren kontrataziotik eratorritako langile-premiak estaltzeko. 2011n zerbitzu hori pribatizatu da Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiz, eta zera iragarri da, baldintza-agirian 70 pertsonaren kontratazioa eskatuko dela, enplegu bat lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen (18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteak eta 50 urtetik gorakoak) lehentasuna emanaz. Neurri horrek kalte larriak dakarzkie aldi baterako kontratazioko poltsa osatzen duten pertsonen, zerbitzu horietan aldi baterako jardun dutenez esperientzia metatu dutenak eta lan horren mende bizi direnak, nahiz eta, adina dela-eta, lehentasunezko enpleguko baldintzak ez dituzten betetzen.

Erreklamatzailerik udalaren justifikazioa ere kritikatu dute; horren arabera, 2012. urtean debekatuta dago enplegu publikoa kontratatzea, defizita zuzentzeko presazko neurri buruzko 20/2011 Errege Dekretua aplikatuz.

2.- Arazoaren azterketa

Defizit publikoa zuzentzeko aparteko neurri buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Dekretua aplikatzeak zuzenean eragiten die sektore publikoaren zerbitzuan diharduten langileei, izan ere:

1. 2012ko ekitaldian, sektore publikoaren zerbitzuan diharduten langileei ordainsariak izoztu zaizkie, baita gobernu eta

aholku-organoetako goi-karguei eta Estatuaren Administrazio Nagusiko gainerako zuzendariei ere.

2. 2012ko ekitaldirako, Estatuaren Gobernuko goi-karguen produktibitate-osagarrirako kreditu orokorrak 100eko 10 murriztuko dira 2011ko ekitaldian xede berbererako bideratutakoen aldean.

3. 2012ko ekitaldian, Administrazio publikoek ezin izango dute erretiroaren kontingentziaren estaldura biltzen duten aseguru kolektiboen kontratuatarako edo enplegu-pentsioen planetarako inolako ekarpenik egin.

4. Ez da langile berririk sartuko, aurreko ekitaldietako enplegu publikoko eskaintzei dagozkien hautaketa-prozesuetarako edo soldadu eta marinelen militar-plazetarako izan ezik.

5. Ez da aldi baterako edo behin-behineko langilerik kontratatuko, presazko premia-arrazoiengatik eta lehentasunezkoak diren edo oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragina duten sektoreetan izan ezik.

6. Erretiroak gertatu ahala plazak amortizatuko dira, kopuru berean, honako sektore eta Administrazioetan izan ezik, non berritzeko tasa 100eko 10 izango den: hezkuntza, osasuna, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, eta zerga- eta lan-iruzurra kontrolatzeko eta haren aurka borrokatzeko Kidegoak.

7. Estatuaren sektore publiko osoari dagokionez, lanaldiak astean 37,5 ordu izango ditu gutxienez, ezarrita dauden, edo, hala badagokio, ezarriko diren lanaldi bereziak alde batera utzi gabe.

Bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak alkatearen²⁰ eta Tokiko Gobernu Batzordearen kontratazio-alorreko eskumenak zabaldu zituen, Osoko Bilkuraren eskumenak arau- eta kontrol-eskumenetara mugatuz. **(127. artikulua.** Tokiko Gobernu Batzordearen eskumenak).

Erreklamatzailleek adierazi dutenez, zalantzan jar daiteke behin-behineko administrariak kontratatu beharrean zerbitzua pribatizatuz langileak azpikontratatzek dakarren gastua murriztailea izatea, baina hori, azken batean, kritika politikoa da, legitimoa eta legezkoa. Enpresa kontratistari zerbitzua estaltzeko zenbait enplegu-lehentasan agintzearen aurka ere ezin daiteke ezer esan, baldin eta lehentasan horiek ekintza positiboaren legezko irizpideak errespetatzen badituzte.

Azken batean, diskrezionalitate politikoa da, legeak baimendutako marjinen artean mugitzen dena, eta, gainera, horretarako eskumeneko organoaren baimena duena; beraz, egindako kexa atzera bota behar dugu ezinbestean.

²⁰ **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.** Tokiko erakundeetan kontratatzeko arau espezifikoak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

Era berean, alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumena izango da toki-erakundeen ondasunen gaineko kontzesioak esleitzea, eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea, balioa ez denean aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa eta hiru milioi euro baino handiagoa; ondarea besterentzea ere beren eskumena izango da, balioa ez denean ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa.

b) Orientabidea

- Juduen kaleko xafla (erreg. zk.: 1633 / 11)

Erreklamazioa

Juduen kalean jarritako xaflan ageri den testuaren idazlea ez dago testuaren transkribapenarekin ados.

Azterketa eta ebazpena

Xaflaren neurria kontuan hartuta testua laburtu egin behar izan dela azaldu zaio eta herritarrak ulertu egin du azalpena. Juduen kultura interpretatzeko zentro bat sortzeko proposamenaren berri eman diogu eta bertan, bere lankidetzaz izango dugula jakinarazi.

c) Ofiziozko gomendioa

- Erortzeko arriskuko seinalea arrapala mekanikoetan (erreg. zk.: 56/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Zenbait herritar gure bulegora etorri dira Erdi Aroko hiriguneko arrapaletan erori direla salatzen; ildo beretik, orain aste batzuk Sindikoak, "el Síndico responde" irrati-programaren barruan, erabiltzaile baten eskaera bat jaso zuen gai horri loturik.

Erabiltzaile horrek berriz ere azpimarratu zuen Erdi Aroko hiriguneko arrapala mekanikoak oso arriskutsuak direla euriaren ondorioz bustitzen direnean, erortzeko arriskua handia izanik.

2.- Arazoaren azterketa

Bere garaian txostena eskatu genuen arrapaletan irristatzearen aurkako sistema bat ezartzeko aukerari buruz, baina Hiri Birgaitzeko

Zerbitzuak honako hau adierazi zigun: *"arrapala mekanikoetako egitura, elementuak eta makinak osatzen dituen oinarrizko materiala ildaskatutako altzairu herdoilgaitzezkoa da zinta edo tapiz mugikorra osatzen duten elementuetan. Gainazal horiek diseinatu eta programatu dira erabilera-egoera arruntetan irristatzeak eta arrisku-egoerak saihesteko. (...) Nolanahi ere, euriaren, elurraren edo izotzaren ondoriozko aparteko egoeretan, are kontu eta zuhurtzia handiagoz erabili behar dira arrapalak, litekeena delako noizbehinka arrisku-egoerak gertatzea lerratzeen ondorioz, beste edozein garraiobiderekin, zoladurarekin edo bide publikorekin gerta daitekeen bezala. (...)" (2008/12/1ean datatua.*

Sailarekin izandako bileretan, berriz, zera adierazi ziguten, ez zela komeni iragazgaizteko produktuak erabiltzea, gainazalek korrosio handia jasateko arriskua zegoelako.

Telefono-dei horren iradokizuna entzun ondoren, arrapaletako seinaleak egiaztatzeraz joan ginen, eta zera ikusi genuen, bertan zeuden seinaleen artean eskudelari eusteko GOMENDIOA zegoela.

Izandako erorikoak eta jasotako kexak aintzat hartuta, irristatzearen aurkako pelikulak erabiltzea ezinezkoa denez, oraingo gomendio-seinalearen ordean ARRISKU-seinale bat jarri beharko litzateke, euria izanez gero arrapalako zoru metalikoa oso irristagarria dela nabarmen ohartarazteko.

Horregatik guztiagatik,

3.- Ebazpena

GOMENDATZEN DUGU zoru bustiarengatik erortzeko arriskua ohartarazteko seinalea jartzea arrapala mekanikoen sarreran. Ertz

beltzeko triangelu bat izango da, eta horren barruan piktograma beltza, atzealde horiaren gainean.

Adibide gisa:



GOMENDIO ONARTUA.

d) Gomendioa

- Idazkiari emandako erantzuna (erreg. zk.:1726/12)

1.- Arazoaren aurkezpena

Herritar bat bulegora etorri zaigu salatzeko Udalaren aldetik ez duela inolako erantzunik jaso 2011ko abenduaren 28an, 2012ko martxoaren 26an eta 2012ko uztailaren 13an aurkeztu zituen eskariei dagokienez. Pintore kaleko 28.ean duen etxebizitzaren etorkizuneko trukea proposatzea zen eskarien xedea (1., 2. eta 3. dokumentu erantsiak).

2.- Azterketa

Herritarra Sindikoaren bulegora etorri zen eta gai horrekin lotutako agiriak ekarri zituen: "2011ko abenduaren 28an, 2012ko martxoaren 26an eta 2012ko uztailaren 13an eskariak aurkeztu zituen, erantzuna eskatzeko. Udalak erantzun ez dionez, Herritarren Defendatzailearengana jotzea erabaki zuen, 2012ko maiatzaren 16an, haren bitartekotza eskatzeko".

Aurtengo uztailaren 31n oraindik ez du administrazioaren erantzunik jaso, ez aldeko ez kontrakorik.

Gure ordenamendu juridikoan administrazioaren isiltasunaren figura jasotzen da, herritarrak nahi izanez gero administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzeko aukera izan dezan. Dena den, laburra bada ere, erantzun *adierazi* eta arrazoitua jasotzeko eskubidea du beti, administrazioak aurkeztutako eskaera onartzen duen edo ez adieraziko diona.

Hauxe dio Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 42. artikulua:

42.1. artikulua.- *Administrazioak esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar du prozedura guztietan, prozedura horiek hasteko modua edozein dela ere.*

42.3. artikulua.- Prozeduretako arauetan gehienezko eperik ezartzen ez denean, hiru hilabetekoa izango da.

Herritarrei dagokien jurisdikziora jotzeko aukera ematea du helburu administrazioaren isiltasunaren figurak, baina horrek ez du baztertzeko herritarren eskabide eta idazkiei berariaz erantzun nahiz halakoak ebatzi beharra.

3.- Ondorioa

Igaro den denbora kontuan izanik, eta gaian –aurkeztutako salaketan eta erabiltzaileak egindako alegazioetan– sakondu gabe ere, dagokion Zerbitzuari **GOMENDATZEN DIOGU** berariaz ERANTZUN diezaiola erabiltzaileari, eta, behar diren azalpen eta arrazoiak emateaz batera, haren alegazioak aintzat harturik, egin zuen eskabidea onetsi ala ezetsi egingo dion jakinaraz diezaiola.

2.3.10.- Osasun eta Kontsumo Saila

a) Ezestea

- Animalia identifikatzeko txipa (erreg. zk.: 1745 / 12)

Erreklamazioa

Udalak erabiltzaile bati eskatu dio animalia identifikatzeko txiparen tasa ordaintzeko. Hark tasa hori ezin duela ordaindu erantzun dio.

Azterketa eta ebazpena

Zera adierazi diogu, erreklamaturako tasak ez duela zerikusirik egun bizi duen egoera ekonomikoarekin, eta animalia baten jabe izaki, mantendu egin behar duela araudia betez.

- Isuna: txokolatina biguna (erreg. zk.:1722 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek uste du "*Alaba Jeneralaren kalean duen saltokian txokolatina bigun bat saltzeagatik ezarri dioten isunaren zenbatekoa gehiegizkoa dela*"

Azterketa eta ebazpena

Behin ekarri zigun dokumentazioa azterturik, zera adierazi genion, Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak isun bat ezarri ziola, bai, **baina ez txokolatina bigun bat saltzeagatik, ikuskatze-ekintzaren ondorioengatik baizik**. Izan ere, osasun- eta kontsumo-ikuskatzaileak bi aldiz bertaratu ziren lokalera: lehen bisitaldian produktuetan neurri higieniko-sanitario jakin batzuk betetzeko esan zioten, eta bigarreanean, Elikaduraren Txikizkako

Araudi Tekniko-Sanitarioan horri dagokionez ezarritakoa bete gabe jarraitzen zuela ikusirik, zegokion isuna ezarri zioten (10. artikulua).

Kasu honetan Administrazioak Legean ezarritakoaren arabera jardun du, eta ikuskatze-aktetan jasotakoari jarraiki; akta horietan jardunbide irregularrak zehazten dira, iraganean normaltzat jotzen baziren ere, gaur egun, irizpide zorrotzagoak betez, debekatuta daudenak. Gure ustez Udal Administrazioak zuzen jokatu du gai honetan, eta beraz, ezin dugu zure kexa aintzat hartu.

b) Orientabidea

- Segurtasunik eza Erdi Aroko hirigunean (erreg zk.: 1731 / 12)

Erreklamazioa

Erabiltzaile batek zera eskatu digu, Erdi Aroko hirigunean polizia-zaintza handitzea.

Azterketa eta ebazpena

Sindikoa-ren-Herritarren Defendatzailearen bulegora jende asko etortzen zaigu kexu, zu bezala, kalean babesik gabe sentitzen direla salatzen. Honekin batera doan dokumentuan jakinarazten dizugunez, apirilean **Prebentzio eta Laguntza Talde bat osatuko da Udalaren Herritarren Segurtasunaren mende**, hirian gatazka-arrisku handiena eduki dezaketen edo herritarrek babesgabezia gehien sentitzen duten gunek eta eremuak behar bezala babesteko.

Nolanahi ere, guk lanean jarraituko dugu eta aldian-aldian Udaltzaingoaren ordezkariekin bilduko gara, gure bulegora iristen diren kasu zehatzen berri emateko.

2.3.11.- Funtzio Publikoaren Saila

a) Errefusatzea

- Kontrol ofizialak arrazionalizatzeko plana (erreg. zk.: 1828/12)

Erreklamazioa

Erabiltzaileak berarekin izandako elkarrizketan adierazi zigunez, Gasteizko Udalak kontrol-ofizialen eta atezainen jendaurreko jarduerak egiteko eman nahi duen ziurtagiria lortu ahal izateko material gehien-gehiena gaztelaniaz dago, eta oso dokumentu gutxi dira euskaraz daudenak.

Azterketa eta ebazpena

Kexaren edukia aztertu ondoren, jakinarazi diogu zoritxarrez kasu hau Sindikoaren eskumenetik kanpo dagoela, Sindikoaren araudiaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera:

23. artikulua.-

Herritarren Defendatzailearengana edo Sindikoarengana zuzendu ahal izango dira, kexa aurkezteko interes legitimoa dutela uste duten hiritarrak edo hiritar taldeak, Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionario edo langile diren pertsonak izan ezik, lan edo zerbitzu harremanen alorrarekin erlazionaturiko gaiei dagokienean.

Udaletxeko langilea ez ezik, atal sindikal baten ordezkari ere bada erabiltzailea; kexa bere izenean nahiz atal sindikalaren izenean eginda ere, ondorioa berbera izango litzateke. Zoritxarrez, kexa ezin dugu onartu, esan bezala, sindikoaren eskumenetatik at dagoelako.

Dena dela, jakitera eman diogu badirela beste bide batzuk hizkuntza eskubideak bermatu eta gauzatu ahal izateko. Administrazio-bidea agortu eta auzibidera jotzeaz gainera (administrazioaren aurreko erreklamazioak, administrazio-errekurtsoak eta auzibide-errekurtsoak), Arartekora ere jo dezake bere erreklamazioa aurkeztera (haren araudiak ez baitu gurea bezalako mugarik), eta baita Eusko Jaurlaritzako "Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzura" ere.

ATZERA BOTATZEA

3. OROITIDAZKI HONETAN ITXI GABE GERATZEN DIREN DOSIERRAK

Oroitidazkiak hartzen duen epean abiarazitako hainbat dosier geratzen dira artean itxi gabe, oroitidazki hau bukatzeko orduan. Dosier horiek ez ixtearen arrazoi nagusia hauxe da: udal zerbitzu eta sailei eskatu dizkiegun txostenak jaso zain gaudela.

Oraindik itxi gabe dauden dosier horien zerrenda ematen dugu ondoren:

ABIAN DAUDEN DOSIERRAK, PENDIENTE			
ERREG . ZK.:	Sarrera data	Gaia	Saila
1738	2012/05/24	Irisgarritasuna eta ikuspena Armentianeko garaje batetik ateratzeko maniobra egiteko	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1760	2012/07/04	Bereizkeria "The End" diskotekan	
1775	2012/08/14	Artium aparkalekuko tokia	Beste enpresa batzuk
1771	2012/08/01	Bahiketa	Ogasuna
1689	2012/03/09	Erroldako baja	Informazioaren Teknologiak
1751	2012/06/12	Garraio publikoaren hobaria	Beste enpresa batzuk
1706	2012/04/02	Semaforoak oinezkoen pasabideetan eta bizikletak	Herritarren Segurtasuna
1726	2012/05/16	Lagapena	Ekonomia Sustapena
1747	2012/06/06	Gurpil-aukitik erortzea	Ogasuna eta Ekonomia
1716	2012/04/26	Arratoiak lonjetan. Zendaguren kalea	Osasuna eta Kontsumoa
1717	2012/04/26	Udaltzainen jardueren erregistroa	Herritarren Segurtasuna
1815	2012/10/17	AMVISA. Kontagailuak	Beste enpresa batzuk
1759	2012/07/04	Isuna	Herritarren Segurtasuna
1767	2012/07/23	Funts gehiengodunaren titularkidea eta OHZ ordaintzea	Ogasuna eta Ekonomia

ABIAN DAUDEN DOSIERRAK, PENDIENTE

ERREG . ZK.:	Sarrera data	Gaia	Saila
1774	2012/08/03	Ekortze makinetako lurrintzaileak	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1823	2012/11/07	Bizilagunekiko harremanak	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1730	2012/05/16	Barnekale Berria. Arazoak	Osasuna eta Kontsumoa
1691	2012/03/07	Isunak "Candil" taberna	Ogasuna eta Ekonomia
1746	2012/06/01	PASE-BAT txartela	Beste enpresa batzuk
1695	2012/03/14	Udaltzaingoarekiko istilua	Herritarren Segurtasuna
1868	2012/12/11	Bahiketa eta kontu mugimenduak	Ogasuna
1707	2012/04/02	Auzokoen jarduera gogaikarriak (prostituzioa?)	Herritarren Segurtasuna
1690	2012/03/07	Auzoko ijitoekikiko bizikidetza arazoak	Gizartegintza
1770	2012/08/01	Lanak Antepara kaleko kutxatilan	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1873	2012/12/04	Ondare erantzukizuna	Ogasuna eta Ekonomia
1703	2012/03/22	Gizabidezkoak ez diren ekintzak kalean, diskoteka baten eraginez	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1773	2012/08/03	"Udal" lorezain batek etxe partikular baten fatxadan egindako kalteak	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1879	2012/12/04	Irisgarritasuna	Hirigintza
1742	2012/05/29	Arratoiak barruko patioan	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1729	2012/05/16	Igogailua. Lizentzia.	Hirigintza
1870	2012/11/14	Gizarte etxeetako ikastaroak	Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak
1708	2012/04/04	Olarizukoei berriro ostatu ematea	Beste enpresa batzuk
1876	2012/12/11	Isuna	Herritarren Segurtasuna
1832	2012/11/19	Zabor-tasa	Ogasuna eta Ekonomia

4. BERRIRO ZABALDU DIREN AURREKO OROITIDAZKIETAKO DOSIERRAK

Aurreko oroitidazkian itxiztat jo genituen hainbat dosier zabaldu dira berriro oroitidazki honek hartzen duen denbora tartean, gehienetan herritarrek hala eskatuta.

Eragindako sailei eskatu dizkiegun txostenak jaso zain, guk geuk hobeto aztertu zain edo herritarrek berek dokumentazio berria noiz ekarriko, oraindik ere zabalik dauden dosierrak dira.

2012AN BERRIRO IREKITAKO DOSIERRAK				
Erregistro zk.	Sarrera data	Gaia	Berriro ireki den eguna	Saila
1544	2011/06/22	Prostituzioa	2012/06/27	Ingurumena eta Iraunkortasuna
1474	2011/02/23	"Menfis" taberna	2012/03/19	Herritarren Segurtasuna

5. BERARIAZKO JARDUERAK

5.1 Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Berezia.

5.1.1. 2012ko maiatzaren 7ko Batzordea

SINDIKO EDO HERRITARREN DEFENDATZAILEAREN TXOSTENA **BALORATZEA.**

2012KO OTSAILAREN 15ETIK 2012KO APIRILAREN 25ERA

- 1) Sindikoaren bulegoan jorratutako jarduerak (kontsulta- eta bilera-kopuruak...)
- 2) Jarduerak: hitzaldiak, gonbidapenak, bilerak kolektibo jakinekin, sindikoekin, udal sailekin...

3) Prentsa-dosierra

4) 2012KO OTSAILAREN 15ETIK 2012KO APIRILAREN 25ERA ARTE
ITXI GABE GERATUTAKO ETA LANDUTAKO KASUEN BALORAZIOA
(taulak)

4.1.- 1. taula: Irekitako dosierrak

4.2.- 2. taula: Pendiente dauden dosierrak

5) EZTABAIDATZEKOAK

*** Ez dago aztertu beharreko gairik ***

6.EBATZI BEHARREKOAK (bozketaz)

*** Ez dago aztertu beharreko gairik ***

6. ZERBITZUAREN EBALUAZIOA GASTEIZKO HERRITARREN USTEZ

Erabiltzaileei beren kexei erantzuteko landutako ebazpenak bidali dizkiegu, eta haiekin batera, beste ekitaldi batzuetan bezala, galdetegi bat, haiek gure esku-hartzea balioets dezaten eta ahal den neurrian herritarrei ematen diegun arreta hobetzeko; borondatez betetzekoak dira, eta anonimoak.

Jaso ditugun 32 galdetegiak aztertu ondoren, banakoen eredia baliatuz iritzia azaldu diguten pertsonen buruzko datu aipagarrienak azalduko ditugu:

Erantzun dutenen artean, % 60 gizonaek izan dira, eta % 40 emakumeek.

Erantzun dutenen % 38k unibertsitate-ikasketak ditu, eta % 35ek Batxilergo edo/eta Lanbide Heziketakoak.

Lan egoerari dagokionez, galdetegiak betetzeko unean % 50 lanean ari zen, eta nabarmendu beharra dago % 22 erretiratuak eta pentsiodunak zirela. Bakarrik % 6k dio langabezia dagoela.

Zerbitzura etorri eta galdetegiari erantzun diotenen adinari dagokionez, esan dezakegu aurten oso orekatuta geratu direla adin-tarte guztiak 26 urtetik 65 urtera arte, nahiz 35 eta 46 urte artekoak zertxobait nagusitu.

Bulegoari buruzko iritziari dagokionez, datu hauek atera daitezke:

Sindikoa Bulegoak emandako informazioa epaitzerakoan, gehien-gehienek (% 90) *oso ona* edo *ona* dela erantzun dute. Halaber, ehuneko berak sindikoa esku-hartzea *positibotzat* edo *oso positibotzat* jo du.

Kasu bakoitza ebazteko emandako denboraz denaz bezainbatean, erantzun dutenen % 35ek uste du ebazteko epea *luzea* edo *oso luzea* izan dela; % 55ek, berriz, epea *laburra* edo *oso laburra* izan dela esan du.

Zerbitzuak emandako ebazpenarekiko adostasunari dagokionez, % 85 *nahiko ados* edo *oso ados* dago ikerketatik ateratako ebazpenarekin; hala ere, % 40k esan du ez dela arazoa konpondu.

Arazoa ez dela konpondu uste duen % 40 hori gorabehera, galdetegia erantzun dutenen % 90ek ontzat eman dute zerbitzua, eta ideia hori berresteko, % 60k Sindikoarengana jotzeko gomendatuko lukete, zalantzarik gabe.

Geure aldetik, herritarren asebetetze maila ezagutzeko modu hau oso egokia dela jotzen dugu.

Kasuen % 50ean arazoa guztiz edo osorik konpondu ez bada ere, %85ek zerbitzua oso positibo edo nahiko positibotzat jotzen du, eta hori deigarria da.

Taldeei bidalitako galdetegietatik apenas jaso dugu erantzunik, beraz, ez dugu ebaluatzerik.

7. 2012-2013 EKITALDIAN EGINDAKO KEXA ETA KONTSULTEN ESTADISTIKA AZTERKETAK


7.1.1 KEXA KOPURUA HILEKO

2012ko ekitaldian guztira 190 dossier abiarazi dira. Horietaz gain, aurreko ekitaldietan alta emandako beste 44 dossier itxi dira, beraz, guztira 234 landu dira.

Ondoko grafikoan bulegoan hileko jaso diren kexa berriak agertzen dira, 2012ko martxotik oroitidazkiak barne hartzen duen epea bukatu arte, hau da, 2012ko abenduaren 31ra arte. Ikus daitekeenez, azaroan ireki zen dossier gehien Sindikoaren Bulegoan. Dena dela, ez dago inolako irizpide edo araurik kexak


aurkezterakoan, hainbat erabiltzailek arrazoi beragatik kexa aurkez dezaketela alde batera utzita.

MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAIÑN	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
20	12	27	10	12	7	25	18	48	11



Ondoren hilabete bakoitzean itxi diren dosierren kopurua azaltzen da; kopuru horrek ez du zertan bat etorri oroitidazki honetan irekitakoen kopuruarekin. Guztira 205 dosier itxi dira.

MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	2013ko urt.
13	8	30	15	22	2	12	4	67	3	29



7.1.2 JASOTAKO KEXA KOPURUA, GASTEIZKO AUZOEN ARABERA


AUZOA	DOS. KOP.
ABETXUKU	3
ADURTZA	8
ARANA	1
ARANBIZKARRA	4
ARIZNABARRA	4
ARRIAGA-LAKUA	15
ALDE ZAHARRA	13
KOROATZEA	4
BABESGABETUAK	3
ANGLO-VASCO	7
PILAR	5
ZABALGUNEA	11
JUDIMENDI	4
LOVAINA	5
MENDIZORROTZA	3

SALBURUA	10
SAN KRISTOBAL	7
SAN MARTIN	14
SANSOMENDI	11
SANTA LUZIA	7
DONE JAKUE	8
TXAGORRITXU	9
ZABALGANA	10
ZARAMAGA	7
EKIALDEKO NEKAZARITZA EREMUA	1
IPAR-MENDEBALDEKO NEKAZARITZA EREMUA	1
HEGO-MENDEBALDEKO NEKAZARITZA EREMUA	1
auzoa zehaztu gabe	14

190

7.1.3 JASOTAKO KEXA KOPURUA, ERABILTZAILEEN SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	EMAKUMEAK	TALDEAK
104	80	6




7.1.4 JASOTAKO KEXEI IRTENBIDEA EMATEKO GASTEIZKO UDALEKO SAILEI BIDALITAKO EBAZPENAK

SAILA	GOMENDIOA	BITARTERKARITZA	EZESPENA	ATZERA BOTATZEA	TARTEKA JARDUERA	IDAZKI LAGUNDUA	ORIENTAZIOA	BESTELAKOAK	OROBAT
ALKATETZA	1		1		1				3
AMVISA			1		1		1		3
GIZARTEGINTZA	1		7	1	2		5	1	17
DEMSAC			2				1		3
21 ZABALGUNEA					1				1
MUSIKA ESKOLA			1						1
FUNTZIO PUBLIKOA			2	1					3
OGASUNA	76		2				4		82
INGURUMENA	2		2	1	2		2		9
KULTUR PLANGINTZA	1								1
EKONOMIA SUSTEPENA	2						1		3
HERRITARRENTZAKO ZERBITZUAK			1			1	4		6
HERRITARREN SEGURTASUNA	14	1	18	2	3	5	3	2	48
TUVISA	2		2		1		4	1	10
HIRIGINTZA	4		2		1		4	1	12
OROBAT	103	1	41	5	12	6	29	5	202

7.1.5 GASTEIZKO UDALAK ONARTU EDO BAZTERTUTAKO GOMENDIOAK

Bulego honek gomendio gehixeago egin du aztertutako epean, bereziki Ogasun Sailari zuzenduak. Izan ere, zaborrak biltzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatu eta etxebizitza "hutsei" -araudiaren definizioaren arabera, "2012ko urtarrilaren 1ean inor erroldatuta ez duten etxebizitzak"- tarifa berria ezarri zitzaenez, horrekin lotutako kexa ugari jaso genuen.

	ONARTUA	ZATI BATEAN ONARTUA	EZ ONARTUA	ERANTZUN GABE
GOMENDIOAK	10	71	11	14
106				



8. PRENTSA DOSIERRA

Sindikoko edo Herritarren Defendatzaileak hainbat hedabidetan parte hartu du (irratia, prentsa idatzia); batzuetan elkarrizketak egin ditu eta bestetan bulego honek garatutako jarduerari buruzko artikuluak idatzi ditu.

Era berean, oroitidazki honek barne hartzen dituen hilabeteetan zehar, erakunde horri buruzko hainbat erreferentzia agertu dira

prentsa idatzian, baita Gasteizko herritarrekin egindako lanei eta beste jarduera batzuei buruzkoak ere; horiek guztiak modu kronologikoan antolatuta daude jarraian:

8.1 IRRATIA

- * **“El Síndico responde”, Radio Vitoria. Astelehenetan.**
- **2012/03/14: Radio Vitoria. Zaratak eta ordutegiak luzatzea.**
- **2012/03/15: Punto Radio. Tabernen ordutegia luzatzea.**
- **2012/12/12: Radio Vitoria eta Cadena Ser. Sindiko berriaren aurkezpena**

8.2. PRENTSA IDATZIA

8.2.1 ALBISTEAK

- 2012.12.23 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
ENTREVISTA: "LAS QUEJAS AYUDAN A MANTENER LA CALIDAD DE LAS INSTITUCIONES", DICE EL SÍNDICO
- 2012.12.22 [EL CORREO ESPAÑOL (TERRITORIOS M)]
ÚLTIMA NOVELA DE JAVIER OTAOLA: UNA SUECA Y UN DESTINO
- 2012.12.22 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
ALBERTO SUÁREZ ALBA: AQUÍ EL AYUNTAMIENTO DE TÓCAME-ROQUE
- 2012.12.13 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
EL SÍNDICO FIJARÁ SU SEDE PROVISIONAL EN SAN ANTONIO Y LA DEFINITIVA, EN EL EUROPA
- 2012.12.13 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
OBRAS> LA SEDE DEL SÍNDICO SE TRASLADARÁ A LA OFICINA DE SAN ANTONIO Y, DESPUÉS, AL EUROPA
- 2012.12.09 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
OPINIÓN: DE LA VEJEZ (JAVIER OTAOLA, ABOGADO Y ESCRITOR)

- 2012.12.05 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
ESPERPENTO PARA NOMBRAR CONCEJALA. DOS PLENOS HAN HECHO FALTA PARA DESIGNAR EDIL A ENCINA SERRANO
- 2012.12.05 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
SERRANO SE ESTRENA CON SU PROPIO 'SHOW'. LA EDIL TOMÓ POSESIÓN SIN PERMISO DE MADRID PARA QUE LE VIERAN UNOS FAMILIARES DE VISITA
- 2012.12.02 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
LA SEMANA EN IMÁGENES: BROCHE PARA 'CORTADA' - ROCK DE TEATRO - NUEVO SÍNDICO
- 2012.12.01 [EL CORREO ESPAÑOL (ALAVA)]
EL NUEVO SÍNDICO PROMETE EN SU ESTRENO «UN TRATO CÁLIDO Y LEALTAD A VITORIA»
- 2012.12.01 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
EL NUEVO SÍNDICO PROMETE LEALTAD PLENA A LOS CIUDADANOS
- 2012.11.27 [EL PAIS (NACIONAL) ED. PAIS VASCO]
VITORIA. LOS PARTIDOS PACTAN EL NOMBRE DEL NUEVO SÍNDICO
- 2012.11.27 [EL MUNDO DEL PAIS VASCO]
ACUERDO PRESUPUESTARIO. Y EN VITORIA LA NEGOCIACIÓN VA «BIEN»
- 2012.11.27 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EN PRIMER PLANO: MARTIN GARTZIANDIA, FUTURO SÍNDICO DE VITORIA
- 2012.11.27 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EL NUEVO SÍNDICO ESPERA SEGUIR SU LABOR COMO «SERVIDOR PÚBLICO» PARA VITORIA
- 2012.11.27 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
PORTADA: EL LETRADO MARTÍN GARTZIANDIA, NUEVO SÍNDICO DE VITORIA
- 2012.11.27 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
MARTÍN GARTZIANDIA, LETRADO MAYOR DEL AYUNTAMIENTO, SERÁ EL NUEVO SÍNDICO: "SERÉ INDEPENDIENTE Y ME IMPLICARÉ CON LA GENTE, COMO LO HACÍA DE FUNCIONARIO LLANO"

- 2012.11.27 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
EL SÍNDICO, UN SERVICIO CON COSTE CERO PARA LAS ARCAS PÚBLICAS
- 2012.11.27 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
PORTADA: "QUIERO SER ÚTIL A LOS VECINOS COMO SÍNDICO E IMPLICARME", MARTÍN GARTZIANDIA, NUEVO DEFENSOR DEL VECINO
- 2012.11.22 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
LOS RUINOSOS ALQUILERES DEL PP EN PLENA CRISIS. LA OPOSICIÓN EXIGE SOLUCIONES AL ONEROSO E INFRAUTILIZADO LOCAL DE SAN ANTONIO
- 2012.10.30 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
VITORIA SE DA UN MES PARA BUSCAR UN SÍNDICO DE CONSENSO ANTE LA FALTA DE ACUERDO
- 2012.10.30 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
MAROTO POSPONE LA ELECCIÓN DEL SÍNDICO AL NO HABER ACUERDO
- 2012.10.25 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EL ALCALDE PONE COMO ÚNICA CONDICIÓN PARA ELEGIR AL SÍNDICO QUE SEA FUNCIONARIO
- 2012.10.25 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
MAROTO ADVIERTE DE QUE EL SÍNDICO TIENE QUE SER "DE LA CASA"
- 2012.10.25 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
VITORIA ARRANCARÁ 2013 SIN PRESUPUESTOS Y CON LAS ARCAS MUNICIPALES 'VACÍAS'
- 2012.10.24 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EL PLENO MUNICIPAL BUSCARÁ EL LUNES UN NUEVO SÍNDICO
- 2012.05.12 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EL SÍNDICO PIDE QUE LOS JUEVES SE VIGILE EL HORARIO DE CIERRE DE LOS BARES DE LA CALLE ZAPATERÍA
- 2012.04.10 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
OPINIÓN: MUJER Y LAICIDAD (JAVIER OTAOLA, ABOGADO Y ESCRITOR)

- 2012.03.20 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
EL SÍNDICO PIDE QUE LAS PLAZAS PARA EMBARAZADAS NO
MERMEN LAS QUE OCUPAN DISCAPACITADOS
- 2012.03.18 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
'AQUAPARKING' EN ABETXUKO. EL AYUNTAMIENTO EXIGE POR
ERROR A UNA PROMOTORA QUE VENDA 71 APARCAMIENTOS QUE
NO SON SUYOS
- 2012.03.06 [EL CORREO ESP. EL PUEBLO VASCO (ALAVA)]
1.500 EUROS DE MULTA A UN USUARIO DE UN CENTRO CÍVICO POR
INSULTOS RACISTAS
- 2012.03.06 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
EL SÍNDICO PROPONE CREAR EN NUEVA DENTRO EL CENTRO DE LA
CULTURA JUDÍA
- 2012.03.06 [DIARIO NOTICIAS DE ALAVA]
EL SÍNDICO SUGIERE A LA POLICÍA LOCAL QUE SE FIJE EN LOS
'BOBBIES' INGLESES

8.3 TELEBISTA

*** "Ni más ni menos" ETB2**